



## LEGERIA BATERATUA

---

42/2007 Legea, 2007ko abenduaren 13koa, Natura Ondareari eta Biodibertsitateari buruzkoa.

Estatuko Buruzagitza  
«BOE», 299. zk., 2007ko abenduaren 14koa.  
Erreferentzia: BOE-A-2007-21490.

## TESTU BATERATUA

### Azken aldaketa: 2013ko abenduaren 21ean

JUAN CARLOS I.a

ESPAINIAKO ERREGEA

Honako hau irakurtzen duten guztiek jakin dezaten.  
Jakin ezazue: Gorte Nagusiek honako lege hau onetsi dutela, eta nik, hemen, berretsi egiten dudala.

### HITZAURREA

Gaur egungo gizartean, nabarmen areagotu da gure natura-ondarearen eta gure biodibertsitatearen inguruko arazoengatik kezka. Herritarrentzat, benetako kezka-iturri bihurtu dira bai ingurumen-arazoak globalizatzea eta klima-aldaketaren ondorioak gero eta gehiago nabaritzea, bai natura-baliabide batzuk etengabe ahitzea, bai basafloa eta basafaunako espezie ugari desagertzea –batzuetan atzerabiderik gabe– eta bai intereseko naturaguneak andeatzea, eta aldarrikatzen dute eskubidea dutela beren osasuna eta ongizatea bermatuko dituen kalitatezko ingurumena izateko. Aldarrikapen hori bat dator gure Konstituzioan ezarritakoarekin, non, 45. artikuluan, onartzen baita guztion eskubidea dela pertsonaren garapenerako egoki den ingurumena izatea eta guztion eginbearra ere badela hori kontserbatzea, eta ezartzen baita botere publikoek zainduko dutela natura-baliabide guztien zentzuzko erabilera, bizitza-kalitatea babestu eta hobetzeko eta ingurumena defendatu eta leheneratzeko, behar-beharrezko den elkartasun kolektiboan oinarrituz.

Esparru horretan, Espainiako natura-ondarea eta biodibertsitatea kontserbatu, era jasagarrian erabili, hobetu eta leheneratzeko oinarritzko araubide juridikoa ezartzen da lege honen bitartez, kontserbatzeko betebeharragatik, eta pertsonak beren ongizate, osasun eta garapenerako egoki den ingurumena izateko dauzkaten eskubideak bermatzeko. Halaber, jaso dira nazioarteko erakunde eta ingurumen-araubideetan azken urteetan ezartzen joan diren nazioarteko arau eta gomendioak ere, hala nola Europako Kontseiluarenak edo Dibertsitate Biologikoari buruzko Hitzarmenekoak. Bereziki, «Eremu Babestuetarako Munduko Lan Programa»ren ingurukoak jaso dira; mundu osoko naturagune babestu guztiei zuzentzen zaien berariazko lehen ekimena da programa hori nazioarte mailan.

Ildo bereko misio bat finkatu zen, 2002an, Garapen Jasangarriaren Mundu Mailako Johannesburgoko Gailurreko Ekintza Planean: «2010erako, dibertsitate biologikoa galtzeko egungo erritmoa neurri esanguratsuan moteltzea lortzea, mundu, eskualde eta nazio mailan, pobrezia arintzen laguntzeko eta lurreko bizidun guztien mesedetan». Nazio Batuen Batzar Nagusiak ziurtatu zuen, eta, ondoren, Dibertsitate Biologikoari buruzko Hitzarmeneko Plan Estrategikoan jaso zen –Kontratugileen Konferentziako VI/26 Erabakia, 11. puntua–. Eta, horren ondoren, VII/30 Erabakiarekin, helburu hori lortzeko esparru operatiboa onetsi zen. Europa mailan, zegozkion bitartekoak jarri ziren «2010erako biodibertsitatearen galera geldiarazteko eta, aurrerago, pertsonen ongizaterako ekosistemek eskaintzen dituzten zerbitzuak babesteko», 2006ko maiatzean onetsitako Europako Erkidegoen Batzordearen BAT (2006) 216 Komunikazioan. Helburu horiek sartu nahi dira legean; legeak, funtsean, planifikatu, babestu, kontserbatu eta leheneratzeko prozesu batzuk xedatzen ditu, gure gizartean gero eta jasangarriagoa izango den garapen bat lortzera bideratuak, eta garapen horrek bateragarria izan behar du Espainiako natura-ondarea eta biodibertsitatea iraunarazi eta areagotzearekin.

Helburu horrekin, legeak ezartzen du administrazio eskudunek bermatu egingo dutela, natura-baliabideak kudeatzean, ahalik eta onurarik handienak ekarriko zaizkiela gaur egungo belaunaldiei; ez dela murriztuko etorkizuneko belaunaldien beharrak eta asmoak betetzeko ahalmena; arduraz iraunarazi eta kontserbatuko direla nazioaren lurralde osoan dauden ondarea, biodibertsitatea eta natura-baliabideak, haien titularrak eta araubide juridikoak edozein direlarik ere, modu ordenatuan ustiatuz eta baliabide berriztagarriak leheneratuz.

Natura-ondarea aintzat hartzearen ikuspegitik, printzipio hauek daude lege honen oinarrian: funtsezko ekologia-prozesuak eta oinarriko bizi-sistemak iraunaraztea; biologiaren, genetikaren, populazioen eta espezieen dibertsitatea zaintzea, eta natura-ekosistemen, dibertsitate geologikoaren eta paisaiaren aniztasuna, apartekotasuna eta edertasuna zaintzea.

Paisaia babestea da lege honen printzipioetako bat, eta paisaiaren politikaren alderdi zehatz batzuk arautzen ditu legeak, hala nola paisaia batzuk babesteko aukera –naturagune babestuen figura orokorrigo edo espezifikoen bidez–, paisaien azterketa sartu behar izatea natura-baliabideak antolatzekeko planen gutxienekeo edukian, paisaia erabili ahal izatea Natura 2000 Sareari koherentzia eta lotura emateko bitarteko gisa, eta paisaia kanpo-efektu positibo gisa babesten laguntzen duten jarduerak sustatzea naturagune babestu baten barruan dagoenean. Hala ere, lege honen xedea ez da Espainian orokorrean paisaia babesteko politikak ezartzeko bitartekoa izatea, Konstituzioaren 149.1.23 artikuluan xedatutako oinarriko araudi gisa. Izan ere, kudeaketarako bitartekoak jarri behar dira abian politika horien eduki teknikoa eta ikuspegi orokorra bideratzeko –balio paradigmatikoa ere badu-eta ikuspegi horrek–: adibidez, Paisaiaren Europako Hitzarmenean gutxienekeo gisa ezarritako bitartekoak –Europako Kontseiluak adostu zuen hitzarmen hori 2000ko urrian, Florentzian–. Horrenbestez, bitarteko horiek geroago sartuko dira Espainiako ingurumen-politikan.

Natura-ondarea erabiltzearen ikuspegitik, honako hauek dira oinarriko printzipioak: ingurumenaren babesa gailentzea lurraldearen eta hirigintzaren antolamenduari; arretaz jokatzearen printzipioa gehitzea naturaguneei eta/edo basaespezieei eragin diezaieketen esku-hartzeetan; naturagune babestuetan garapenaren jasangarritasuna hobetzeko prozesuak bultzatzen laguntzea; baliabideen erabilera egokia sustatzea, natura-ondarea era jasangarrian ustiatuko dela bermatzeko, eta politika sektorialetan txertatzea natura-ondare eta biodibertsitatea kontserbatu, era jasangarrian erabili, hobetu eta leheneratzeko eskakizunak. Azkenik, oinarriko printzipioa da, orobat, herritarrek informazioa eta parte-hartzea bermatuta edukitzea politika publikoak diseinatu eta betetzen direnean; lege honetako helburuak lortzera zuzendutako xedapen orokorrak lantzen direnean ere bai.

Legeak indargabetu eta ordeztu egiten ditu bai 1989ko martxoaren 27ko 4/1989 Legea, Naturaguneak eta Basaflora eta Basafauna Kontserbatzekoa –lege hori, hein batean, Naturagune Babestuen 1975eko maiatzaren 2ko Legetik zetorren– eta baita haren ondoko aldaketak ere.

4/1989 Legeak osoko ikuspegi batetik sartu zuen Espainian nazioartean homologagarria den natura kontserbatzeko zuzenbidea, Erkidegoaren altxorra jaso zelako 1986ko urtarrilaren 1ean Espainia Europako Erkidegoetan sartu zenean. Lege horrek sendotu egin zuen iragan mendeko laurogeiko urteen hastapenean hasi zen prozesua; prozesu horretan, batetik, hitzarmen aldeaniztunak berretsi ziren, besteak beste, hezeguneen, espezie mehatxatuen nazioarteko trafikoaren edo espezie migratzaileen gainean, eta, bestetik, eskualdeko hitzarmenak berretsi ziren, Europako natura-ondarearen gainean, Europako Kontseiluak hala eskatuta. Hogeita hamar urtetik gora egin dute arau horiek indarrean, eta,aldi horretan, etapa garrantzitsu bat bete da natura kontserbatzeko politikan; horren osagarri izan dira Europako Habitaten Zuzentaraua eta hura Espainiako zuzenbidera ekartzeko behar izan diren transposizioak. Xedapen autonomikoetan jaso dira esparru nazionalerako arauak, eta nahiko maila egokia lortu da Espainiako natura-ondare eta biodibertsitatearen beharrezko kontserbazioan, estatuaren eta autonomia-erkidegoen artean gaur egun dagoen eskumen-banaketarekin; izan ere, orokortu egin da natura kontserbatzeko zuzenbidea, 4/1989 Legearekin ezarri zen oinarritzko esparruan lege autonomikoak sortzean. Lege honen bidez, aurrera egin nahi da prozesu horretan –oraindik hobetu baitaiteke–, Europako araudiaren transposizio hobe bat eginez eta xedapen hobea sortuz; lege honek bermatu egin behar du natura-ondare eta biodibertsitate hobea izango dugula, etorkizuneko belaunaldiei begira.

Funtzio sozial esanguratsu bat betetzen dute natura-ondareak eta biodibertsitateak, lotura estua dutelako pertsonen osasun eta ongizatearekin eta beren ekarpena egiten dutelako garapen sozial eta ekonomikoan; beraz, lege honek ezartzen du onura publiko edo gizarte-interesekotzat jo ahal izango direla bere helburuak betetzera zuzendutako jarduerak, ondorio guztietarako, eta, bereziki, eragina jasan dezaketen ondasun edo eskubideen jabetza kentzeko. Halaber, xedatzen da lehenetsuna izango dutela jabe eta erabiltzaileekin egindako borondatezko akordioek, naturagune babestu eta espezie mehatxatuen inguruko planifikazioan eta kudeaketan. Era berean, botere publiko guztien betebeharra da, beren eskumenerako esparruetan, natura-ondarea kontserbatu eta zentzuz erabiltzeaz arduratzea nazioaren lurralde osoan eta Espainiako subiranotasun edo jurisdikzioaren mendeko itsas uretan, ekonomia-eremu eskusiboa eta plataforma kontinentala barne, ondarearen titularra edo araubide juridikoa edozein delarik ere. Bereziki izango dira kontuan habitat mehatxatuak eta babes berezia duten basaespezieak. Gainera, itsasoko biodibertsitatearen gainean Estatuko Administrazio Orokorrek dauzkan eskumenak ere jasota daude legean.

Legeak ezartzen du administrazio publikoek bitartekoak jarri behar dituztela Espainiako natura-ondare eta biodibertsitatearen kontserbazio-egoera zein den jakin eta aldaketak zerk eragiten dituen jakiteko; jakintza horretan oinarrituta, kontserbazioa ziurtatzeko hartu beharreko neurriak diseinatu ahal izango dira, eta behar diren helburuak eta aurreikuspenak txertatu politika sektorialetan, natura-ondarea kontserbatu eta balioesteko, biodibertsitatea babesteko, natura-baliabideak kontserbatu eta era jasangarrian erabiltzeko eta ekosistemen osotasuna iraunarazteko eta, hala dagokionean, leheneratzeko. Halaber, administrazio publikoen eginbeharrak dira honako hauek: legearen helburuak lortzen lagunduko duten parte-hartzea eta jarduerak bultzatzea; natura-ondarea eta biodibertsitatea kontserbatzearen aurkako pizgarriak identifikatu eta kendu edo aldatzea; natura kontserbatzeko ekimen pribatuak sustatzeko neurri fiskalen erabilera bultzatzea; basaf flora eta basafaunako espezieak babestu eta haien habitatak kontserbatu behar diren gaineko heziketa eta informazio orokorra indartzea, eta parte-hartze publikoa sendotzea, horretarako sortzen delarik Natura Ondare eta Biodibertsitaterako Estatuko Kontseilua.

Horren osagarri, natura-ondarea eta biodibertsitatea kontserbatzeko, koordinazio- eta lankidetzak-mekanismoak eduki behar dira Estatuko Administrazio Orokorren eta autonomia-erkidegoen artean. Horretarako, elkarri informazio zehatza emateko betebeharra ezartzen da, lege honen helburuak beteko direla bermatzeko. Eta, Natura Babesteko Batzorde Nazionalak garatzen zituen funtzioak eta lege honek ezartzen dituen funtzio berriak betetzeko, Natura Ondare eta Biodibertsitaterako Estatuko Batzordea sortzen da, natura-ondarea eta biodibertsitatea babestearen gaian estatuaren eta autonomia-erkidegoen arteko aholku- eta lankidetzak-organo izateko; batzordearen txosten edo proposamenak onestea edo haietaz arduratzea Ingurumenaren Konferentzia Sektorialari dagokio.

Aipatutako helburu eta bitartekoak sei titulutan eta dagozkien xedapen gehigarri, azken xedapen eta xedapen indargabetzaileetan bildu dira.

Lehen tituluan, natura-ondarea eta biodibertsitatea ezagutu eta planifikatzeko behar diren bitartekoak arautzen dira. Titulu horretan, lehenik eta behin, Natura Ondare eta Biodibertsitatearen Inbentarioa aipatzen da, natura-ondarearen banaketa, ugaritasuna, kontserbazio-egoera eta erabilera jasotzeko bitarteko gisa, eta arreta berezia jartzen da kontserbazio-neurri espezifikoak behar dituzten elementuetan edo Batasunaren interesekotzat deklaratu direnetan; bereziki, lege honetan finkatzen diren katalogo eta inbentarioak jasoko dira Inbentarioan, eta adierazleen sistema bat ere bai, gure natura-ondarea zein egoeratan dagoen eta zer bilakaera duen modu sintetikoan jakiteko. Ingurumen Ministerioak landuko du, eta eguneratuta eduki, autonomia-erkidegoen eta instituzio eta erakunde zientifikoek laguntzarekin. Inbentario horretan oinarrituta, txosten bat egingo da urtero, eta Natura Ondare eta Biodibertsitaterako Estatuko Kontseiluari eta Batzordeari eta Ingurumenaren Konferentzia Sektorialari aurkeztuko zaie, jendaurrean jarri aurretik.

Lehen tituluko bigarren kapituluan, Natura Ondare eta Biodibertsitatearen Estatuko Plan Estrategikoa aipatzen da; plan horrekin, helburuak, irizpideak eta ekintzak ezarri eta finkatzen dira, ondarea, lehorreko eta itsasoko natura-baliabideak eta biodibertsitatea kontserbatu, era jasangarrian erabili eta, hala badagokio, leheneratzea sustatzeko. Planean, honako hauek jasoko dira: Espainiako natura-ondareak eta biodibertsitateak duten egoeraren eta bilakaeraren diagnostiko bat, plana indarrean dagoen aldian lortu beharreko helburuak eta Estatuko Administrazio Orokorrek garatuko dituen ekintzak, ekintza horiek egiteko behar diren aurrekontuen kalkuluekin batera. Ingurumen Ministerioak landuko du, gainerako ministerioen laguntzarekin eta, bereziki, Nekazaritza, Arrantza eta Elikadura eta Sustapen ministerioen laguntzarekin; autonomia-erkidegoek ere parte hartuko dute, eta Ministroen Kontseiluak onetsiko du. Plana garatzean, Estatuko Administrazio Orokorren plan sektorialak egin ahal izango dira haren eskumeneko esparruan, Estatuko Plan Estrategikoko helburuak eta ekintzak politika sektorialetan txertatzeko, bai lehorreko ingurunean eta bai itsas ingurunean; hala ere, beste sail batzuen eskumenekoak diren planak, hala dagokienez, plan eta programen ebaluazio estrategikoaren mende egongo dira. Plan sektorialak lantzeko, kontsulta egingo zaie autonomia-erkidegoei eta tartean dauden sektoreei, eta dagokion ingurumen-ebaluazio estrategikoa egingo da. Errege-dekretu bidez onetsiko ditu Ministroen Kontseiluak plan sektorial horiek, Ingurumen Ministerioak eta tartean dauden ministerioek batera proposatuta.

I. tituluko hirugarren kapitulua natura-baliabideen plangintzaren gainekoa da, eta natura-baliabideak antolatzeke planak eta Natura Baliabideak Antolatzeke Gidalerroak ezartzen ditu oinarritzko bitartekotzat; Naturaguneak eta Basaflora eta Basafauna Kontserbatzeko 1989ko martxoaren 27ko 4/1989 Legean sortu ziren bitarteko horiek. Zehazten da natura-baliabideak antolatzeke planak autonomia-erkidegoen bitarteko espezifikoak direla, eta, plan horiekin, mugatu, tipifikatu eta sarean txertatuko direla gune jakin bateko ondarea eta natura-baliabideak osatzen dituzten sistemak, eta gainerako lurraldearekin duten lotura finkatuko dela. Plan horietako xedapenek mugatu egingo dute lurralde-antolamenduko edo antolamendu fisikoko beste edozein bitarteko, eta lehendik dauden bitartekoen gainetik egingo dira; baldintza hori ezinbestean bete behar da, gizakiaren ekintzek naturan eragiten duten narriadura larria eragotzi nahi bada. Gobernuak ematen dituen Natura Baliabideak Antolatzeke Gidalerroetan ezarriko da zein irizpide eta oinarritzko arau jaso behar diren natura-baliabideak kudeatu eta erabiltzeko autonomia-erkidegoen planetan.

I. titulu honetan jasotzen diren plangintza-bitarteko guztiek beteko dituzte, ezinbestean, tramite hauek: informazioa jendaurrean jartzea; kontsulta egitea bai ekonomia- eta gizarte-eragileei, bai dagokien administrazio publikoei eta bai lege honen helburuak lortu nahi dituzten irabazi-asmorik gabeko erakundeei, eta, hala dagokionean, ingurumen-ebaluazioa egitea –zenbait plan eta programak ingurumenean dituzten ondorioen ebaluazioaren gaineko 2006ko apirilaren 28ko 9/2006 Legean ezarritakoa–.

Naturaguneak kontserbatu eta leheneratzeaz gain, haien narriadura saihestea ere bada lege honen xedea. Beraz, aipatutako xedapenen osagarri, bere horretan jarraituko dute 4/1989 Legean jasotako prebentziozko babes-araubideek: naturaguneei aplikatzen zaizkienak eta Natura Baliabideak Antolatzeke Plan bat tramitatzeari dagozkionak. Saihestu egingo da ekintzak egitea edo baimen, lizentzia zein emakidak ematea, baldin eta haiek dakarten eraldaketak lege honen helburuak lortzea eragozten badu, betiere jardunean dabilen administrazioak aldeko txostenik egin ez badu.

Igarobide ekologikoak ingurumen-plangintzan edo natura-baliabideak antolatzeke planetan sartzen dira, eta lehentasunezko papera ematen zaie abelbideei eta mendi-eremuari. Igarobide ekologiko horiek kontuan izan behar dira Europako Erkidegoaren igarobide biologikoen sarea eratzean; Dibertsitate Ekologiko eta Paisaia Dibertsitatearen Estrategia Paneuroparrean eta Europako Lurralde Estrategian bertan daude definituta igarobide biologikoak. Zehazki, igarobide ekologiko horiek erabili ahal izango dituzte autonomia-erkidegoek, edo mendi-eremuak finkatu, Natura 2000 Sarearen koherentzia ekologikoa, funtzionaltasuna eta lotura hobetzeko.

II. tituluan, natura-ondareko habitat eta guneen katalogazioa eta kontserbazioa jasotzen dira, eta, lehenbizi, desagertzeko arriskuan dauden habitaten katalogazioan jartzen da arreta; kontserbatzeko edo leheneratzeko berariazko babes- eta kontserbazio-neurriak behar dituzten habitatak sartuko dira katalogazio horretan. Katalogoan aintzakotzat hartutako habitatak naturaguneei kudeaketa-bitarteko edo babes-figuraren batean sartu behar dira, eta kontserbatu eta leheneratzeko plan edo kudeaketa-bitartekoren bat eduki behar dute. Desagertzeko arriskuan dauden habitatak Kontserbatu eta Leheneratzeko Estrategiak onetsiko ditu Ingurumenaren Konferentzia Sektorialak, Natura Ondare eta Biodibertsitaterako Estatuko Batzordeak proposatuta eta alde zuzenetik Natura Ondare eta Biodibertsitaterako Estatuko Kontseiluaren txostena eskuratuta.

II. tituluko bigarren kapituluan, naturaguneak babesteko araubide berezia ezartzen da, 1989ko martxoaren 27ko 4/1989 Legean xedatutakotik abiatuta; berariaz sartzen dira Itsas Ereku Babestuak, eta itsas eremu babestuen sarea sortzen da, Europar Batasunaren gidalerroen ildotik; horretaz gain, mugaz gaindiko naturagune babestuak sortzeko aukera ere ezartzen da. Legean, bere horretan jarraitzen dute natura-parke eta natura-erreserbentzat 1989ko martxoaren 27ko 4/1989 Legean ezartzen diren figura, definizio eta babes-araubideek, eta Paisaia Babestuen definizioa egokitu egiten da Europako Kontseiluaren Paisaiaren Hitzarmenaren arabera. Nolanahi ere, naturaguneak dauden lurralde-eremuko autonomia-erkidegoen zeregina izango da eremu horiek naturagune babestu deklaratzeko eta kudeatzeko. Ereku horietarako, aukera hauek ematen ditu lege honek: babeserako inguruak sortzea, onura publikokotzat jotzea ukitutako ondasun eta eskubideen jabetza kentzeko ondorioetarako, eta administrazio eskudunak ahalmena edukitzea lehentasunez erosi eta atzera eskuratzeko eskubideak erabiltzeko.

II. tituluko hirugarren kapitulua Natura 2000 Europako Ekologia Sarearen ingurukoa da; sare hori Batasunaren garrantzizko lekuek, kontserbazio bereziko eremuek eta hegaztientzako babes bereziko eremuek osatzen dute. Ereku horiek eremu babestutzat joko dira, eta Natura 2000 Sareko eremu babestuen izendapen espezifikoak izango dute; autonomia-erkidegoek ezarriko dituzte eremu horien hedadura eta mugak, beren legerietan eta dagozkien plangintza-bitartekoetan. Ereku horiek finkatu, eta Ingurumen Ministerioari emango diote haien berri autonomia-erkidegoek, hark Europako Batzordeari jakinaraz diezaien. Halaber, behar diren kontserbazio-neurriak ezarriko dituzte; neurri horien artean egongo dira erregelamenduzko, administrazio edo kontratuakotako neurri aproposak, eta neurri horiek ziurtatuko dute eremu horiek plan edo bitarteko egokietan sartuko direla. Ereku horietan dauden habitat mota eta espezieen eskakizun ekologikoei erantzuten dieten plan edo bitartekoak izango dira, behatu egingo da zein kontserbazio-egoeratan dauden habitat mota eta espezie horiek, eta Ingurumen Ministerioari bidaliko zaio dagokion informazioa; hark nahitaezko txosten bat aurkeztuko du sei urtean behin Europako Batzordean. Kontseiluaren 92/43/EEE Zuzentarauan ezarritako irizpideen arabera finkatuko dira eremu horiek; habitat naturalak eta basafauna eta basafloa kontserbatzearen inguruko 1992ko maiatzaren 21eko zuzentzarua da, eta erregelamendu mailako arau batera dago eginda transposizioa.

Ereku horiek finkatzeko aintzat hartu diren balioak zainduko direla ziurtatzeko, dagokion zuzentzarua-neurriak ezartzen dira. Horrela, taxuz ebaluatuko dira edozein plan,

programa edo proiektuk leku horretan izan ditzakeen ondorioak, baldin eta eragin nabarmena izan badezake aipatutako eremuotan, Natura 2000 Sareko eremu bat kudeatzearekin zuzeneko erlaziorik eduki gabe, edo sarerako beharrezkoa izan gabe, dela bakarrik edo dela beste plan, programa edo proiektu batzuekin batera. Kasuan kasuko autonomia-erkidegoek, plan, programa edo proiektu batekin ados daudela adierazteko, ziurtatu egin behar dute, aldez aurretik, plan, programa edo proiektu horrek ez diola kalterik eragingo eremuaren osotasunari, eta, hala badagokio, jendaurrean jarri beharko dute informazioa.

Dena dela, onartu egiten da bete egin ahal izango dela plana, programa edo proiektua, nahiz eta kaltea eragin, baldin eta lehen mailako interes publikoko ezinbesteko arrazoiak badaude; kasu zehatz bakoitzerako eman beharko dira horrelako arrazoiak, lege baten bidez edo Ministroen Kontseiluaren edo autonomia-erkidegoko gobernu-organoaren akordio arrazoitu eta publiko bidez. Azkenean, ezartzen da bilakaera naturalak eragindako aldaketengatik bakarrik izango dela bidezkoa Natura 2000 Sareko eremu bat osorik edo partzialki deskatalogatzeko proposatzea, eta, aldez aurretik, informazioa jendaurrean jarri behar dela.

II. tituluko laugarren kapitulua nazioarteko bitartekoek babestutako eremuen ingurukoa da; dagozkien nazioarteko hitzarmen eta akordioetan ezarritakoaren arabera eta haiek betetz babesten dira eremu horiek –nazioarteko garrantziko hezeguneak, Munduko Ondarearen Zerrendako toki naturalak, Atlantikoaren ipar-ekialdeko itsas eremu babestuak, Mediterraneorako Garrantziko Gune Bereziki Babestuak (MGGBB), geoparkeak, Europako Kontseiluaren erreserba biogenetikoak, etab.–. Eremu horientzat, kontserbazio-gidalerro batzuk landuko ditu Ingurumen Ministerioak, autonomia-erkidegoen partaidetzarekin, Natura Ondare eta Biodibertsitatearen Estatuko Plan Estrategikoaren esparruan; Ingurumenaren Konferentzia Sektorialaren akordio bidez onetsi beharko dira gidalerro horiek, Natura 2000 Sareko eremuei dagozkienekin batean, gune horiek planifikatu eta kudeatzeko esparru orientagarri gisa.

III. titulua basabiodibertsitatearen kontserbazioaren ingurukoa da, eta bete behar gisa ezartzen da autonomia-erkidegoek behar diren neurriak hartu behar dituztela egoera basatian bizi den biodibertsitatea kontserbatuko dela bermatzeko. Haien habitatak zaintzeari eman behar diote lehentasuna, eta berariazko babes-araubideak ezarri behar dituzte premia hori erakusten duen egoeran dauden basaespezieentzat. Debekatu egiten da espezie aloktonoak sartzea, arrisku hauetakoren bat baldin badago: haiek espezie autoktonoekin lehiatzea, purutasun genetikoa edo oreka ekologikoak aldatzea edo basanimaliak nahita hil, zauritu, eragotzi edo estutzea. Era berean, debekatu egiten da ale biziak nahiz hilak edukitzea edo garraiatzea eta haiekin trafikoan edo salerosketan aritzea.

Babes Bereziko Espezieen Zerrenda sortzen da, eta, horren ondorioz, taxon edo populazio bat zerrenda horretan sartzen denean, ebaluatu egingo da haren kontserbazio-egoera aldian-aldian, eta haren egoerari kalte egitea debekatu. Babes Bereziko Espezieen Zerrendaren barruan, Espezie Mehatxatuen Espainiako Katalogoa ezartzen da, eta taxon edo populazio mehatxatuak sartuko dira zerrenda horretan, dagoen informazio tekniko edo zientifikoa hori egitea aholkatzen duenean; «galzorian» edo «kaltebera» kategorietan sartuko dira, bizirauteko duten arriskuaren arabera. Taxon edo populazio bat «galzorian» kategorian sartzean, eremu kritikoak hautatu ahal izango dira, eta eremu horiek Desagertzeko Arriskuan dauden Habitaten Espainiako Katalogoan sartzeko aukera egongo da; ezinbestekoa izango da habitat horiek kontserbatuko direla ziurtatzeko berreskuratze-plan bat idaztea, 1989ko martxoaren 27ko 4/1989 Legean jasota dagoen bezala. Plan horretarako, eta, oro har, legean jasotako gainerako plan eta kudeaketa-bitartekoetarako, hiru urteko gehieneko epea ematen da, eta plan eta bitarteko horiek Natura Ondare eta Biodibertsitaterako Funtsaren bitartez Gobernuak finantzatu behar dituela ezartzen da. «Kaltebera» direnen kasuan, antzera jokatuko da, baina epea bost urtekoa izango da gehienez.

Espezie Mehatxatuak Kontserbatzeko Estrategiak onetsiko ditu Ingurumenaren Konferentzia Sektorialak, Natura Ondare eta Biodibertsitaterako Estatuko Batzordeak proposatuta, eta horiek eratuko dute lehorreko esparruan autonomia-erkidegoek landu eta onetsiko dituzten berreskuratze- eta kontserbazio-planen esparru orientagarria.

*In situ* egiten diren kontserbazio-ekintzen osagarri, bete behar bat ezartzen du legeak Espezie Mehatxatuen Espainiako Katalogoko espezieentzat, III. tituluko bigarren kapituluan: habitat naturaletik kanpo hazi edo hedatzeko programen garapena bultzatzea,



bereziki programa horiek kontserbazio-estrategietan nahiz berreskuratze- edo kontserbazio-planetan aurreikusi direnean.

Era berean, legeak ezartzen du material biologiko eta genetikoko bankuen sare bat bultzatuko dutela administrazio publikoek, eta Basaespezieen Material Biologiko eta Genetikoko Bankuen Espainiako Inbentarioa eratuko dutela, horren inguruan dauden datu guztiak biltzeko; basaespezieen ondare genetiko eta biologikoa zaintzea eta kontserbazio-programetan *ex situ* eta *in situ* operazioak txertatzea da helburua.

III. tituluko hirugarren kapitulua espezie inbaditzaileen arazoaren ingurukoa da; arazoa areagotzen ari da, eta mota askotako trukeen globalizazioari zor zaio. Espezie Exotiko Inbaditzaileen Espainiako Katalogoa sortzen da, eta han sartuko da espezie eta subespezie exotiko inbaditzaile oro, mehatxu larria baldin bada edo izan badaiteke espezie autoktono, habitat edo ekosistementzat, agronomiarentzat edo natura-ondarea erabiltzeari lotutako ekonomia-baliabideentzat.

III. tituluko laugarren kapituluan, ehiza eta arrantzarekin lotutako espezieen babesa arautzen da. Bermatu egin behar dira ehiza eta arrantza, natura-baliabideen ustiapentzat hartzen direlako, baina mugatu egin behar dira autonomia-erkidegoek erabakitzen duten eremu, egun, harrapaketa-metodo eta espezieetara, eta inola ere ez dira hautatuko Interes Bereziko Espezieen Zerrendako espezieak edo Europar Batasunak debekatutako metodo edo espezieak. Ehiza eta Arrantzaren Espainiako Inbentarioan bilduko da ehizatu edo arrantzatzea baimenduta dagoen espezieen populazioen, harrapaketen eta bilakaera genetikoen informazioa, eta arreta berezia eskainiko zaie espezie migratzaileei.

Legean arautzen diren estatu mailako katalogo, zerrenda eta inbentarioei dagokienez, adierazi behar da gure ordenamendu juridikoko ohiko bi ereduren arabera eratu direla: lehenengo motakoak, funtsean, informazioa emateko dira, eta autonomia-erkidegoek emandako datuekin lantzen dira, hala nola Basaespezieen Material Biologiko eta Genetikoko Bankuen Espainiako Inbentarioa edo Ehiza eta Arrantzako Espainiako Inbentarioa; bigarren motakoak ez dira mugatzen autonomia-erkidegoetatik datorren informazioa biltzera, eta, horretaz gaiz, oinarritzko legeriaren berezko helburuak lortuko direla bermatzeko behar den bitarteko osagarria dira. Eredu hori –Espezie Mehatxatuen Espainiako Katalogoa eratzeko 1989ko martxoaren 27ko 4/1989 Legeak erabilitakoa– mehatxu edo hondamen-maila handiagoko kontserbazio-egoeran dauden gune edo espezieen kategorietarako bakarrik gordetzen da; horientzat, beharrezkoa izaten da lurralde osorako gutxieneko arau homogeen batzuk ziurtatzea, gune eta espezie horiek egoki babestu eta leheneratu edo berreskuratzea ziurtatzeko. Horrelakoa da Desagertzeko Arriskuan dauden Habitaten Katalogoa edo Babes Bereziko Espezieen Zerrenda –horren barruan dago Espezie Mehatxatuen Katalogoa–.

IV. titulua natura-ondare eta biodibertsitatearen erabilera jasangarria sustatzearan ingurukoa da, eta, lehenengo kapituluan, Espainiako biosfera-erreserbak aipatzen dira; UNESCOren MaB (Gizakia eta Biosfera) Programako Biosfera Erreserben Munduko Sarearen azpimultzo bat eratzen dute Espainiakoek. Ondarea eta natura-baliabideak era integratu, parte-hartzaile eta jasangarrian kudeatzeko eredu bat osatzen dute biosfera-erreserbek; horregatik, arautu, haien ezaugarriak zehaztu, eta indartu egiten dira. Oinarritzko helburuak hauek dira: bateragarri bihurtzea biodibertsitate biologikoaren eta ekosistemen zaintza eta herritarren ongizatea hobetuko duen garapen ingurumenarentzat jasangarria, eta indarra ematea herritarren parte-hartzeari, ikerkuntzari, garapena eta ingurumena integratzeko heziketari eta integrazio hori hobetzeko modu berrietan trebatzeari.

IV. tituluko bigarren kapituluan, basataxonetako baliabide genetikoak eskuratzea eta haiek erabiltzearan onurak banatzea arautzen da, honako hauetan ezarritakoarekin bat: Dibertsitate Biologikoari buruzko Hitzarmena eta hura garatzen duten bitartekoak, eta, hala dagokionean, Elikadurarako eta Nekazaritzarako Baliabide Fitogenetikoaren gaineko Nazioarteko Tratatuak, FAO Elikadura eta Nekazaritzarako Erakundearena. Hirugarren kapituluan, basaespezieen nazioarteko merkataritza arautzen da, eta jasangarritasunaren printzipioetara egokitzen da merkataritzaren garapena, nazioarteko legeriaren arabera: bereziki, basafauna eta basafloorako espezie mehatxatuen nazioarteko merkataritzaren gaineko Konbentzioa, Dibertsitate Biologikoari buruzko Hitzarmena, Elikadurarako eta Nekazaritzarako Baliabide Fitogenetikoaren gaineko Nazioarteko Tratatuak –FAO Elikadura eta Nekazaritzarako Erakundearena– eta merkataritza kontrolatuz espezie mehatxatuak babestearan gaineko Europako Erkidegoko araudia.

Azkenik, titulu horretako laugarren kapituluan, natura-ondarea eta biodibertsitatea kontserbatzeko jakintza tradizionalak sustatzeko alderdi aplikagarriak jasotzen dira, Dibertsitate Biologikoari buruzko Hitzarmenari beraren eta Jabetza Intelektualaren Munduko Erakundearen arabera.

V. tituluan, natura-ondare eta biodibertsitatearen ezagutza, kontserbazioa eta leheneratzea sustatzera zuzendutako berariazko xedapenak jasotzen dira, eta Natura Ondare eta Biodibertsiterako Funtsa sortzen da; lagundutako finantziatorako bitartekoa izango da Funtsa, eta haren bidez ziurtatuko da lurraldeak kohesioa izango duela eta lege honen helburuak lortu egingo direla. Bereziki ziurtatuko da hiru urteko epean landuko direla legean jasotzen diren plan eta kudeaketa-bitartekoak eta honako hauek lortzeko neurriak betetzeko bitartekoak: basoak era jasangarrian kudeatzen lagundu, basoetako suteak estrategikoki saihestu, lurraldea jagon eta Estatuko Administrazio Orokorrak finantzatzen dituen naturagune eta basoak babestu. Era berean, estatu mailako irabazi-asmorik gabeko elkarteei laguntzak emango zaizkiela jasotzen da; natura-ondare eta biodibertsitatea kontserbatu, leheneratu eta hobetzea helburu nagusi duten ekintzak garatzeko laguntzak izango dira. Halaber, jasotzen da autonomia-erkidegoek eskumena dutela gune babestu deklaraturako eremuetan dauden lursailen kanpo-efektu positiboak pizgarriak ezartzeko.

VI. tituluan, arau-hausteen xedapen orokorrak, tipifikazioa eta sailkapena eta dagozkien zehapenen sailkapena eta preskripzioa daude jasota, eta adierazten da erantzukizun penala administrazio-erantzukizunaren gainetik dagoela; nahitaezko elementua da titulu horretakoa, natura-ondare eta biodibertsitatearen gaian Europak dituen printzipioak eta zuzentarauak aplikatzeko (kaltea saihestea sendatzea baino hobea; kutsatzen duenak ordaindu egiten du; arretaz jokatzearen printzipioa...).

Legearen zenbait artikulutan, haien garapenak diren erregelamenduzko arauetara bidaltzen da. Horri dagokionez, honako hau esan behar da: kasu batzuetan, errege-dekretu bidez onetsitako planifikazio-bitartekoak dira, eta lege honen helburuak lortzeko osagarriak dira, helburu horien izaeratik indar lotesle jakin bat behar dutelako eta, aldi berean, aldatzeko prozedura bizkor bat ere bai, aldakorra den errealitate batera egokitzeko aukera emango duena; beste kasu batzuetan, administrazioaren antolaketako gaiak edo estatuko finantza-bitartekoak dira (adibidez, katalogoen funtzionamendua, lankidetzak eta koordinazio-organoen eraketa edo Natura Ondararako Funtsa), eta haiek legean xehe-xehe arautzeak zurrunez bihurtuko lituzke.

Azkenean, xedapen gehigarri bat jasotzen da legean, itsasoko gune, habitat eta espezieen gainean Estatuak dituen eskumenak betetzearen ingurukoa.

Legearen aplikazio-eremutik kanpo uzten dira arrantza-baliabideak; izan ere, estatuaren eskumen eskusiboa da haiek babestu, kontserbatu eta birsortzea eta haiek arrantzatzeke jarduera arautu eta kudeatzea kanpoko uretako itsas arrantzaren arloan; hala ere, ingurumen-neurriak sartzeko baldintza dago ezarrita, xedapen hauen arabera: Europako Erkidegoa Eratzeko Tratatuaren 130. artikulua eta Dibertsitate Biologikoari buruzko Hitzarmenaren 6. artikulua -1992ko ekainaren 5ean Rio de Janeiro onartutakoa-.

Hala, aipatzen da 3/2001 Legea aplikatu behar dela arrantza-baliabideak babestu, kontserbatu eta birsortzeari dagokion guztian, «itsas arrantza»ren arlokoak baitira lege horrek ezartzen dituen neurriak eta hartzen duen itsas esparrua; Estatuari esleitzen zaio arlo horren eskumen eskusiboa Konstituzioaren 149.1.19 artikuluan (Konstituzio Auzitegiaren 38/2002 Epaia, 11. epaitza juridikoa).

Gainera, babestu egiten dira merkataritza-itsasketaren arloko eskumenak, Estatuko Portuen eta Merkataritza Itsasketaren 1992ko azaroaren 24ko 27/1992 Legean xedatutakoak; Estatuari esleitzen zaizkio arlo horren eskumenak Konstituzioaren 149.1.20 artikuluan, eta hori adierazten da Konstituzio Auzitegiaren 40/1998 Epaian.

Hori dela eta, legeak ez die eragiten itsas ingurunea babestu eta kutsadura saihestu eta hari aurre egiteko eskumenei; Sustapen Ministerioari dagozkio eskumen horiek, Konstituzio Auzitegiak itsasotik itsasorako isuri izendatzen dituen dagokien guztian.

Bigarren xedapen gehigarriak tokiko kontserbazio-neurri gehigarriak arautzen ditu, eta hirugarrenak lege honen aplikazio-eremutik kanpo uzten ditu nekazaritzarako eta elikadurarako baliabide fitogenetiko eta zoogenetikoak eta arrantza-baliabideak, haiek beren berariazko araudiak arautzen dituelako.



Beste xedapen gehigarri batek arautzen du Natura Ondare eta Biodibertsitaterako Estatuko Kontseiluak eta Batzordeak ordeztuko dituztela, hurrenez hurren, Basoen Kontseilu Nazionala eta Natura Babesteko Batzorde Nazionala.

Bosgarren xedapen gehigarrian, 1989ko martxoaren 27ko 4/1989 Legearen edukia errepikatzen da: Gobernuak gaitasuna duela aldi baterako mugak ezartzeko legean araututako jardueren inguruan, Espainia partaide den nazioarteko tratatu eta hitzarmenak betetzeko. Seigarren xedapen gehigarriak, berriz, NKNB-MEDen araubidea erregulatu du (Natura Kontserbatzeko Nazioarteko Batasuna - Mediterraneo).

Xedapen iragankorreki dagokienez, lehenak ezartzen du Espezie Mehatxatuen Espainiako Katalogoko espezieek lehengo sailkapenarekin jarraituko dutela, lege hau indarrean sartzen den unean indarrean dagoen araudiak ezartzen dituen ondorioekin, katalogoa lege honetara egokitan ez den bitartean; eta bigarren xedapen iragankorrek epeak eta finantzatzeko mekanismoak ezartzen ditu, legean jasotako kudeaketa-plan eta -bitartekoentzat.

Legearen osagarri, zortzi eranskin gehitzen dira, zuzentarau hauetako edukiekin: Kontseiluaren 79/409/EEE Zuzentaraua, 1979ko apirilaren 2koa, basahegaztiak kontserbatzearen ingurukoa, eta Kontseiluaren 92/43/EEE Zuzentaraua, 1992ko maiatzaren 21koa, habitat naturalak eta basafauna eta basafloa kontserbatzearen ingurukoa.

## ATARIKO TITULUA

### 1. artikulua. *Xedea.*

Natura-ondarea eta biodibertsitatea kontserbatu, era jasangarrian erabili, hobetu eta leheneratzeko oinarritzko araubide juridikoa ezartzen du lege honek; izan ere, Konstituzioaren 45.2 artikuluan daude ezarrita pertsonaren garapenerako egoki den ingurumena kontserbatzeko eginbeharra eta ingurune horretaz gozatzeko eskubidea.

### 2. artikulua. *Printzipioak.*

Printzipio hauek dira lege honen oinarri:

a) Funtsezko prozesu ekologikoak eta oinarritzko bizi-sistemak iraunaraztea eta ekosistemek pertsonen ongizaterako eskaintzen dituzten zerbitzuak babestea.

b) Biodibertsitatea eta geodibertsitatea kontserbatzea.

c) Baliabideak egoki erabiltzea, natura-ondarea eta, batik bat, espezie eta ekosistemak era jasangarrian ustiatuko direla eta leheneratu eta hobetu egingo direla bermatzeko.

d) Ekosistema naturalen, dibertsitate geologikoaren eta paisaiaren aniztasuna, apartekotasuna eta edertasuna kontserbatu eta zaintzea.

e) Politika sektorialetan txertatzea natura-ondare eta biodibertsitatea kontserbatu, era jasangarrian erabili, hobetu eta leheneratzeko eskakizunak.

f) Ingurumenaren babesa gailentzea lurraldearen eta hirigintzaren antolamenduari, eta gailentasun horren oinarritzko suposizioak.

g) Arretaz jokatzeko naturaguneei eta/edo basaespezieei eragin diezaieketen esku-hartzeetan.

h) Bermatzea herritarrek informazioa edukiko dutela eta parte hartuko dutela lege honen helburuak lortzera zuzentzen diren politika publikoak diseinatu eta betearaztean, xedapen orokorrak barne.

i) Naturaguneetan edo gune erdinaturaletan garapenaren jasangarritasuna hobetzeko prozesuei laguntzea.

### 3. artikulua. *Definizioak.*

Lege honetan, honako hitz hauek ondoren adierazten den bezala ulertuko dira:

1) Mendi-eremuak: inguruko lurraldeek baino garaiera handiagoa duten lurralde jarraitu eta zabalak dira; dituzten ezaugarri fisikoengatik, gradiente ekologikoak agertzen dira; gradiente horiek baldintzatu egiten dute ekosistemen antolamendua, eta eragina edukitzen dute eremu horietan garatzen diren izaki bizidun eta gizarteetan.

2) Espezie batentzako eremu kritikoa: banaketa-eremuko sektore batzuk izaten dira, eta, haietan, espeziea ongi kontserbatzeko funtsezko habitatak egoten dira; edo egoera estrategikoan egoten dira espeziearentzat, eta egoki iraunarazi behar izaten zaie sektore horiei.

3) Biodibertsitatea edo dibertsitate biologikoa: edozein iturritako organismo bizien aldakortasuna, hala nola, besteak beste, lehorreko eta itsasoko ekosistemak eta beste ekosistema akuatiko batzuk eta haiek osatzen dituzten gune ekologikoak; espezie bakoitzaren barneko, espezieen arteko eta ekosistemen beren dibertsitatea biltzen du.

4) Jakintza tradizionala: natura-ondare eta biodibertsitateari loturik, tokian tokiko biztanleek dituzten jakintza, berrikuntza eta azturak, esperientziatik garatuak eta toki bakoitzeko kulturara eta ingurumenera moldatuak.

5) Kontserbazioa: egoera onuragarrian iraunaraztea natura-ondare eta biodibertsitateari eta, batez ere, basafauna eta basafiorako espezieen populazioen habitat natural eta erdinaturalak, edo haiek leheneratzea, eta hori lortzeko hartu behar diren neurriak betetzea.

6) *In situ* kontserbazioa: ekosistema eta habitat natural eta erdinaturalak kontserbatzea; bideragarriak diren basaespezieen populazioak beren ingurune naturaletan iraunarazi eta berreskuratzea; eta hezi eta hazitako espezieak, berriz, beren ezaugarri espezifikokoak garatu dituzten inguruneetan iraunarazi eta berreskuratzea.

7) *Ex situ* kontserbazioa: dibertsitate biologikoaren osagaiak beren habitat naturaletatik at kontserbatzea.

8) Igarobide ekologikoa: luzera eta eraketa aldakorreko lurraldea izaten da, eta funtzionalki lotzen ditu bereizita dauden eta basafiora eta basafaunarentzat aparteko garrantzia duten naturaguneak, bere kokapen eta kontserbazio-egoeratik; lotura horri esker, ahalbidetu egiten dira basaespezieen populazioen arteko hartu-eman genetikoa edo espezie horietako aleen migrazioa, beste prozesu ekologiko batzuekin batera.

9) Lurralde-jagoletza: estrategia edo teknika juridiko batzuen multzoa da, eta, horien bidez, lurren jabe eta erabiltzaileak partaide egiten dira natura, kultura eta paisaiaren balio eta baliabideak kontserbatzen eta erabiltzen.

10) Ekosistema: unitate funtzional gisa elkarri eragiten dioten landare-, animalia- eta mikroorganismo-komunitateek eta haien ingurune bizigabeak eratzen duten gune dinamikoa.

11) Espezie autoktonoa: berezko banaketa-eremuan dagoena.

12) Desagertutako espezie autoktonoa: berezko banaketa-eremuan iraganean desagertu zen espezie autoktonoa.

13) Espezie exotiko inbaditzailea: ekosistema edo habitat natural zein erdinatural batean sartu edo finkatzen dena eta aldaketa eta mehatxua dakarrena berezko dibertsitate biologikoarentzat, dela jokabide inbaditzaileagatik edo dela kutsadura genetikoa eragiteko arriskuagatik.

14) Habitat baten kontserbazio-egoera: habitat natural edo erdinatural batean eta bertan bizi diren ohiko espezieengan ondorioak dituzten eragileen multzoak sortzen duen egoera; epe luzera, eragile horiek ondorioak izan ditzakete habitataren banaketa naturalean, egituran eta funtzioetan, eta eragile horien mende egon daiteke lurralde batean habitat jakin bateko ohiko espezieek bizirautea.

15) Habitat natural baten kontserbazio-egoera onuragarria: banaketa-eremu naturala egonkorra denean edo handitzen denean da onuragarria egoera; badaude habitata epe luzera iraunarazteko behar diren egitura eta funtzio espezifikokoak, eta egoten jarrai dezakete aurreikusten den etorkizunean; eta habitateko espezieen kontserbazio-egoera onuragarria da.

16) Espezie baten kontserbazio-egoera onuragarria: onuragarria da egoera, baldin eta espeziearen populazioen dinamikak adierazten badu espezieak berebiziko garrantzia daukala bere habitatean, eta epe luzera ere eduki dezakeela; berezko banaketa-eremua ez da murrizten ari, eta ez dago murrizteko arriskurik aurreikusten den etorkizunean; badago habitat bat hedadura nahikoa duena espeziearen populazioak epe luzean iraunarazteko, eta pentsatzekoa da etorkizunean ere egongo dela.

- 17) Kanpo-efektua: ekintza batek, haren helburu izan gabe, eragiten duen ondorioa.
- 18) Geodibertsitatea edo dibertsitate geologikoa: Lurraren eboluzioaren emaitza eta erregistroa diren geologia-elementuen aniztasuna –arrokak, mineralak, fosilak, lurzoruak, erliebeko formak, geologia-formazio eta -unitateak eta paisaiak barne–.
- 19) Geoparkeak edo parke geologikoak: lurralde mugatuak dira; forma geologiko paregabeak dauzkate, garrantzi zientifiko, apartekotasun edo edertasun berezikoak, eta adierazgarriak dira geologiaren eboluzioaren historia eta forma horiek sortu dituzten gertakari eta prozesuak ezagutzeko. Gaiari lotutako arkeologia-, ekologia- edo kultura-baliabideengatik nabarmentzen diren lekuak ere bai.
- 20) Habitat naturalak: lehorreko edo uretako gunek dira, eta ezaugarri geografiko, abiotiko eta biotikoek bereizten dituzte, guztiz naturalak izan zein erdinaturalak izan.
- 21) Espezie baten habitata: faktore abiotiko eta biotiko espezifikoek baldintzatutako ingurunea; ingurune horretan bizi da espeziea bere bizi-zikloaren fase batean.
- 22) Kudeaketa-bitartekoak: naturagune bat eta haren erabilerak kudeatzeko edozein teknika biltzen du izendapen horrek; teknika horiek jendaurrean jartzeko prozesu bat bete behar dute, onespren formal bat izan behar dute, eta argitaratu egin behar dira.
- 23) Material genetikoak: jatorria landare, onddo, animalia, mikrobio edo bestelako izakiren batean duen material oro, herentziaren unitate funtzionalak dituena.
- 24) Konpentsazio-neurriak: plan edo proiektu batean ezarritako berariazko neurriak dira; plan edo proiektu horrek espezie edo habitat batean izan duen eragin negatiboa ahalik eta zehatzen konpentsatzea da neurri horien helburua.
- 25) Leku baten kontserbazio-helburua: eremu batek kontserbazio-egoera onuragarri bat lortzeko zer populazio-maila eduki behar duen espezieetan eta zer azalera eta kalitate eduki behar duten habitatek.
- 26) Paisaia: lurraldearen edozein zati, herritarrek hautematen duten moduan; haren izaera faktore naturalen eta/edo giza faktoreen ekintza eta elkarrekintzaren emaitza da.
- 27) Natura-ondarea: naturako ondasun eta baliabideak, dibertsitate biologiko eta geologikoaren iturri direnak eta balio esanguratsua dutenak ingurumenaren, paisaiaren, zientziaren edo kulturaren aldetik.
- 28) Baliabide biologikoak: baliabide genetikoak, organismoak edo haien zatiak, populazioak, edo gizateriarentzat balio edo erabilera erreala nahiz potentziala duten ekosistemetako beste edozein osagai biotiko.
- 29) Baliabide genetikoak: balio erreala edo potentziala duen material genetikoak.
- 30) Natura-baliabideak: naturako osagai oro, gizakiak bere beharrak asetzeko balia dezakeena eta gaur egun balio bat duena edo balioa izan dezakeena. Adibidez: paisaia naturala; lurrazaleko eta lurpeko urak; lurzorua, zorupea eta lurrak, haien batik batik bat zertarako erabil daitezkeen aintzat hartuta –nekazaritza, arrantza, basogintza, ehiza eta babesak–; biodibertsitatea; geodibertsitatea; baliabide genetikoak eta bizitzaren euskarri diren ekosistemak; hidrokarburoak; baliabide hidroenergetikoak, eolikoak, eguzkikoak, geotermikoak eta antzekoak; atmosfera eta espektroradioelektrikoa; mineralak, arrokak eta beste geologia-baliabide berriztagarri eta ez-berriztagarri batzuk.
- 31) Biosfera-erreserbak: UNESCOren MaB Programan biosfera-erreserba deklaraturako lurraldeak. Programa horri atxikita dago Espainiako Erresuma, eta ondarea eta natura-baliabideak osorik eta modu parte-hartzaile eta jasangarrian kudeatzeko programa bat da.
- 32) Ekosistemak leheneratzea: ekosistemen funtzionalitatea eta ekosistemek egoera heldu baterantzko bilakaera izateko gaitasuna berrezartzeko jarduerak.
- 33) Taxona: ezaugarri komunak dituzten organismoen taldea.
- 34) Desagertutako taxona: berezko banaketa-eremuan iraganean desagertu zen taxon autoktonoa.
- 35) Taxon autoktonoak: leku jakin batean era naturalean dauden taxonak, desagertutakoak barne, desagertutakorik baldin badago.
- 36) Natura-ondarea era jasangarrian erabiltzea: natura-ondarearen osagaiak modu eta erritmo jakin batean erabiltzea, osagai horiek epe luzean murriztu ez daitezen; horrela, eutsi egingo zaie osagai horiek egungo eta etorkizuneko belaunaldien beharrianak asetzeko eskaintzen dituzten aukerei.
- 37) Lurralde-jagoletzako erakundea: erakunde publiko zein pribatua, irabazi-asmorik gabea, eta bere ekimenetan, besteak beste, lurraldea jagoteko akordioak egiten dituena natura-ondare eta biodibertsitatea kontserbatzeko.

38) Ondare geologikoa: zientzia, kultura eta/edo hezkuntzarako balioa duten geologiako natura-baliabideen multzoa, direnak direla –formazio eta egitura geologikoak, lurrazalaren formak, mineralak, arroak, meteoritoak, fosilak, lurzoruak edo beste agerpen geologiko batzuk–, honako hauek ezagutu, ikertu eta ulertzea ahalbidetzen dutenak: a) Lurraren jatorria eta eboluzioa, b) Lurrari forma eman dioten prozesuak, c) iraganeko eta oraingo klimak eta paisaiak eta d) bizitzaren jatorria eta bilakaera.

#### **4. artikulua.** *Natura-ondare eta biodibertsitatearen funtzio sozial eta publikoa.*

1. Funtzio sozial esanguratsua betetzen dute natura-ondare eta biodibertsitateak, pertsonen garapen, osasun eta ongizatearekin duten lotura estuagatik eta garapen sozial eta ekonomikoari egiten dioten ekarpenagatik.

2. Deklaratu ahal izango da onura publikokoak edo gizarte-interesekoak direla lege honen helburuak lortzera bideratutako jarduerak, ondorio guztietarako eta, batez ere, jabetza kentzeko ondorioetarako, jarduera horiek ondasun edo eskubideren batzuetan eragina izanez gero.

3. Naturagune babestu eta espezie mehatxatuen planifikazio eta kudeaketan, borondatezko akordioak sustatuko dira natura-baliabideen jabe eta erabiltzaileekin.

#### **5. artikulua.** *Botere publikoen betebeharrak.*

1. Botere publiko guztiak arduratuko dira, beren eskumeneko esparruetan, natura-ondarea kontserbatu eta zentzuz erabiltzeaz nazioaren lurralde osoan eta Espainiako subiranotasun edo jurisdikzioaren mendeko itsas uretan, ekonomia-eremu eskusiboa eta plataforma kontinental barne, ondarearen titularra edo araubide juridikoa edozein delarik ere. Bereziki izango dira kontuan habitat mehatxatuak eta babes berezia duten basaespezieak.

2. Administrazio publikoek:

a) sustatu egingo dituzte lege honen helburuak lortzen laguntzen duten partaidetza eta ekintzak.

b) identifikatu egingo dituzte eta, ahal den neurrian, kendu edo aldatu egingo dituzte natura-ondare eta biodibertsitatea kontserbatzeko kaltegarriak diren pizgarriak.

c) neurri fiskalak erabiltzea sustatuko dute bai pizgarriak eman dakizkien natura kontserbatzeko ekimen pribatuei eta bai pizgarriak ken dakizkien biodibertsitatearen kontserbazioan eta natura-ondarearen erabilera jasangarrian eragin negatiboa duten ekimenei.

d) natura-ondare eta biodibertsitatea babesteko beharraren gaineko heziketa eta informazio orokorra sustatuko dituzte, heziketa-programen bidez, lurraldea erabiltzen dutenengan arreta berezia jarritz.

e) bitartekoak jarriko dituzte natura-ondare eta biodibertsitatea zein kontserbazio-egoeratan dagoen jakiteko eta hura aldatzen duten kausak ezagutu ahal izateko, eta, horrela, hartzea komeni den neurriak diseinatzeko.

f) politika sektorialetan txertatuko dituzte honako xede hauetarako behar diren helburu eta aurreikuspenak: natura-ondarea kontserbatu eta balioetsi, biodibertsitatea eta geodibertsitatea babestu, natura-baliabideak kontserbatu eta era jasangarrian erabili, eta ekosistemen osotasuna iraunarazi eta, hala badagokio, leheneratu.

#### **6. artikulua.** *Itsasoko biodibertsitatearen gainean Estatuko Administrazio Orokorrek dauzkan eskumenak.*

Estatuko Administrazio Orokorri dagokio lege honetan aipatzen diren funtzio administratiboak Ingurumen Ministerioaren bitartez betetzea, eta errespetatu egin behar du itsasbazterreko autonomia-erkidegoetako autonomia-estatutuetan xedatutakoa, kasu hauetan:

a) Gune, habitat edo eremu kritikoak izan eta subiranotasun edo jurisdikzio nazionalako itsas eremuetan daudenean, betiere 36.1 artikuluko baldintzak betetzen ez badira.

b) Xedapen horiek eragina dutenean aurreko letran aipatzen diren guneetan dauden habitatetako espezieengan edo oso migratzaileak diren itsasoko espezieengan.

c) Nazioarteko zuzenbidearen arabera Espainiak kudeatu behar dituzten nazioarteko

zuzenbidearen mendeko itsasarteetan edo itsas zabalean dauden gunek.

**7. artikulua.** *Lankidetzeta-mekanismoak.*

1. Administrazio publikoek lankidetzan jardun eta lagundu egingo dute natura-ondarea eta biodibertsitatea kontserbatzeko gaian, eta informazioa emango diote elkarri lege honen helburuak betetzen direla bermatzeko.

2. Natura Ondare eta Biodibertsitaterako Estatuko Batzordea sortzen da, estatuaren eta autonomia-erkidegoen arteko aholku- eta lankidetzeta-organo izateko. Batzordearen osaera eta eginkizunak erregelamendu bidez zehaztuko dira. Natura Ondare eta Biodibertsitaterako Estatuko Batzordearen txosten edo proposamenak Ingurumenaren Konferentzia Sektorialaren esku jarriko dira, haietaz ardura dadin edo onar ditzan.

**8. artikulua.** *Natura Ondare eta Biodibertsitaterako Estatuko Kontseilua.*

Natura Ondare eta Biodibertsitaterako Estatuko Kontseilua sortzen da, natura-ondare eta biodibertsitatearen kontserbazioaren eta erabilera jasangarriaren esparruan parte-hartze publikoaz arduratzeko organoa izateko. Txostenak egingo ditu, besteak beste, natura-ondare eta biodibertsitatearen inguruko estatu mailako arau eta planen gainean. Kontseiluko kide izango dira, hitzarekin baina botorik gabe, autonomia-erkidegoak eta toki-erakunde ordezkaritza bat, toki-erakunde gehien ordezkatzen dituen estatu mailako elkartearen bidez.

Erregelamendu bidez zehaztuko dira kontseiluaren osaera eta eginkizunak, autonomia-erkidegoei kontsulta egin ondoren, eta bermatu egingo da, beti, parte hartuko dutela pertsona gehien ordezkatzen dituzten erakunde profesional, zientifiko, enpresarial, sindikal eta ekologistek.

I. TITULUA

**Natura-ondarea eta biodibertsitatea ezagutu eta planifikatzeko bitartekoak**

I. KAPITULUA

**Natura Ondare eta Biodibertsitatearen Espainiako Inbentarioa**

**9. artikulua.** *Natura Ondare eta Biodibertsitatearen Espainiako Inbentarioaren helburuak eta edukia.*

1. Natura Ondare eta Biodibertsitatearen Espainiako Inbentario bat egin eta eguneratuta edukiko du Ingurumen Ministerioak, autonomia-erkidegoek eta instituzio eta erakunde zientifikoek lagunduta; natura-ondarea osatzen duten lehorreko eta itsasoko elementu guztien banaketa, ugaritasuna, kontserbazio-egoera, erabilera eta beharrezkotzat jotako bestelako edozein informazio bilduko da inbentario horretan, eta arreta berezia eskainiko zaie berriazko kontserbazio-neurriak behar dituztenei edo Batasunaren intereseko deklaratu direnei.

2. Erregelamendu bidez zehaztuko dira Natura Ondare eta Biodibertsitatearen Espainiako Inbentarioaren edukia eta egitura, autonomia-erkidegoei kontsulta egin ondoren, eta honako hauen inguruko informazioa jasoko da inbentarioan, gutxienez:

1. Desagertzeko Arriskuan dauden Habitaten Espainiako Katalogoa.

2. Babes Bereziko Basaespezieen Zerrenda, Basaespezie Mehatxatuen Espainiako Katalogoa barne.

3. Espezie exotiko inbaditzaileen Espainiako katalogoa.

4. Naturagune Babestuen, Natura 2000 Sarearen eta nazioarteko bitartekoek babestutako eremuen Espainiako Inbentarioa.

5. Espainiako Basoen Inbentarioa eta Estatistika.

6. Basaespezieen Material Genetikoko Bankuen Espainiako Inbentarioa. 7. Ehiza eta Arrantzaren Espainiako Inbentarioa.

8. Parke Zoologikoen Espainiako Inbentarioa.

9. Natura-ondare eta biodibertsitatearen inguruko Jakintza Tradizionalen Espainiako Inbentarioa.

10. Interes geologikoko lekuen inbentario adierazgarri bat, gutxienez VIII. eranskinean jasotako unitate eta testuinguru geologikoak biltzen dituena.

11. Itsasoko habitat eta espezieen Espainiako inbentario bat.

3. Era berean, hezeguneen Espainiako inbentario bat ere egongo da Natura Ondare eta Biodibertsitatearen Espainiako Inbentarioan, hezeguneek zer bilakaera duten jakiteko eta, hala badagokio, Uren Legeko demarkazioen hidrologia-planetan zer babes-neurri jaso behar diren adierazteko.

#### **10. artikulua.** *Adierazleen Sistema.*

Adierazleen Sistema bat ezarriko da Natura Ondare eta Biodibertsitatearen Espainiako Inbentarioan, emaitzak modu sintetikoan adierazteko. Horrela, gizarte osoari helarazi ahal izango zaizkio emaitza horiek, erabakiak hartzeko prozesuetan txertatu ahal izango dira, eta nazioaz gaindiko mailan sartu. Autonomia-erkidegoen partaidetzarekin landuko dira adierazleak.

Ingurumen Ministerioaren Estatistika Eragiketen Inbentarioan eta Estatistika Plan Nazionalan sartuko dira adierazlerik esanguratsuenak.

#### **11. artikulua.** *Natura Ondare eta Biodibertsitatearen egoeraren gaineko txostena.*

Ingurumen Ministerioak txosten bat egingo du urtero autonomia-erkidegoekin, Natura Ondare eta Biodibertsitatearen Espainiako Inbentarioko eta Adierazleen Sistemako datuetatik abiatuta; txostenean, natura-ondare eta biodibertsitatea zein egoeratan dagoen eta zer bilakaera izan duen jasoko da, eta kontserbazio-egoera onuragarrian iraunarazteko zein ekimen egin diren zehaztu. Hartutako politika nagusiekin lortutako emaitzen ebaluazio bat edukiko du txosten horrek. Txostena Natura Ondare eta Biodibertsitatearako Estatuko Kontseiluari, Natura Ondare eta Biodibertsitatearako Estatuko Batzordeari eta Ingurumenaren Konferentzia Sektorialari aurkeztuko zaie, jendaurrean jarri aurretik.

## II. KAPITULUA

### **Natura Ondare eta Biodibertsitatearen Estatuko Plan Estrategikoa**

#### **12. artikulua.** *Natura Ondare eta Biodibertsitatearen Estatuko Plan Estrategikoaren helburua eta edukia.*

1. Natura Ondare eta Biodibertsitatearen Estatuko Plan Estrategikoaren helburua hau da: helburu, ekintza eta irizpideak ezarri eta finkatzea, ondarearen, lehorreko eta itsasoko natura-baliabideen, biodibertsitatearen eta geodibertsitatearen kontserbazioa, erabilera jasangarria, eta, hala dagokionean, leheneratzea sustatzeko.

2. Estatuko Plan Estrategikoak honako elementu hauek izango ditu, gutxienez:

a) natura-ondare eta biodibertsitatearen eta geodibertsitatearen egoera eta bilakaeraren diagnostiko bat.

b) plana indarrean dagoen aldiari lortu behar diren helburu kuantitatibo eta kualitatiboak.

c) Estatuko Administrazio Orokorrek garatuko dituen ekintzak eta ekintza horiek egiteko behar diren aurrekontuen kalkulak.

#### **13. artikulua.** *Natura Ondare eta Biodibertsitatearen Estatuko Plan Estrategikoa landu eta onestea.*

1. Natura Ondare eta Biodibertsitatearen Estatuko Plan Estrategikoa landuko du Ingurumen Ministerioak, gainerako ministerioekin elkarlanean; itsas eremuei eta arrantza-baliabideei eragiten dien alorrean, bereziki Nekazaritza, Arrantza eta Elikadura Ministerioarekin, eta, merkataritza-itsasketari dagokionean, bereziki Sustapen Ministerioarekin.

Plan hori lantzen, autonomia-erkidegoek ere hartuko dute parte Natura Ondare eta Biodibertsitatearako Estatuko Batzordearen bidez, eta Batzordeak Ingurumenaren Konferentzia Nazionalari aurkeztuko dio, hark onar dezan.



2. Plana lantzeko prozeduran, ezinbestean, tramite hauek sartuko dira: informazioa jendaurrean jartzea eta kontsulta egitea bai zientzialarien komunitateari, bai ekonomia- eta gizarte-eragileei, bai dagokien administrazio publikoei eta bai lege honen helburuak lortu nahi dituzten irabazi-asmorik gabeko erakundeei.

3. Nolanahi ere, ingurumen-ebaluazioa bete beharko du planak: zenbait plan eta programak ingurumenean dituzten ondorioen ebaluazioaren gaineko 2006ko apirilaren 28ko 9/2006 Legean ezarritakoa.

4. Errege-dekretu bidez onetsiko da plana, gehienez ere bi urteko epean, Natura Ondare eta Biodibertsitaterako Estatuko Kontseiluak aldeztatik txostena egin ondoren, eta berrikusi egin beharko da, sei urterik behin bederen.

#### **14. artikulua.** *Plangintza sektoriala.*

1. Ingurumen Ministerioak eta ukitutako ministerioek elkarrekin landuko dituzte Natura Ondare eta Biodibertsitatearen Estatuko Plan Estrategikoa garatzen duten plan sektorialak, bai lehorreko inguruneak eta bai itsas inguruneak, Plan Estrategikoko helburu eta ekintzak Estatuko Administrazio Orokorren eskumenekoak diren politika sektorialetan txertatzeko.

2. Plan sektorialak lantzean, kontsulta egingo zaie autonomia-erkidegoei eta tartean dauden sektoreei. Ingurumen-ebaluazioa bete beharko dute planek: zenbait plan eta programak ingurumenean dituzten ondorioen ebaluazioaren gaineko 2006ko apirilaren 28ko 9/2006 Legean ezarritakoa.

3. Errege-dekretu bidez onetsiko ditu Ministroen Kontseiluak plan sektorial horiek, 2012a baino lehen, Ingurumen Ministerioak eta tartean dauden ministerioek batera proposatuta.

### III. KAPITULUA

#### **Natura-baliabideak antolatzeke planak**

#### **15. artikulua.** *Babestu beharreko natura-baliabide eta naturaguneen plangintza.*

1. Plangintza batean sartuko dira babestu beharreko natura-baliabideak eta, batik bat, naturaguneak, haien kudeaketa lege honen 2. artikuluko oinarrizko printzipioetara egokitzeke.

2. Plangintza horren bitartekoek lege honetan ezarritako helburu eta edukiak izango dituzte, duten izendapena dutela.

#### **16. artikulua.** *Natura-baliabideak antolatzeke planak.*

1. Natura-baliabideak antolatzeke planak bitarteko espezifikak dira gune jakin bateko ondarea eta natura-baliabideak osatzen dituzten sistemak mugatzeko, tipifikatzeko, sarean txertatzeko eta gainerako lurraldearekin duten lotura finkatzeko; horietaz gain, beste bitarteko batzuk ezar ditzake autonomia-erkidegoko legeriak.

2. Natura-baliabideak antolatzeke gidalerro batzuk landuko ditu Ingurumen Ministerioak autonomia-erkidegoen partaidetzarekin, Natura Ondare eta Biodibertsitatearen Estatuko Plan Estrategikoaren barruan, eta, izatekotan ere, gidalerro horietara egokituko dira autonomia-erkidegoek onesten dituzten natura-baliabideak antolatzeke planak. Errege-dekretu bidez onetsiko dira gidalerro horiek, gehienez ere bi urteko epean, Natura Ondare eta Biodibertsitaterako Estatuko Kontseiluak aldeztatik txostena egin ondoren.

3. Natura-baliabideen kudeaketa eta erabilera arautuko dituzten oinarrizko irizpide eta arau orokor batzuk ezarri eta finkatzea da gidalerro horien xedea, lege honetan xedatutakoaren arabera.

#### **17. artikulua.** *Helburuak.*

Natura-baliabideak antolatzeke planen helburuak honako hauek dira, autonomia-erkidegoko araudian xedatutakoa baztertu gabe:

a) Lurralde bateko natura-ondarearen gune eta elementu esanguratsuak identifikatu eta georreferentziatzea –eta, batik bat, Natura Ondare eta Biodibertsitatearen Inbentarioan daudenak–, dauzkaten balio bereizgarriak zehaztea, eta gainerako lurraldean duten integrazioa eta lotura finkatzea.

b) Zehaztu eta seinalatzea zein kontserbazio-egoeratan dauden lurralde-eremu jakin bateko natura-ondareko osagaiak, biodibertsitatea eta geodibertsitatea eta prozesu ekologiko eta geologikoak.

c) Identifikatzea zenbateraino eta zelako intentsitatearekin erabil daitezkeen natura-ondarea, biodibertsitatea eta geodibertsitatea eta zehaztea kudeatzeko zer aukera dauden eta zer muga ezarri behar diren kontserbazio-egoera ikusita.

d) Irizpideak ematea, politika sektorialak orientatzeko eta ekonomia- nahiz gizarte-jarduera publiko zein pribatuak antolatzeko, bateragarriak izan daitezen lege honetan jasotako eskakizunekin.

e) Dagozkion babes-araubideak zehaztea, plana aplikatuko den lurralde-eremuan dauden gune, ekosistema eta natura-baliabideentzat, ekosistemak, haien funtzionaltasuna eta lotura iraunarazi, hobetu edo leheneratzeko.

f) Aurreikustea zein natura-baliabidek eta biodibertsitateko nahiz geodibertsitateko zein osagaik behar dituzten kontserbatu eta leheneratzeko neurriak, eta haiek aplikatzea sustatzea.

g) Natura-balio handiko gunez osatutako sare ekologikoak ezarri eta finkatzen laguntzea, flora eta faunako espezieen populazioak mugitu eta barreiatu ahal izateko eta ekosistemen funtzionaltasuna bermatuko duten fluxuak iraunarazteko.

#### **18. artikulua. Norainokoa.**

1. Natura-baliabideak antolatzeko planen ondorioak norainokoa izango diren beren onspen-arauetan ezarriko da.

2. Kontraesankorrak baldin badira natura-baliabideak antolatzeko planak eta lurraldea, hirigintza, natura-baliabideak eta, oro har, ingurune fisikoa antolatzeko bitartekoak, planetara egokitu beharko dira bitarteko horiek. Egokitzapen hori egiten ez den bitartean, natura-baliabideak antolatzeko planetako erabakiak aplikatu egingo dira, nolahi ere, eta bitartekoen gaintetik egongo dira.

3. Halaber, natura-baliabideak antolatzeko planak erabakigarriak izango dira beste edozein ekintza, plan edo programa sektorialen aurrean, autonomia-erkidegoko legeriak xedatzen duena gorabehera. Ekintza, plan edo programa sektorialek natura-baliabideak antolatzeko planak ezeztatze edo ez betetze, lehen mailako interes publikoko ezinbesteko arrazoiak egon beharko dute, eta, kasu horretan, erabakia arrazoitu egin beharko da, eta jakitera eman.

#### **19. artikulua. Gutxieneko edukia.**

Natura-baliabideak antolatzeko planek, gutxienez, eduki hau izango dute:

a) Antolatu behar den lurralde-eremuaren mugaketa eta haren ezaugarri fisiko, geologiko eta biologikoen deskripzio eta interpretazioa.

b) Lurralde-eremu horretako natura-ondare, biodibertsitate, ekosistema eta paisaiako elementuen kontserbazio-egoeraren inbentarioa eta zehaztapena. Egoera horren diagnostikoa egin eta etorkizunean izango duen bilakaera aurreikusi beharko da.

c) Finkatutako irizpideak, natura-baliabideak kontserbatu, babestu, leheneratu eta era jasangarrian erabiltzeko eta, bereziki, plana aplikatzen den lurralde-eremuko biodibertsitate eta geodibertsitatearen elementuentzat.

d) Finkatutako muga orokor eta espezifikoak, natura-ondare eta biodibertsitateko osagaien kontserbazioaren arabera ezarri behar diren erabilera eta jardueren inguruan.

e) Naturaguneen babes-erregimenen baten aplikazioa, halakorik badago.

f) Xedatutako erreferentziazko irizpide orientagarriak, plana aplikatzen den lurralde-eremuan ondorioak dituzten politika sektorialak formulatu eta betearazteko, bateragarriak izan daitezen natura-ondarea eta biodibertsitatea kontserbatzeko helburuekin.

g) Antolatzen den lurralde-eremuan lotura ekologikoa bermatzeko neurrien identifikazioa.

h) Plana aplikatzeko aurreikusitako kostu eta finantza-bitartekoen inguruko memoria ekonomikoa.

**20. artikulua.** *Igarobide ekologikoak eta mendi-eremuak.*

Lurraldearen lotura ekologikoa lortzeko mekanismoak aurreikusiko dituzte administrazio publikoek beren ingurumen-plangintzan edo natura-baliabideak antolatzeko planetan, eta igarobideak ezarri eta berrezarriko dituzte, bereziki Natura 2000 Sareko gune babestuen eta biodibertsitatearentzat aparteko garrantzia duten naturaguneen artean. Horretarako, lehentasunezko papera emango zaie ibaibideei, abelbideei, mendi-eremuei eta lurraldeko beste elementu lineal eta jarraitu batzuei, edo loturagune gisa jokatzan dutenei, naturagune babestu izan nahiz ez.

Mendi-eremuen kontserbazio-gidalerro batzuk sustatuko dituzte administrazio publikoek, eta, gidalerro horietan, aintzat hartuko dira, gutxienez, eremuok paisaia, ur eta ingurumen aldetik dauzkaten balioak.

**21. artikulua.** *Planak landu eta onestea.*

1. Autonomia-erkidegoei dagokie natura-baliabideak antolatzeko planak landu eta onestea, beren eskumen-esparruetan.

2. Nahitaez egin beharko dira tramite hauek planak lantzeko prozeduran: interesdunei entzunaldia eskaini, informazioa jendaurrean jarri, zein gizarte- eta erakunde-interes ukitzen diren aztertu, eta kontsulta egin lege honen helburuak lortu nahi dituzten irabazi-asmorik gabeko erakundeei.

**22. artikulua.** *Kautelazko babesak.*

1. Ezingo da egin errealitate fisiko eta biologikoa nabarmen eraldatzen duen ekintzarik, natura-baliabideak antolatzeko plan bat tramitatzen ari den bitartean, edo naturagune babestu bat mugatuta egon eta oraindik dagokion plangintza arautzailerik ez daukanean, ekintza horrekin ezinezko bihur badaiteke edo nabarmen zaildu badaiteke plan horretako helburuak betetzea.

2. Ezingo zaie aitortu interesdunei errealitate fisiko, geologiko eta biologikoa eraldatzen duten ekintzak egiteko ahalmena, behin natura-baliabideak antolatzeko plan bat onesteko prozedura hasi eta plana onetsi arte, betiere jardunean dabilen administrazioak aldeko txostenik egiten ez badu.

3. Jardunean dabilen administrazioiko ingurumen-organoak bideratu eta eman beharko du aurreko zatian aipatzen den txostena, gehienez ere laurogeita hamar eguneko epean.

**23. artikulua.** *Prebentziozko babesak duten naturaguneak.*

Prebentziozko babes-araubide bat ezarriko da, baldin eta autonomia-erkidegoak emandako informaziotik ondorioztatzen bada ongi kontserbatutako eremu bat dagoela egoera hori alda dezakeen faktore asaldatzaile batek mehatxatuta. Honetan oinarrituko da babes-araubide hori:

a) lursailen titularrek informazioa eta sarbidea eman beharko diete agintaritzaren agenteei eta autonomia-erkidegoen ordezkariari, faktore asaldatzailerik dagoen egiaztatzeko.

b) eremu batean faktore asaldatzaileak daudela eta eremuaren egoera arriskuan jartzen dutela egiaztatzen bada:

1. Berehala hasiko da lantzen eremuaren Natura Baliabideak Antolatzeko Plana, dagoeneko hasita ez badago.

2. Lege honen aurreko artikuluan ezarritako neurriak hartzeaz gain, babes-araubideren bat aplikatuko da, hala dagokionean; aldez aurretik, interesdunei entzunaldia eskaini, informazioa jendaurrean jarri, eta ukitutako administrazioei kontsulta egiteko tramiteak beteko dira.

## II. TITULUA

### **Natura-ondareko habitat eta gunek katalogatu, kontserbatu eta leheneratzea**

#### I. KAPITULUA

##### **Desagertzeko arriskuan dauden habitaten katalogazioa**

###### **24. artikulua.** *Desagertzeko Arriskuan dauden Habitaten Espainiako Katalogoa.*

1. Desagertzeko Arriskuan dauden Habitaten Espainiako Katalogoa sortzen da, Ingurumen Ministerioaren esku, estatu mailako katalogo administratiboa izateko; erregelamendu bidez arautuko da, eta desagertzeko arriskuan dauden habitatak sartuko dira katalogo horretan. Habitat bat katalogo horretan sartzeko, berariazko babes- eta kontserbazio-neurriek beharrezkoak izan behar dute habitat horiek kontserbatzeko edo, hala dagokionean, leheneratzeko, habitatok gutxienez honako egoera hauetakoren batean daudelako:

- 1 Banaketa-eremua oso murrizta edukitzea eta txikiagotzen joatea.
- 2 Deuseztatuta egotea berezko banaketa-eremuaren zatirik handiengan.
- 3 Osaera, egitura edo funtzio ekologikoak gogor narriatu izana berezko banaketa-eremuaren zatirik handiengan.
- 4 Epe labur edo ertainean eraldaketa atzerazina gertatzeko arrisku handian egotea berezko banaketa-eremuaren zati adierazgarri batean.

2. Habitatak Desagertzeko Arriskuan dauden Habitaten Espainiako Katalogoan sartzeko Ingurumen Ministerioa arduratuko da, dagoen informazio tekniko edo zientifikoak hori egitea aholkatzen duenean; Natura Ondare eta Biodibertsitaterako Estatuko Batzordeak egingo du proposamena, eta autonomia-erkidegoek edo ministerioak berak abiaraziko dute ekimena aldez aurretik.

3. Edozein herritar edo erakundek eskatu ahal izango du habitat bat katalogoan sartzeko prozedura hasteko, eta, eskaerarekin batera, proposatutako neurriaren arrazoibide zientifiko bat aurkeztu beharko du.

###### **25. artikulua.** *Ondorioak.*

Habitat bat Desagertzeko Arriskuan dauden Habitaten Espainiako Katalogoan sartzeko ondorio hauek izango ditu:

- a) Azalera egoki bat sartuko da naturaguneen kudeaketa-bitarteko edo babes-figuraren batean; bitarteko edo figura hori berria edo lehendik dagoenen bat izan daiteke.
- b) Autonomia-erkidegoek behar diren neurriak zehaztu eta hartuko dituzte atzerakada geldiarazteko eta habitat horiek desagertzeko arriskua ezabatzeko, helburu horietara zuzendutako plangintza-bitartekoetan eta bestelako bitartekoetan.

###### **26. artikulua.** *Kontserbatu eta leheneratzerako estrategia eta planak.*

Desagertzeko arriskuan dauden habitatak Kontserbatu eta Leheneratzeko Estrategiak onetsiko ditu Ingurumenaren Konferentzia Sektorialak, Natura Ondare eta Biodibertsitaterako Estatuko Batzordeak proposatuta, eta Natura Ondare eta Biodibertsitaterako Estatuko Kontseiluak aldez aurretik txostena eginda.

Habitatak kontserbatu eta leheneratzeko onartutako kudeaketa-plan edo -bitartekoen esparru orientagarria eratuko dute estrategia horiek, eta, gutxienez, egoeraren eta mehatxu nagusien diagnostiko bat eta egin beharreko ekintzak jasoko dituzte.

## II. KAPITULUA

### Guneak babestea

#### **27. artikulua.** *Naturagune babestuen definizioa.*

1. Naturagune babestutzat joko dira, hartakotzat deklaratzan badira, gutxienez honako baldintza hauetako bat betetzen duten nazioaren lurraldeko guneak, ur kontinentalak eta subiranotasun edo jurisdikzio nazionalako itsas urak barne, eta ekonomia-eremu eskusiboa eta plataforma kontinentalak barne:

a) Naturako sistema edo elementu jakin batzuk edukitzea: adierazgarriak, apartekoak, hauskorak, mehatxatuak edo interes berezikoak ekologia, zientzia, paisaia, geologia edo hezkuntzaren aldetik.

b) Bereziki emanak egotea dibertsitate biologikoa, geodibertsitatea eta horiei lotutako natura- eta kultura-baliabideak babestu eta iraunaraztera.

2. Naturagune babestuen perimetroaren barruan, lehorreko esparruak soilik, lehorrekoak eta itsasokoak batera eta itsasokoak soilik egon daitezke.

#### **28. artikulua.** *Naturagune babestuak erregulatzeko arauen edukia.*

1. Naturagune babestuak erregulatzeko arauetan eta kudeaketa planifikatzeko mekanismoetan zehaztuko da zein bitarteko juridiko, finantzario eta material joko diren beharrezkotzat naturagune horiek deklaratzan lortu nahi diren helburuak modu eraginkorrean betetzeko.

2. Toki berean eremu babestuen figura desberdinak gainjartzen badira, koordinatu egin behar dira eremu horiek erregulatzeko arauak eta planifikatzeko mekanismoak, dokumentu integratu bakar batean bateratzeko, kategoria bakoitzaren arabera aplikatu daitezkeen araubideek osotasun koherente bat osa dezaten.

#### **29. artikulua.** *Naturagune babestuen sailkapena.*

Babestu beharreko ondasun eta balioen eta bete beharreko kudeaketa-helburuen arabera, gutxienez honako kategoria hauetakoren batean sailkatuko dira naturagune babestuak, izan lehorrekoak nahiz itsasokoak:

- a) Parkeak.
- b) Natura-erreserbak.
- c) Itsas eremu babestuak
- d) Naturako monumentuak.
- e) Paisaia babestuak.

#### **30. artikulua.** *Parkeak.*

1. Parkeak natura-eremuak dira; ekologia, estetika, hezkuntza eta zientziaren alorretako balio batzuk dauzkate, beren paisaien edertasunagatik, ekosistemen adierazgarritasunagatik edo flora, fauna nahiz dibertsitate geologikoaren apartekotasunagatik –formazio geomorfologikoak barne–, eta lehentasunezko arreta eskaini behar zaie balio horiei, kontserbatu ahal izateko.

2. Parke nazionaletan, legeria espezifikoa beteko da.

3. Parkeetan, mugatu egin ahal izango da natura-baliabideen ustiapena, eta debekatu egingo da, edozelan ere, parkea sortzeko arrazoi izan diren helburuekin bateragarriak ez diren ustiapenak.

4. Parkeetan, bisitariak sartzeko aukera emango da, parkeak babestu egingo direla bermatzeko behar dien mugekin.

5. Parkeak Erabili eta Kudeatzeko Gidaplanak landuko dira, eta autonomia-erkidegoko organo eskudunak onetsiko ditu. Hirigintzaren arloan eskumena duten administrazioek planen inguruko nahitaezko txostenak egingo dituzte, planak onetsi baino lehen.

Plan horietan, parkea erabili eta kudeatzeko arau orokorrak finkatuko dira; planak berrikusi egingo dira aldiaren behin.

6. Hirigintza-plangintzaren ginetik egongo dira gidaplanak. Gidaplanetako erabakiak eta indarrean dagoen hirigintza-araudia bateraezinak direnean, ofizioz berrikusiko dute araudia organo eskudunek.

### **31. artikulua.** *Natura-erreserbak.*

1. Natura-erreserbak naturaguneak dira, eta ekosistema, komunitate edo elementu biologikoak babesteko sortzen dira; balioespen berezia behar dute ekosistema, komunitate edo elementu horiek beren bakantasun, hauskortasun, garrantzi edo apartekotasunagatik.

2. Erreserbetan, mugatu egingo da baliabideen ustiaketa, salbu eta batera lor badaitezke babestu nahi diren balioak kontserbatzea eta ustiaketa bera. Oro har, debekatuta egongo da material biologiko edo geologikoa biltzea, salbu eta utzi egiten bada ikerketa-, kontserbazio- edo hezkuntza-arrazoiengatik; dagokion administrazio-baimena eskuratu beharko da aldez aurretik.

### **32. artikulua.** *Itsas Eremu Babestuak.*

1. Itsas inguruneke ekosistema, komunitate edo elementu biologiko edo geologikoak babesteko hautatzen diren naturaguneak dira Itsas Eremu Babestuak –marearteko eta mareapeko eremuak barne–, eta beren bakantasun, hauskortasun, garrantzi edo apartekotasunagatik babes berezia behar dutelako aukeratzen dira. Berariazko kategoria hori hartu ahal izango dute, edo lege honetan eremuak babesteko xedatutako beste edozein figuraren bidez babestu ahal izango dira; kasu horretan, beste figura horiei aplikatzen zaien araubide juridikoa izango dute, eta sartu egin ahal izango dira Itsas Eremu Babestuen Sarean ere.

2. Itsas Eremu Babestuak eta haien natura-balioak kontserbatzeko, kudeaketa-plan edo bitartekoak onetsiko dira, eta, plan edo bitarteko horien bidez, behar diren kontserbazio-neurriak eta natura-baliabideak ustiatzeko bidezkoak diren mugak ezarriko dira gutxienez, kasu bakoitzerako eta Itsas Eremu Babestuen Sarean sar daitezkeen eremu guztietarako.

3. Eremuak babesteko erabiltzen den kategoria edo figura edozein delarik ere, Estatuko Itsas Arrantzaren 2001eko martxoaren 26ko 3/2001 Legeko 18. artikuluan xedatutakoaren arabera ezarriko dira kanpoko uretan arrantza-baliabideak ustiatzeko mugak.

4. Sarean sartutako itsas eremuei aplikatzeko gutxieneko kudeaketa-irizpide komunak ezarriko ditu Konferentzia Sektorialak, itsasbazerreko autonomia-erkidegoek eta Estatuko Administrazio Orokorrak proposatuta.

### **33. artikulua.** *Naturako Monumentuak.*

1. Funtsean, apartekotasun, bakantasun edo edertasun nabarmeneko formazioak dituzten naturako gune edo elementuak dira Naturako Monumentuak, eta bereziki babestu behar dira.

2. Naturako Monumentutzat hartuko dira, orobat, zuhaitz aparteko eta monumentalak, geologia-formazioak, paleontologia eta mineralogiako aztarnategiak, estratotipoak eta geako gainerako elementuak, baldin eta interes berezikoak badira zientzia, kultura edo paisaiaren aldetik dauzkaten balioen apartekotasun edo garrantziagatik.

3. Monumentuetan, oro har, debekatuta egongo da baliabideak ustiatzea, salbu eta utzi egiten bada ikerketa- eta kontserbazio-arrazoiengatik; dagokion administrazio-baimena eskuratu beharko da aldez aurretik.

### **34. artikulua.** *Paisaia Babestuak.*

1. Bereziki babestu behar diren lurralde-zatiak dira Paisaia Babestuak; administrazio eskudunek erabakiko dute zeintzuk diren horrelako paisaiak, aplikatzekoa den plangintzaren bitartez, dituzten natura-, estetika- eta kultura-balioengatik, eta Europako Kontseiluaren Paisaiaren Hitzarmenaren arabera.

2. Paisaia Babestuak kudeatzeko helburu nagusiak honako hauek dira:

a) Paisaia horiek aparteko egiten dituzten balioak kontserbatzea.

b) Eremu jakin batean natura eta kulturaren arteko elkarreagin harmoniatsua zaintzea.



3. Paisaia Babestuetan, ahal dela, eutsi egingo zaie haien balioak eta natura-baliabideak zaintzen laguntzen duten aztura tradizionalai.

**35. artikulua.** *Natura-parke eta natura-erreserbak deklaratzeko baldintzak.*

1. Eremu bat natura-parke edo natura-erreserba deklaratzeko eremu horren Natura Baliabideak Antolatzeke Plana alde aurretik landu eta onestea eskatzen du.

2. Salbuespen gisa deklaratu ahal izango dira parkeak eta erreserbak Natura Baliabideak Antolatzeke Plana alde aurretik onetsi baino lehen, deklarazio horiek justifikatzeko arrazoiak daudenean; deklarazioen arauan berariaz jasoko dira arrazoi horiek. Kasu horretan, urtebeteko epean tramitatu beharko da dagokion antolamendu-plana, parkea edo erreserba deklaratzeko denetik hasita.

**36. artikulua.** *Naturagune babestuak deklaratu eta kudeatzea.*

1. Autonomia-erkidegoei dagokie beren lurralde-eremuan naturagune babestuak kudeatzeko formula deklaratu eta erabakitzea; itsas uretan, itsasoko ekosistemak eta babestu behar den lehorreko naturaguneak jarraitutasun ekologikoa eduki behar dute kasu bakoitzean, dagoen ebidentzia zientifiko onenak ziurtatuta.

2. Naturagune babestu baten eremua bi autonomia-erkidego edo gehiagori dagokienean, elkarrekin adostuko dituzte behar diren lankidetzak-formulak.

**37. artikulua.** *Babeserako inguruak.*

Naturagune babestuen deklarazioetan, babeserako inguruak ezarri ahal izango dira, ekologian eta paisaian kanpoko inpaktuak saihestearren. Hala dagokionean, inguruak sortzeko arauan bertan ezarriko dira beharrezkoak diren mugak.

**38. artikulua.** *Eragin Sozioekonomikoko Eremuak.*

Eragin Sozioekonomikoko Eremuak ezarri ahal izango dira naturagune babestuak arautzeko xedapenetan, naturagune horiek iraunarazten laguntzeko eta eremua kontserbatzeko helburuekin bateragarria den eran toki horretako herrien garapen sozioekonomikoaren alde egiteko; zehaztu egingo dira araubide ekonomikoa eta muga motei dagozkien konpentsazioak. Eremu horietan, gutxienez, honako hauek sartuko dira: naturagunea dagoen lekuko udal-mugarteak eta naturagunearen babeserako inguruak.

**39. artikulua.** *Naturaguneen onura publikoa eta lehentasunez erosteko eta atzera eskuratzeko eskubideak.*

1. Eremu bat naturagune babestu deklaratzeko berekin dakar onura publikokotzat jotzea ukitutako ondasun eta eskubideen jabetza kentzeko ondorioetarako, eta autonomia-erkidegoak ahalmena edukitzea lehentasunez erosi eta atzera eskuratzeko eskubideak erabiltzeko; kostubidezko egintza edo negozio juridikoetan izango ditu eskubide horiek autonomia-erkidegoak, bizien artean egiten direnean eta naturagunearen barruan dauden ondasun higiezinei dagozkien eskubide errealak sortu, besterendu, aldatu edo iraungitzen direnean.

2. Lehentasunez erosteko eta atzera eskuratzeko eskubideak errazago erabiltzeko, modu frogagarrian jakinaraziko dio besterentzaileak autonomia-erkidegoari zein prezioetan eta funtsezko zein ezaugarriekin besterendu nahi den ondasuna, eta, hala dagokionean, besterentze hori jaso den eskritura publikoaren kopia fede-emailea aurkeztuko du. Jakinarazpen hori egiten den unetik, lehentasunez erosteko eskubidea erabili ahal izango du administrazioak, autonomia-erkidegoetako legeriak ezartzen duen epean; hitzartutako prezioa, gehienez ere, ekonomia-ekitaldi bateko epean ordaintzeko betebeharra hartuko du bere gain.

Lehentasunez erosteko eskubidearen baldintza berberetan, atzera eskuratzeko eskubidea erabili ahal izango du autonomia-erkidegoak haren legerian ezarrita dagoen epean, jakinarazpena egiten den unetik edo modu frogagarrian besterentzearen berri daukanetik.

Jabetza-erregistratzaileek eta merkataritzako erregistratzaileek ez dute inskribatuko aipatu ondasunen gaineko edozein eskubide erreal besterentzeko dokumenturik, zenbaki honetan adierazitako baldintzak bete direla frogatzen ez bada.

Zenbaki honetan aipatzen diren epeak behar bezain luzeak izango dira, lehentasunez erosteko eta atzera eskuratzeko eskubideak erabili ahal izateko.

#### **40. artikulua.** *Mugaz gaindiko naturagune babestuak.*

Administrazio eskudunek proposatuta, mugaz gaindiko naturagune babestuak eratu ahal izango dira, bata bestearen alboan dauden lehorreko zein itsasoko eremuek osatutakoak, Espainia eta ondoko beste estatu batek babestuta; horretarako, nazioarteko akordioak sinatuko dira, eremu horien babes behar bezala koordinatuko dela bermatzeko.

### III. KAPITULUA

#### **Natura 2000 Sareko naturagune babestuak**

#### **41. artikulua.** *Natura 2000 Sarea.*

1. Natura 2000 Europako Ekologia Sarea sare koherente bat da, eta honako hauek osatzen dute: Batasunaren garrantzizko lekuak –Kontserbazio Bereziko Eremu bilakatu arte–, kontserbazio bereziko eremu horiek eta hegaztientzako babes bereziko eremuek. Horiek kudeatzeko, kontuan izango dira betekizun ekonomiko, sozial eta kulturalak eta eskualdeko eta tokiko berezitasunak.

2. Gune babestutzat joko izango dira Batasunaren garrantzizko lekuak, kontserbazio bereziko eremuak eta hegaztientzako babes bereziko eremuak; Natura 2000 Sareko gune babestu izendatuko dira, eta autonomia-erkidegoek ezarriko dituzte haien hedadurak eta mugak, beren legerietan eta guneei dagozkien plangintza-bitartekoetan.

3. Natura 2000 Sarearen kontserbazio-gidalerro batzuk landuko ditu Ingurumen Ministerioak, autonomia-erkidegoen partaidetzarekin, Natura Ondare eta Biodibertsitatearen Estatuko Plan Estrategikoaren esparruan. Eremu horiek planifikatu eta kudeatzeko esparru orientagarria eratuko dute gidalerroek, eta Ingurumenaren Konferentzia Sektorialaren akordio bidez onetsiko dira.

#### **42. artikulua.** *Batasunaren garrantzizko lekuak eta kontserbazio bereziko eremuak.*

1. Batasunaren garrantzizko lekuak horrelakotzat onetsitako guneak dira, eta nazioaren lurralde osoan edo subiranotasun edo jurisdikzio nazionalako itsas uretan egon daitezke, ekonomia-eremu eskusiboa eta plataforma kontinentala barne. Era nabarmenean laguntzen dute habitat naturalei eta Batasunaren intereseko espezieen habitatei kontserbazio-egoera onuragarrian iraunarazten eta, hala dagokionean, haiek leheneratzen, beren berezko banaketa-eremuan; I. eta II. eranskinetan daude jasota, hurrenez hurren, habitat eta espezie horiek.

2. Zerrenda bat landuko dute autonomia-erkidegoek, beren lurraldeetan kontserbazio bereziko leku deklaratu daitezkeen eremuekin, III. eranskinean ezarritako irizpideen eta informazio zientifiko egokiaren arabera. Proposamenean, leku horietan Batasunaren intereseko zein habitat mota eta espezie autoktono dauden adieraziko da, eta informazioa jendaurrean jartzeko tramitea beteko da.

Europako Batzordeari proposatuko dio zerrenda Ingurumen Ministerioak, Batasunaren garrantzizko leku gisa onets daitezen.

Europako Batzordeari helarazteko zerrenda Ingurumen Ministeriora bidaltzen den unetik, prebentziosko babes-araubide bat edukiko dute Batasunaren garrantzizko leku izateko proposatutako eremuek, formalki BGL deklaratu diren unera arte eremu horietako habitat eta espezieen kontserbazio-egoerak ez duela okerrera egingo bermatzeko. Eremu batzuk Batasunaren garrantzizko leku izateko proposamena bidaltzen denean, administrazio eskudunen aldizkari ofizialean argitaratuko dira haien muga geografikoak, BGL deklaratzeko zer habitat eta espezie dituen eremu bakoitzak, lehentasunezko zein habitat eta espezie dauden eremu horietan eta prebentziosko zein araubide aplikatuko zaien.

3. Europako Batzordeak Batasunaren garrantzizko lekuen zerrendak onetsi edo handitzen dituenean, dagozkien autonomia-erkidegoek Kontserbazio Bereziko Eremu deklaratuak dituzte lehenbailehen leku horiek, eta, gehienez ere, sei urteko epean; horrekin batera, eremua kudeatzeko plan edo bitartekoa onetsiko dute. Eremu horiek deklaratzeko lehentasuna ezartzeko, honako hauek hartuko dira aintzat: zer garrantzia duten lekuek, kontserbazio-egoera onuragarrian iraunarazi zaien, Batasunaren intereseko habitat natural mota bat edo Batasunaren intereseko espezie bat leheneratu den eta narriatzeko nahiz deuseztatzeko zer mehatxu dituzten eremu horiek, betiere Natura 2000 Sarearen koherentziari eusteko helburuarekin.

**43. artikulua.** *Hegaztientzako Babes Bereziko Eremuak.*

Lege honen IV. eranskinean jasotako hegazti-espezieak kontserbatzeko eta Espainian aldizka agertzen diren hegazti migratzaileak ibiltzeko egokienak diren gunek –bai kopuruz eta bai azaleraz– hegaztientzako Babes Bereziko Eremu deklaratuak dira nazioaren lurraldean eta subiranotasun edo jurisdikzio nazionaleraino itsas uretan, ekonomia-eremu eskusiboa eta plataforma kontinentala barne. Neurriak ezarriko dira eremu horietan, hegazti horiek bizirautea eta ugaltzea bermatzeko: asaldurak saihesteko neurriak eta habitatari dagozkion kontserbazio-neurri bereziak. Espainiako lurraldera iritsi ohi diren espezie migratzaileen kasuan, kontuan hartu beharko da ugaltzea, elikatu, lumaberri, negua eman edo atseden hartzeko erabiltzen dituzten eremuak babesteko zer-nolako premiak dauden, eta hezeguneei garrantzi berezia eman behar zaie –batez ere, nazioarteko garrantzizko hezeguneei–.

**44. artikulua.** *Kontserbazio Bereziko Eremuak eta hegaztientzako Babes Bereziko Eremuak deklaratzeko.*

Autonomia-erkidegoek deklaratuak dituzte Kontserbazio Bereziko Eremuak eta hegaztientzako Babes Bereziko Eremuak beren lurralde-eremuan, informazioa jendaurrean jartzeko prozedura bete ondoren. Deklarazio horiek dagozkien aldizkari ofizialetan argitaratuak dira, eta informazioa emango da: eremuen muga geografikoak eta eremu horietako bakoitzak BGL deklaratzeko zer habitat eta espezie dituen. Deklarazio horien berri Ingurumen Ministerioari emango zaio, hark Europako Batzordeari jakinaraz diezaion, Herri Administrazioen Araubide Juridikoaren eta Administrazio Prozedura Erkidearen 1992ko azaroaren 26ko 30/1992 Legearen 10. artikuluan xedatuta dagoen bezala.

**45. artikulua.** *Natura 2000 Sarea kontserbatzeko neurriak.*

1. Kontserbazio Bereziko Eremuei eta hegaztientzako Babes Bereziko Eremuei dagokienez, autonomia-erkidegoek finkatuko dituzte behar diren kontserbazio-neurriak. Neurri horiek erantzungo diete eremu horietako habitat naturalen eta espezieen beharrezko ekologikoei, honako hauek barne direla:

a) Kudeaketarako plan edo bitarteko egokiak, toki bakoitzerako espezifikokoak edo beste garapen-plan batzuetan txertatuak, gutxienez tokia kontserbatzeko helburuak eta eremuak kontserbazio-egoera onuragarrian iraunarazteko neurri egokiak barnean hartzen dituztenak. Plan horiek bereziki hartu beharko dute aintzat zer behar dauzkaten azalera osoa zein beren lurraldearen zati handi bat eremu horietan daukaten udalerriek.

b) Erregelamendu-, administrazio- edota kontratu-neurri aproposak.

2. Era berean, administrazio eskudunek neurri egokiak hartuko dituzte –bereziki, kudeaketa-plan edo -bitarteko horietan–, honako hauek saihesteko: batetik, Natura 2000 Sareko eremuetan habitat naturalak eta espezieen habitatak narriatzea, eta, bestetik, eremu horiek hautatzea bultzatu duten espezieengan eragina izango duten aldaketak gertatzea, aldaketa horiek lege honen helburuei dagokienez ondorio nabarmenak izan ditzaketen neurrian.

3. Organo eskudunek behar diren neurriak hartu beharko dituzte Natura 2000 Saretik kanpoko habitatak narriatu edo kutsatzea saihesteko.

4. Edozein plan, programa edo proiektu eragin nabarmena izan badezake aipatu eremuetan –nahiz lekuaren kudeaketarekin lotura zuzenik izan ez edo leku kudeatzeko beharrezkoa izan ez–, dela bakarka edo dela beste plan edo proiektu batzuekin batera, behar bezala ebaluatuko dira plan, programa edo proiektuak leku horretan izango dituen ondorioak; aplikatzekoak diren arauen arabera egingo da ebaluazioa, estatuko oinarrizko legerian eta autonomia-erkidegoek emandako babes-arau gehigarrietan ezarritakoaren arabera, eta kontuan hartuko dira leku horren kontserbazio-helburuak. Plan, programa edo proiektuak onesteko edo baimentzeko eskumena duten organoek adostasuna adierazi ahal izateko, dena delako lekuaren osotasunak ez duela kalterik jasango bermatu behar da, leku horretan izandako ondorioen ebaluazioaren konklusioak ikusirik eta artikuluko honen 5. zerbakiaren xedatutakoa aintzat harturik; hala dagokionean, jendaurrean jarri beharko dira alde aurretik plan, programa edo proiektuak.

5. Leku batean izango diren ondorioen inguruko ebaluazioak konklusio negatiboak eman arren bestelako soluziorik ez badago, eta plana, programa edo proiektua ezinbestean gauzatu behar bada, lehen mailako interes publikoko arrazoiengatik –gizarte-arloko edo ekonomia-arloko arrazoiak barne–, Natura 2000 Sarearen koherentzia orokorra babesten dela bermatzeko beharrezko gertatzen diren neurri konpentsatzaileak hartuko dituzte administrazio publiko eskudunek.

Kasu zehatz bakoitzean deklaratu beharko da lehen mailako interes publikoko arrazoi saihestezinak daudela, honako hauetakoren baten bidez:

a) Lege baten bidez.

b) Ministroen Kontseiluaren akordio baten bidez, Estatuko Administrazio Orokorrak onetsi edo baimendu beharreko planak, programak edo proiektuak direnean, edo autonomia-erkidegoko gobernu-organismoaren akordio baten bidez. Akordio hori behar bezala arrazoituko da, eta jendaurrean jarriko da.

Plan eta programen ingurumen-ebaluazioaren prozeduran eta proiektuen ingurumen-inpaktuen ebaluazio-prozeduran zehar hartuko dira konpentsazio-neurriak, aplikatzeko den araudian xedatutakoaren arabera. Ingurumen-ebaluazioak zehazten duen plangintza-eta gauzatze-fasean aplikatuko dira neurri horiek.

Hartutako konpentsazio-neurriak Europako Batzordera igorriko dira, dagokion bidetik.

6. Leku batean I. eta II. eranskinetan jasotako lehentasunezko habitat natural mota bat eta/edo espezie bat egonez gero, honako arrazoi hauek bakarrik alegatu ahal izango dira:

a) Pertsonen osasunarekin eta segurtasun publikoarekin lotutakoak.

b) Ingurumenarentzat lehentasunezko garrantzia duten ondorio positiboak lotutakoak.

c) Lehen mailako interes publikoko beste arrazoi saihestezin batzuk, Europako Batzordeari kontsultatu ondoren.

7. Edozein plan, programa edo proiektu egin edo betetzeak modu negatiboan eragiten badie II. edo IV. eranskinetan galzorikotzat katalogatu diren espezieei, aurreko zerbakiaren aipatzen diren arrazoietakoren bat egon behar du nahitaez, eta bestelako aukerarik ez, plana, programa edo proiektua bete ahal izateko. Dagozkion konpentsaziozko neurriak 5. zerbakiaren xedatutakoaren arabera hartuko dira.

8. Leku bat Europako Batzordeak onetsitako Batasunaren garrantzizko lekuen zerrendan sartzen denetik, artikuluko honetako 4., 5., eta 6. zerbakietan xedatutakoa bete beharko da leku horretan.

9. Hegaztientzako BBE bat deklaratzeko denetik, artikuluko honen 4. eta 5. zatietan xedatutakoaren mende egongo da.

#### **46. artikulua.** *Sarearen koherentzia eta lotura.*

Natura 2000 Sarearen koherentzia ekologikoa eta lotura hobetzeko, igarobide ekologikoak kontserbatzea sustatuko dute autonomia-erkidegoek beren eskumenen esparruan, eta helburu horrekin kudeatuko dituzte basafauna eta basafloreko espezieen populazioen migrazioarako, banaketa geografikorako eta hartu-eman genetikorako funtsezkoak edo oso garrantzitsuak diren paisaiako elementuak eta lurralde-eremuak.

**47. artikulua.** *Behaketa eta segimendua.*

Autonomia-erkidegoek behatu egingo dute zein kontserbazio-egoeratan dauden Batasunaren intereseko habitat motak eta espezieak, eta arreta berezia eskainiko diete lehentasunezko habitat natural motei eta lehentasunezko espezieei; halaber, behatu egingo dute zein kontserbazio-egoeratan dauden IV. eranskinean zerrendatzen diren hegazti-espezieak. Ingurumen Ministerioari jakinaraziko diote zer aldaketa gertatu diren haietan, Natura Ondare eta Biodibertsitatearen Espainiako Inbentarioan islatuta gera dadin. Urtero egingo da jakinarazpen hori, teknikoki ezinezkoa denean izan ezik; ezinezkoa denean, argudiatu egin beharko da zergatia.

Autonomia-erkidegoek informazioa bidaliko diote Ingurumen Ministerioari, honako hauen inguruan: 45.1 artikuluan aipatzen diren kontserbazio-neurriak, neurri horien emaitzen ebaluazioa eta aplikatu beharreko neurri berrien proposamenak. Horrela, Europako Batzordeari bidali ahal izango dizkio Ministerioak –hiru eta sei urtean behin, hurrenez hurren– Natura 2000 Sareko guneak arautzen dituzten Europako Erkidegoko 79/409/EEE eta 92/43/EEE zuzentarauk eskatzen dituzten txosten nazionalak.

**48. artikulua.** *Kategoriaz aldatzea.*

Natura 2000 Sarean sartuta dagoen gune oso bat edo gune baten zati bat deskatalogatzea proposatu ahal izateko, zientifikoki frogatutako bilakaera naturalak gune horretan eragindako aldaketek justifikatu behar dute proposamen hori, eta aurreko artikuluan zehaztutako segimenduaren emaitzetan islatu behar dira aldaketa horiek.

Nolanahi ere, informazioa jendaurrean jartzeko tramitea sartuko da prozeduran, eta proposamena Europako Batzordera bidali aurretik beteko da tramite hori.

## IV. KAPITULUA

### Eremuak babesteko beste figura batzuk

**49. artikulua.** *Nazioarteko bitartekoek babestutako eremuak.*

1. Nazioarteko bitartekoek babestutako eremutzat joko dira Espainia partaide den nazioarteko hitzarmen eta akordioetan ezarritakoaren arabera formalki hautatutako naturagune guztiak, eta, bereziki, honako hauek:

a) Nazioarteko Garrantziko Hezeguneak: Nazioarteko Garrantziko Hezeguneen inguruko Hitzarmenekoak eta, bereziki, urretako hegaztien habitat gisa garrantzia dutenak.

b) Munduko Ondarearen Zerrendako toki naturalak: Munduko Kultura eta Natura Ondarea Babestearen gaineko Konbentziokoak.

c) Eremu babestuak: Atlantikoaren ipar-ekialdeko itsas eremu itsas ingurumena babesteko hitzarmenekoak (OSPAR).

d) Mediterraneorako Garrantziko Gune Bereziki Babestuak (MGGBB): Itsas ingurunea eta Mediterraneoko kostaldeko eskualdea babesteko hitzarmenekoak.

e) Geoparkeak: UNESCOk deklaraturakoak.

f) Biosfera-erreserbak: UNESCOk deklaraturakoak.

g) Europako Kontseiluaren erreserba biogenetikoak.

2. Nazioarteko bitartekoek babestutako eremuak deklaratzeko edo onartzeko, informazioa jendaurrean jarriko da, eta, ondoren, Estatuko Aldizkari Ofizialean argitaratu, oinarritzko informazioarekin eta eremuak hartzen duen perimetroaren plano batekin batera.

3. Eremu horien babes-araubidea dagozkien nazioarteko hitzarmen eta akordioetan ezarritakoa izango da, eta indarrean jarraituko dute eremu horiekin osorik edo partzialki bat datozen lurralde-eremuen berariazko babes-, antolamendu- eta kudeaketa-araubideek ere, betiere nazioarteko bitartekoek babestutako eremuen kontserbazio-gidalerroetara egokitzen badira.

4. Kontserbazio-gidalerro batzuk landuko ditu Ingurumen Ministerioak nazioarteko bitartekoek babestutako eremuentzat, autonomia-erkidegoen partaidetzarekin, Natura Ondare eta Biodibertsitatearen Estatuko Plan Estrategikoaren esparruan. Eremu horiek planifikatu eta kudeatzeko esparru orientagarria osatuko dute gidalerro horiek, eta Ingurumenaren Konferentzia Sektorialaren akordio bidez onetsiko dira.

## V. KAPITULUA

### **Naturagune Babestuen, Natura 2000 Sarearen eta nazioarteko bitartekoek babestutako eremuen Espainiako Inbentarioa**

**50. artikulua.** *Naturagune Babestuen, Natura 2000 Sarearen eta nazioarteko bitartekoek babestutako eremuen Espainiako Inbentarioa.*

1. Naturagune Babestuen, Natura 2000 Sarearen eta nazioarteko bitartekoek babestutako eremuen Espainiako Inbentarioa sortzen da, Ingurumen Ministerioaren esku, estatu mailako inbentario administratiboa izateko; inbentario hori Natura Ondare eta Biodibertsitatearen Espainiako Inbentarioaren barruan dago, eta erregelamendu bidez arautuko da.

2. Gai horretan dauden nazioarteko konpromisoak homologatu eta betetzeko, nazioartean ezarritako kategoriak esleituko zaizkie Naturagune Babestuen Espainiako Inbentarioan sartutako naturaguneei –bereziki, NKNB Natura Kontserbatzeko Nazioarteko Batasunak ezarritakoak–, eta beren jatorrizko izendapenei eutsi egingo diete.

3. Inbentarioa eguneratuta edukitzeko behar den informazioa emango dute autonomia-erkidegoek.

**51. artikulua.** *Gune babestuen mugak aldatzea.*

1. Zientifikoki frogatutako bilakaera naturalak gune horietan eragindako aldaketek justifikatzen dutenean bakarrik aldatu ahal izango dira naturagune babestuen edo Natura 2000 Sareko guneen mugak, guneen guztizko azalera murrizteko edo lursail batzuk gune horietatik kanpo uzteko. Natura 2000 Sareko gune babestuen mugak aldatzen badira, behar bezala islatu beharko dira bilakaera naturalaren ondorio diren aldaketak, 47. artikuluan xedatutako segimenduaren emaitzetan.

2. Eremu babestuen mugetan egiten den aldaketa orok informazioa jendaurrean jartzeko tramitea bete behar du, eta, Natura 2000 Sareko gune babestuen kasuan, deskatalogatzeko proposamena Europako Batzordeari bidali baino lehen eta hark deskatalogatzea onetsi aurretik bete beharko da tramite hori.

3. Aurreko zenbakietan xedatutakoa betetzeak ez du salbuetsiko autonomia-erkidegoek ezartzen dituzten babes-arau osagarrietatik.

## III. TITULUA

### **Biodibertsitatea kontserbatzea.**

## I. KAPITULUA

### **Basabiodibertsitate autoktonoa *in situ* kontserbatzea**

**52. artikulua.** *Basaespezie autoktonoak kontserbatu egingo direla bermatzea.*

1. Behar diren neurriak hartuko dituzte autonomia-erkidegoek, basaeoeran bizi den biodibertsitatea kontserbatu egingo dela bermatzeko. Espezie horien habitatak zaintzeari emango diote lehentasuna; berariazko babes-araubideak ezarriko dira, horrelako araubideen premia edukitzeko egoeran dauden basaespezieentzat, eta lege honen 53. eta 55. artikuluetan aipatutako kategorietakoren batean sartuko dira.



Era berean, neurri egokiak hartu beharko dituzte bateragarriak izan daitezkeen Batasunaren intereseko basafauna eta basafloorako espezieetako aleak naturan bildu eta haien ustiapena kudeatzea –VI. eranskinean zerrendatzen direnak– eta espezie horiek kontserbazio-egoera onuragarrian iraunaraztea.

2. Administrazio publiko eskudunek debekatu egingo dute espezie, subespezie edo arraza geografiko aloktonoak sartzea, arriskua baldin badago haien basaespezie autoktonoekin lehiatzeko edo purutasun genetikoa nahiz oreka ekologikoak aldatzeko.

3. Debekatu egiten da basanimaliak nahita hil, zauritu, eragotzi edo estutzea, edozein delarik ere erabilitako metodoa edo basanimalia horien bizi-zikloaren fasea.

Debekatu egiten da, orobat: basanimaliak atxikitzea eta bizirik harrapatzea; haien habiak, kumeak edo arrautzak suntsitu, galarazi, bildu eta atxikitzea, baita arrautzak hutsik egonda ere, eta ale biziak nahiz hilak edo haien gorpuzkiak edukitzea edo garraiatzea eta haiekin trafikoan edo salerosketan aritzea, kanpo-merkataritzan bada ere.

Debeku horiek ez dira aplikatuko 53. eta 55. artikuluetan zehaztutako kategorietakoren batean sartuta ez dauden animalientzat, berariazko araudi bat dagoenean eta, bereziki, mendien, ehizaren, nekazaritzaren, arrantza kontinentalaren eta itsas arrantzaren legeriako araudia denean.

4. Aztertu egingo da ea komenigarria den desagertutako taxonak berriro sartzea, baldin eta oraindik egoera basatian edo gatibutasunean populazioak badaude, aurreko esperientziak eta gai horretako nazioarteko gidalerroak aintzat hartuta eta herritarrei parte-hartze eta entzunaldi egokiak eskainita. Azterketa hori egiten den bitartean, neurri egokiak hartu ahal izango dituzte administrazio publikoek, taxon horiek berriro sartzeko aukeratu daitezkeen eremuak kontserbatu egingo direla bermatzeko.

Zenbait autonomia-erkidegoren lurraldean heda daitezkeen espezieen kasuan, Natura Ondare eta Biodibertsitaterako Estatuko Batzordeari aurkeztu beharko zaio taxonak berriro sartzeko programa, eta Ingurumenaren Konferentzia Sektorialak onetsi beharko du alde aurretik.

### **53. artikulua.** *Babes Bereziko Basaespezieen Zerrenda.*

1. Babes Bereziko Basaespezieen Zerrenda sortzen da, eta erregelamendu bidez arautuko da, autonomia-erkidegoei kontsulta egin ondoren. Espezie, subespezie eta populazioak sartuko dira zerrenda horretan, arreta eta babes berezia behar badute apartekotasun, bakantasun edo mehatxu-mailagatik daukaten zientzia-, ekologia- edo kultura-balioaren arabera, edo babestuta baldin badaude zuzentarauen eranskinetan eta Espainiak berretsitako nazioarteko hitzarmenetan.

Estatu mailako zerrenda administratiboa izango da, eta Ingurumen Ministerioaren esku egongo da.

2. Taxon edo populazioak zerrendan sartzeaz, kategoriaz aldatzeaz edo zerrendatik kentzeaz Ingurumen Ministerioa arduratuko da, dagoen informazio tekniko edo zientifikoak hori egitea aholkatzen duenean; Natura Ondare eta Biodibertsitaterako Estatuko Batzordeak egingo du proposamena, eta autonomia-erkidegoek abiaraziko dute ekimena alde aurretik. Europar Batasunaren arau edo erabakien eranskinetan babestutako taxon edo populazioak baldin badira –hala nola V. eranskinean zerrendatutakoak–, edo Espainiak berretsitako nazioarteko bitartekoetan babestutakoak, ofizioz sartuko ditu Ingurumen Ministerioak zerrendan, eta, alde aurretik, Natura Ondare eta Biodibertsitaterako Estatuko Batzordeari jakinaraziko dio sartu egingo dituela.

Edozein herritar edo erakundek eskatu ahal izango du taxon edo populazio bat zerrendan sartzeko, kategoriaz aldatzeko edo zerrendatik kentzeko prozedura hasteko, eta, eskaerarekin batera, proposatutako neurriaren arrazoibide zientifiko bat aurkeztu beharko du.

3. Taxon edo populazio bat Babes Bereziko Basaespezieen Zerrendan sartzeko, aldian-aldian ebaluatu beharko da haren kontserbazio-egoera.

4. Babes berezia duten basaespezieen zerrendak eratu ahal izango dituzte autonomia-erkidegoek beren lurralde-eremuetan, eta haien zaintzeko beharrezkotzat jotzen diren debeku eta ekintza osagarriak ezarri.

**54. artikulua.** *Babes Bereziko Basaespezieen Zerrendan jasotako espezieekin betetzeko debekuak.*

1. Espezie, subespezie edo populazio bat Babes Bereziko Basaespezieen Zerrendan sartzean, debeku orokor hauek ezartzen dira:

a) Landare, onddo edo algak direnean, naturan bildu, moztu, inausi, errotik atera edo nahita suntsitzea.

b) Animaliak direnean –haien larba, kume edo arrautzak barne–, debekatu egiten da asmo hauekin egiten den edozein ekintza: hil, harrapatu, jazarri edo eragozte, edota haien habiak, gordelekuak eta ugaldutako negua eman edo pausatze eremuak suntsitu edo hondatzea.

c) Kasu bietan, ale biziak nahiz hilak edo haien propagulu nahiz gorpuzkiak eduki, naturalizatu, garraiatu, saldu, salerosi edo trukitzea, saldu edo trukitzeko eskaintzea edo inportatu zein esportatzea, erregelamendu bidez zehazten diren kasuetan izan ezik.

Espezie, subespezie edo populazio horien bizi-zikloaren fase guztiei aplikatuko zaizkie debeku horiek.

2. Ustekabeko harrapaketa edo hilketak kontrolatzeko sistema bat ezarriko dute autonomia-erkidegoek, eta, sistema horren bidez batutako informazioan oinarrituta, behar diren neurriak hartuko dituzte harrapaketa eta hilketa horiek ez dezaten eduki ondorio negatibo garrantzitsurik Babes Bereziko Espezieen Zerrendan sartuta dauden espezieengan, eta etorkizunean ezbehar horiek gutxitu daitezten.

**55. artikulua.** *Espezie Mehatxatuen Espainiako Katalogoa.*

1. Babes Bereziko Espezieen Zerrendaren barruan, Espezie Mehatxatuen Espainiako Katalogoa ezartzen da, eta biodibertsitate mehatxatuaren taxon edo populazioak sartuko dira katalogo horretan, dagoen informazio tekniko edo zientifikoak hori egitea aholkatzen duenean, kategoria hauetakoren batean:

a) Galzorian: taxon edo populazio horiek nekez biziraungo dute, oraingo egoerako faktore eragileek jarraituz gero.

b) Kaltebera: taxon edo populazio horiek etorkizun hurbilean aurreko kategoriako bihurtzeko arriskua daukate, eragiten dieten faktore kaltegarriak zuzentzen ez badira.

2. Taxon edo populazioak Espezie Mehatxatuen Espainiako Katalogoan sartzeaz, katalogotik kentzeaz edo kategoriaz aldatzeaz Ingurumen Ministerioa arduratuko da, dagoen informazio tekniko edo zientifikoak hori egitea aholkatzen duenean; Natura Ondare eta Biodibertsitaterako Estatuko Batzordeak egingo du proposamena, eta autonomia-erkidegoek edo ministerioak berak abiaraziko dute ekimena alde aurretik.

Edozein herritar edo erakundek eskatu ahal izango du espezie mehatxatu bat katalogoan sartzeko, kategoriaz aldatzeko edo katalogotik kentzeko prozedura hasteko, eta, eskaerarekin batera, proposatutako neurriaren arrazoibide zientifiko bat aurkeztu beharko du.

3. Espezie mehatxatuen katalogoak eratu ahal izango dituzte autonomia-erkidegoek beren lurralde-eremuetan; gainera, artikuluko honetan zerrendatutakoez gain, beste kategoria espezifikoko batzuk zehaztu ahal izango dituzte, eta haiek zaintzeko beharrezkotzat jotzen diren debeku eta ekintza osagarriak ezarri.

4. Autonomia-erkidegoek, beren aldetik, areagotu egin ahal izango dute Espezie Mehatxatuen Espainiako Katalogoko espezieen babes-maila beren katalogoetan, eta mehatxu handiagoko kategoria batean sartu ahal izango dituzte.

**56. artikulua.** *Espezie Mehatxatuen Espainiako Katalogoan sartzearen ondorioak.*

1. Espezie Mehatxatuen Espainiako Katalogoari dagokionez:

a) Taxon edo populazio bat «galzorikoen» kategorian sartuz gero, hura berreskuratzeko plan bat egin beharko da, gehienez hiru urteko epean, eta neurririk egokienak sartuko dira plan horretan, lortu nahi diren helburuak betetzeko eta, hala badagokio, eremu kritikoak hautatzeko.

Kontserbazio-neurriak eta kudeaketa-bitartekoak finkatuko dira eremu kritikoetan eta taxon edo populazio horiek berririo sartzeko edo hedatzeko aukera dagoen eremuetan – berreskuratze-planetan horretarako zehaztutakoetan–; eremu horietarako berriaz ezarritako neurri eta bitartekoak izan daitezke, edo beste plan batzuetan ere badaudenak, eta eremu horiek hautatzeko arrazoi izan diren espezieengan eragin negatiboak saihestea izango dute xede.

b) Taxon edo populazio bat «kalteberen» kategorian sartuz gero, hura kontserbatzeko plan bat egin beharko da, gehienez bost urteko epean, eta neurririk egokienak sartuko dira plan horretan, lortu nahi diren helburuak betetzeko.

c) Kontserbazio-arazo berberak edo antzeko esparru geografikoak dauzkaten taxon edo populazioentzat, zenbait taxon edo populazio aldi berean hartzen dituzten planak landu ahal izango dira.

d) Eskusiboki edo proportzio handian naturagune babestuetan, Natura 2000 Sarean edo nazioarteko bitartekoek babestutako eremuetan bizi diren espezie edo populazioentzat, eremu horien plangintza- eta kudeaketa-figuren bitartez antolatu ahal izango dira planak.

2. Espezie mehatxatuak berreskuratu eta kontserbatzeko planak landu eta onetsiko dituzte autonomia-erkidegoek.

#### **57. artikulua.** *Espezie Mehatxatuak Kontserbatzeko Estrategiak.*

Honako estrategia hauek onetsiko ditu Ingurumenaren Konferentzia Sektorialak, Natura Ondare eta Biodibertsitaterako Estatuko Batzordeak proposatuta, Natura Ondare eta Biodibertsitaterako Estatuko Kontseiluak alde aurretik txostena egin ondoren: batetik, autonomia-erkidego bat baino gehiagotan dauden espezie mehatxatuak kontserbatzeko estrategiak, lehenasuna emanik mehatxu-maila handieneko taxonei; eta, bestetik, biodibertsitaterako mehatxu nagusiei aurre egiteko estrategiak, lehenasuna emanik Espezie Mehatxatuen Espainiako Katalogoan sartuta dauden espezieetatik gehien erasaten dituzten mehatxuei, hala nola substantzia toxikoak legez kanpo erabiltzea, elektrokutatzea eta linea elektrikoekin talka egitea edo berunez intoxikatzea.

Berreskuratze eta Kontserbazio Planen esparru orientagarria eratuko dute estrategia horiek, eta jaso egin beharko dituzte, gutxienez, egoeraren eta espezieentzako mehatxu nagusien diagnostiko bat eta espezie horiek berreskuratzen hasteko ekintzak.

#### **58. artikulua.** *Salbuespenak.*

1. Kapitulu honetan ezarritako debekuak indarrrik gabe gera daitezke, autonomia-erkidegoaren alde aurreko administrazio-baimenarekin, baldin eta beste irtenbide aski onik ez badago; albuespen horrekin ezingo da eragotzi dena delako populazioei kontserbazio-egoera onuragarrian iraunaraztea haien berezko banaketa-eremuan. Honako baldintza hauetakoren bat bete beharko da albuespenak egiteko:

a) Debeku horiek ezartzeak ondorio kaltegarriak ekartzea pertsonen osasun eta segurtasunerako.

b) Kalte larriak eragotzi behar izatea laboreetan, abereetan, basoetan, arrantzan eta uren kalitatean.

c) Beharrezkoa izatea ikerketa-, hezkuntza-, birpopulatu- edo birsartze-arrazoiengatik, edo nahitaezkoa izatea espeziaren bat gatibutasunean hazi behar delako helburu horietarako.

d) Hegaztien kasuan, aireko segurtasunarekin lotutako istripuak saihestu behar izatea.

e) Babes Bereziko Espezieen Zerrendan ez dauden espezie jakin batzuk harrapatu, atxiki edo bestelako ustiaketa zuhur oro egin behar izatea, hertsiki kontrolatutako baldintzetan eta metodo selektiboak erabiliz, kopuru txikietan eta espezie horien kontserbazioa bermatzeko behar diren mugekin.

f) Basaflora eta basafauna eta habitat naturalak babestu behar izatea.

2. Aurreko zenbakiko e) letran jasotako baldintzak betetzen direlako albuespeneko baimenak ematen direnean, behar diren mekanismoak ezarriko ditu Natura Ondare eta Biodibertsitaterako Estatuko Batzordeak, datu zientifiko zehatzetan oinarrituta bermatu dadin espezie bakoitzerako gehieneko harrapaketa-maila nazionala bat datorrela «kopuru

txikiak» kontzeptuarekin. Orobat, finkatu egingo dira espezie bakoitzerako eman ahal izango diren gehieneko harrapaketa-kuotak eta neurri horiek betetzen diren kontrolatzeko sistemak; zuhurtasunez harrapaketa, atxikitze edo ustiaketak egitea baimentzen den aldiaren aurretik eta aldi horrek iraun bitartean erabili beharko dira kontrol-sistemak, eta aldi hori igarota betetzeko kontrol osagarriak ere ezarri behar dira.

3. Aurreko zenbakietan aipatzen den administrazio-baimenak publikoa eta arrazoitua izan beharko du, eta zehaztu egin beharko dira baimenean honako hauek:

- a) Ekintzaren helburua eta justifikazioa.
- b) Zein espezieri dagokion.
- c) Zein bitarteko, instalazio, sistema edo metodo erabiliko diren eta zer muga dituzten eta zergatik erabiliko diren horiek eta zein langile kualifikatuk erabiliko dituen.
- d) Arriskua nolakoa den eta zein baldintza dituen, non eta noiz egingo den ekintza eta, hala badagokio, zein beste irtenbide ez den aukeratu eta zein datu zientifiko erabili diren.
- e) Zer kontrol-neurri aplikatuko diren.

4. Zerbitzu-jarduera bat betetzeko artikulua honetan aipatutako baimenen bat lortu beharra dagoenean, publikotasun-, objektibotasun-, inpartzialtasun- eta gardentasun-printzipioak errespetatuko dira baimena emateko prozeduran. Gainera, lehiaren printzipioa aplikatuko da honako kasu hauetan:

- a) espezieak babesteko bitartekoen arabera organo eskudunak sustatutako zerbitzu-jarduera bat denean,
- b) jarduera bat betetzeak hirugarrenen beste jarduera batzuk betetzea eragozten duenean.

Zerbitzu-jarduerak betetzeko emakida eta baimenak emateko erabiliko diren irizpideek lotura zuzena izango dute ingurumenaren babesarekin.

Baimen eta emakida horien iraupena dauzkaten ezaugarrien arabera mugatuko da, eta ez da berrituko automatikoki; iraugitakoan, aurreko titularrak edo baimen edo emakidari lotutako pertsonak ez dute izango inolako abantailarik.

5. Ingurumen Ministerioari jakinaraziko diote autonomia-erkidegoek artikulua honetan xedatutakoaren arabera zein baimen ematea adostu den, ondoren Europako Batzordeari eta dagozkion nazioarteko erakundeei baimen horien berri emateko, eta, kasu bakoitzean, zein kontrol bete diren eta kontroletan zer emaitza lortu den adieraziko da.

## II. KAPITULUA

### ***Ex situ* kontserbazioa**

#### **59. artikulua.** *Basaespezie mehatxatuak hedatzea.*

1. Espezie Mehatxatuen Espainiako Katalogoan sartuta dauden espezieentzat, honako hauek garatzea bultzatuko du Natura Ondare eta Biodibertsitaterako Estatuko Batzordeak, *in situ* kontserbazio-ekintzen osagarri: espezieak beren habitat naturaletik kanpo hazi edo hedatzeko programak –bereziki, programa horiek kontserbazio-estrategietan aurreikusi direnean– edo berreskuratze- zein kontserbazio-planak.

Erreserba genetikokoak eratzea eta/edo berriro natura-ingurunean sartzeko gai diren aleak lortzera bideratuta egongo dira programa horiek.

2. Horretarako, nazio mailako erreferentziako zentroak zeintzuk izango diren hautatu eta zein baldintza izango dituzten adostuko dute tartean dauden administrazioek batzorde horretan, eta zentro horiek koordinatuko dituzte dagozkien *ex situ* kontserbazio-programak.

3. Irabazi-asmorik gabeko erakundeek, parke zoologikoen, akuarioek, lorategi botanikoen eta ikerkuntza- nahiz kontserbazio-zentro publiko nahiz pribatuek hartu ahal izango dute parte espezie mehatxatuak gatibutasunean hazteko eta hedatzeko programetan.

#### **60. artikulua.** *Material Biologiko eta Genetikoko Bankuen Espainiako Sarea eta Inbentarioa.*

1. Material biologiko eta genetikoko bankuen sare bat sustatuko du Natura Ondare eta Biodibertsitaterako Estatuko Batzordeak, basaespezieen ondare genetikoa eta biologikoa zaintzeko eta kontserbazio-programetan *ex situ* eta *in situ* operazioak txertatzeko.

Sare horretan, lehentasuna emango zaio, besteak beste, basafloa eta basafauna mehatxatuen taxon autoktonoetako material biologiko eta genetikoa zaintzeari, eta, bereziki, espezie mehatxatu endemikoen materiala babesteari.

2. Basaespezieen material biologiko eta genetikoko bankuen erregistro bat eduki beharko dute autonomia-erkidegoek –hain zuzen, egoitza beren lurraldean duten bankuena–, eta informazio eguneratua izan beharko dute, bankuek beren instalazioetan dauzkaten basafauna eta basafloako material biologiko eta genetikoko bildumen gainean.

3. Basaespezieen Material Biologiko eta Genetikoko Bankuen Espainiako Inbentarioa sortzen da; Ingurumen Ministerioaren mende egongo da, informazioa biltzeko izango da, eta autonomia-erkidegoek emandako datuak jasoko dira bertan.

### III. KAPITULUA

#### **Espezie exotiko inbaditzaileen prebentzioa eta kontrola**

##### **61. artikulua.** *Espezie Exotiko Inbaditzaileen Espainiako Katalogoa.*

1. Espezie Exotiko Inbaditzaileen Espainiako Katalogoa sortzen da; erregelamendu bidez arautuko dira haren egitura eta funtzionamendua, eta katalogo horretan sartuko da espezie eta subespezie exotiko inbaditzaile oro –dagoen informazio tekniko edo zientifikoak hori egitea aholkatzen duenean–, mehatxu larria baldin bada espezie autoktono, habitat edo ekosistementzat, agronomiarentzat edo natura-ondarea erabiltzeari lotutako ekonomia-baliabideentzat.

Ingurumen Ministerioaren esku egongo da, eta estatu mailako katalogo administratiboa izango da.

2. Espezieak Espezie Exotiko Inbaditzaileen Espainiako Katalogoan sartzeaz Ingurumen Ministerioa arduratuko da, dagoen informazio tekniko edo zientifikoak hori egitea aholkatzen duenean; Natura Ondare eta Biodibertsitaterako Estatuko Batzordeak egingo du proposamena, eta autonomia-erkidegoek edo ministerioak berak abiaraziko dute ekimena aldezturik.

Edozein herritar edo erakundek eskatu ahal izango du espezie exotiko inbaditzaile bat katalogoan sartzeko, kategoriaz aldatzeko edo katalogotik kentzeko prozedura hasteko, eta, eskaerarekin batera, proposatutako neurriaren arrazoibide zientifiko bat aurkeztu beharko du.

3. Espezie bat Espezie Exotiko Inbaditzaileen Espainiako Katalogoan sartzean, debeku generikoa ezartzen zaio espezie horren ale biziak nahiz hilak edo haren gorpuzki nahiz propaguluak eduki edo garraiatzeari eta haiekin trafikoan edo salerosketan aritzeari, kanpo-merkataritzan bada ere. Debeku hori indarrik gabe gera daiteke, aldezturik administrazio-baimenarekin, baldin eta beharrezkoa bada ikerkuntzari, osasunari edo pertsonen segurtasunari lotutako arrazoiengatik.

4. Inbaditzaileak izan daitezkeen espezie exotikoen segimendu bat egingo dute autonomia-erkidegoek –batez ere, beste herrialde edo eskualde batzuetan inbaditzaileak direla erakutsi duten espezieena–, beharra egonez gero Espezie Exotiko Inbaditzaileen Espainiako Katalogoan sartzeari proposatzeko.

5. Espezie Exotiko Inbaditzaileen Espainiako Katalogoko espezieak kudeatu, kontrolatu eta, ahal bada, desagerrarazteko gidalerroak ematen dituzten estrategiak landuko dituzte Ingurumen Ministerioak eta autonomia-erkidegoek Natura Ondare eta Biodibertsitaterako Estatuko Batzordean, eta lehentasuna emango diete fauna, flora edo habitat autoktono mehatxatuak kontserbatzeko arriskurik handiena dakarten espezieei; arreta berezia eskainiko zaio uharteetako biodibertsitateari. Ingurumenaren Konferentzia Sektorialak onetsiko ditu estrategia horiek, Natura Ondare eta Biodibertsitaterako Estatuko Batzordeak proposatuta, Natura Ondare eta Biodibertsitaterako Estatuko Kontseiluak aldezturik txostena egin ondoren, eta orientagarriak izango dira.

6. Espezie Exotiko Inbaditzaileen katalogoak eratu ahal izango dituzte autonomia-erkidegoek beren lurralde-eremuetan, eta haiek desagerrarazteko beharrezkotzat jotzen diren debeku eta ekintza osagarriak ezarri.

IV. KAPITULUA

**Ehiza eta arrantza kontinentalarekin lotutako espeziak babestea.**

**62. artikulua.** *Ehizatu eta arrantza daitezkeen espezieak.*

1. Ehizatu eta ur kontinentaletan arrantzatu ahal izango diren espezieak autonomia-erkidegoek zehazten dituztenak bakarrik izango dira, eta deklarazio horrek inola ere ezingo die eragin Babes Bereziko Espezieen Zerrendan sartutako espezieei edo Europar Batasunak debekatutakoei.

2. Nolanahi ere, ehiza eta arrantza kontinentalara arautzean, bermatu egingo da jarduera horietarako baimenduta dauden espezieak kontserbatzea eta sustatzea; xede horietarako, autonomia-erkidegoek zehaztu egingo dute zein lursail eta uretan ehizatu eta arrantzatu ahal izango den eta zein egunetan izango den haizu espezie bakoitzarentzat.

3. Oro har, debeku eta muga hauek ezartzen dira ehizatzeke eta ur kontinentaletan arrantzan egiteko:

a) Debekatu egiten da animaliak harrapatu edo hiltzeko prozedura masibo edo ez-selektibo guztiak eduki, erabili edo merkaturatzea –bereziki, VII. eranskinean zerrendatutakoak– eta debekatu egiten dira espezie baten populazioak toki batean desagerraraz ditzaketan edo haien lasaitasuna larriki hausten duten prozedurak.

Aurreko paragrafoan, batik bat, VII. eranskineko a) eta b) letretan zerrendatzen diren prozedurak eduki, erabili edo merkaturatzea debekatzen da: hain zuzen ere, hurrenez hurren, animaliak harrapatu edo hiltzeko eta garraiatzeko Europar Batasunak debekatzen dituen prozedurak.

Aukeran beste irtenbiderik ez dagoenean, posible izango da debeku hori ez aplikatzea, bi baldintza hauek betetzen badira:

1. 58.1 artikuluan zerrendatutako egoera eta baldintzak betetzen badira, eta

2. Batasunaren intereseko animalia-espezieak badira eta Europar Batasunaren araudian babes hertsikotzat jotzen ez badira.

b) Oro har, debekatu egiten da hegaztiak ehizatzea, araldian daudenean eta ugaltu eta kumeak hazteko aldietan, eta, espezie migratzaileen kasuan, debekatu egiten da ehizatzea umatzeko tokietarantz itzultzeko egiten duten ibilaldian zehar.

c) Erregelamendu bidez zehazten diren espezieak bakarrik merkaturatu ahal izango dira, bizirik edo hilik, nazioarteko hitzarmenen eta Europar Batasunaren araudiaren arabera.

d) Aldi baterako luzamenduak edo debeku bereziak ezarri ahal izango dira, biologia- edo osasun-arrazoiek hori egitea aholkatzen dutenean. Ehizatu eta arrantzatu daitezkeen espezieei dagokienez, txostenak egin ahal izango ditu Natura Ondare eta Biodibertsitaterako Estatuko Batzordeak, biologia- edo osasun-arrazoiek aldi baterako luzamenduak edo debeku bereziak ezartzea aholkatzen dutenean, autonomia-erkidegoek erabili ahal izan ditzaten luzamendu edo debeku horiek zehazteko.

e) Ehiza eta arrantza-jarduerei lotuta, debekatu egiten da espezie aloktonoak sartzea. Espezie aloktonoak ustekabean edo legez kanpo sartzen baldin badira, ezin izango da inola ere baimendu espezie horiek ehizarako edo arrantzarako ustiatzea, eta espezieak kontrolatzeko neurri egokiak sustatu beharko dira, haiek desagerrarazteko.

f) Lursailetan itxitura eta hesiak ipintzeko, administrazio-baimena beharko da, eta, eraikitzen direnean, kontuan izango da ez dituztela oztopatu behar ehizatu ezin den basafaunaren joan-etorriak perimetro osoan eta saihestu egin behar direla ehiza daitezkeen espezieen endogamia-arriskuak. Administrazio publiko eskudunek ezarriko dute zenbateko azalera eduki behar duten gutxienez kudeaketa-unitateek itxitura horiek ipini ahal izateko eta, horrela, ehizatu ezin den basafaunaren joan-etorri askea bermatzeko eta ehiza daitezkeen espezieen endogamia-arriskuak saihesteko.

Betebehar hori baztertu egin ahal izango dute autonomia-erkidegoek ehizarako ez diren itxitura eta hesietarako, animalien osasunari lotutako arrazoiengatik.

g) Harrapariak harrapatzeko autonomia-erkidegoek baimentzen dituzten metodoek homologatuta egon behar dute, nazioarteko akordioetan finkatutako hautakortasunaren eta animalien ongizatearen irizpideetan oinarrituta.



Autonomia-erkidegoak emandako banakako akreditazio baten bidez bakarrik baimendu ahal izango da metodo horiek erabiltzea. Ezingo dira hartu harraparitzat, paragrafo honen ondorioetarako, Babes Bereziko Basaespezieen Zerrendan sartutako espezieak.

h) Osorik edo partzialki eten ahal izango dute ehiza-eskubideen indarraldia administrazio publiko eskudunek, baldin eta egiaztatzen bada lursail batean egiten den ehizaren kudeaketak kalte egiten diola baliabideak berriztatzeari edo jasangarritasunari.

i) Administrazio publikoek arduraz jokatu dute ez dadin mehatxu bat izan ehiza daitezkeen espezieak askatzea eta haiekin birpopulaketak egitea espezie horien edo beste espezie batzuen genetika edo populazioa kontserbatzeko.

j) Debekatu egiten da ehizan eta kirol-tiroan aritzean beruna duen munizioa edukitzea eta erabiltzea, baldin eta jarduera horiek Nazioarteko Garrantziko Hezeguneen inguruko Hitzarmeneko Zerrendan jasotako hezeguneetan, Natura 2000 Sarekoetan edo naturagune babestuetan egiten badira.

**63. artikulua.** *Eperrak apeuarekin ehizatzea.*

Eper arra apeu gisa erabilia ehizatzeako modalitatea baimendu egin ahal izango du administrazio eskudunak, ohikoa den lekuetan, eta espeziea kontserbatuko dela bermatzeko beharrezkoak diren mugekin.

**64. artikulua.** *Ehiza eta Arrantzako Espainiako Inbentarioa.*

Ehiza eta Arrantzako Espainiako Inbentarioa Ingurumen Ministerioaren esku egongo da, eta inbentario horretan bilduko da informaziorik osatuena ehizatu edo arrantzatzea baimenduta dagoen espezieen populazioez, harrapaketez eta bilakaera genetikoaz; arreta berezia eskainiko zaie espezie migratzaileei.

Autonomia-erkidegoetako organo eskudunek ematen dituzten datuak ere gehituko dira inbentarioan. Helburu horrekin, ehiza- eta arrantza-eskubideen titularrek eta, oro har, ehiztari eta arrantzaleek, dagokion informazioa eman beharko diete autonomia erkidegoei.

IV. TITULUA

**Natura-ondarea eta biodibertsitatearen kudeaketa era  
jasangarrian kudeatzea**

I. KAPITULUA

**Biosfera-erreserben Espainiako sarea eta gizakia eta biosfera programa (MaB  
Programa)**

**65. artikulua.** *Biosfera Erreserben Sarea.*

Biosfera Erreserben Munduko Sarearen azpimultzo zehaztu eta onargarri bat da Biosfera Erreserben Espainiako Sarea, eta unitate fisiko horietan proiektatzen da UNESCOren «Gizakia eta Biosfera» programa (MaB Programa).

**66. artikulua.** *Biosfera Erreserben Espainiako Sarearen helburuak.*

1. Biosfera Erreserben Espainiako Sarearen helburuak hauek dira:

a) Elkarri lotutako «laborategi naturalen» multzo zehatz bati eustea; giza komunitateen eta haiek garatzen diren lurraldeen arteko harremanen segimendua egiteko toki konparagarriak izango dira, eta arreta berezia eskainiko zaie bata besteari moldatzeko prozesuei eta sortutako aldaketei.

b) Ziurtatzea etengabeko konparazio eraginkorra egingo dela eta horrela sortutako informazioa aplikagarria den egoeretara transferituko dela.

c) Lurraldea era jasangarrian antolatu eta kudeatzeko ereduak orokortzea bultzatzea.

2. Espainiako MaB Batzordea kide anitzeko organo aholku-emaila eta zientifikoa da, Ingurumen Ministerioari atxikia, eta haren osaera, edukiak eta zereginak erregelamendu bidez zehaztuko dira. MaB Batzordeak egingo ditu biosfera-erreserba bakoitzeko nahitaezko ebaluazioak, eta balioztatu egingo du ea egokitzen diren ezarritako helburu eta eskakizunetara; beharrezkoa denean, alderdi kontraesankorrak zuzentzea proposatuko du.

#### **67. artikulua.** *Biosfera-erreserben ezaugarriak.*

UNESCOK ezarritako gidalerro eta arauak errespetatu beharko dituzte biosfera-erreserbek, biosfera-erreserba gisa onartzeko eta irauteko, eta, gutxienez, honako hauek eduki beharko dituzte:

a) Eremuaren antolamendu bat, gune hauek osatuko dutena:

1. Erreserbaren erdigune bat edo batzuk, naturagune babestuak direnak: gune horien oinarritzko helburua dibertsitate biologikoa eta ekosistemak zaintzea izango da, eta antolatu, erabili eta kudeatzeko plangintza egoki bat edukiko dute, funtsean helburu horiek indartzeko.

2. Erdiguneak babesteko gune bat edo batzuk: gune horiekin, bateragarri bihurtu nahi dira erdigunearen oinarritzko kontserbazioa eta babesgune garapen ingurumenarentzat jasangarria, dagokion antolamendu, erabilera eta kudeaketarako berariazko plangintzaren bidez edo kasuan kasuko erdiguneen plangintzan txertatuta.

3. Erreserbaren eta gainerako eremuaren arteko trantsizio-gune bat edo batzuk: gune horiekin, garapen sozioekonomikoa bultzatu nahi da, herritarren ongizatea hobetzeko; era jasangarrian baliatu erreserbaren ahalmen eta baliabide espezifikoak, eta erreserbaren eta Gizakia eta Biosfera Programaren helburuak errespetatu.

b) Jarritako helburuak lortzera zuzendutako berariazko bilakaera-estrategia batzuk, dagokien ekintza-programarekin, eta, horrekin batera, adierazleen sistema bat, Espainiako MaB Batzordeak ezarritakora egokitua, MaB Programaren helburuak zein mailatan betetzen diren balioztatu ahal izateko.

c) Kudeaketa-organoa bat, estrategia, ekintza-lerro eta programak garatzeaz arduratuko dena.

## II. KAPITULUA

### **Basataxonetako baliabide genetikoak eskuratzea eta onurak banatzea**

#### **68. artikulua.** *Basataxonetako baliabide genetikoak eskuratzea eta erabiltzea.*

1. Basataxonetako baliabide genetikoak eskuratzea eta haiek erabiltzearen onurak banatzea honako hauetan dago xedatuta: Dibertsitate Biologikoari buruzko Hitzarmena eta hura garatzen duten bitartekoak, eta, hala dagokionean, Elikadurarako eta Nekazaritzarako Baliabide Fitogenetikoaren gaineko Nazioarteko Tratatuak, FAO Elikadura eta Nekazaritzarako Erakundearena.

2. Baliabide genetiko horiek eskuratzeko, alde aurreko adostasun informatua eta hitzartutako baldintzak eskatu ahal izango dira errege-dekretu bidez, Dibertsitate Biologikoari buruzko Hitzarmenaren 15. artikulua estatu kideei esleitzen dizkien ahalak erabiliz. Kasu horretan, adostasuna erakusteko eta baldintzak negoziatzeko eskumena autonomia-erkidegoek edukiko dute: baliabide genetikoaren jatorri den autonomia-erkidegoak edo baliabideen jatorri diren *ex situ* kontserbazio-instituzioak dauden autonomia-erkidegoak.

3. Aurreko atalean xedatutakoa gorabehera, baldintzak ezarri ahal izango dituzte autonomia-erkidegoek beren lurralde-eremuan, baliabide genetikoak *in situ* eskuratzeko, baldin eta babes berezia behar bada baliabideok biltzeko, kontserbatu eta era jasangarrian erabil daitezkeen; gai horretarako puntu fokal izateko Ingurumen Ministerioak hautatzen duen organoari jakinaraziko diote autonomia-erkidegoek baldintzak ezarri dituztela, eta organo horrek gaiaren eskumena duten Europar Batasuneko lankidetzako organoari eta Dibertsitate Biologikoari buruzko Hitzarmeneko organoari emango die horren berri.

III.  
KAPITULUA

**Basaespezieak nazioartean salerostea**

**69. artikulua.** *Basaespezieak nazioartean salerostea.*

1. Era jasangarrian eta nazioarteko legeriaren arabera salerosiko dira basaespezieak nazioartean; bereziki, honako hauen arabera: basafauna eta basafloorako espezie mehatxatuen nazioarteko merkataritzaren gaineko Konbentzioa, Dibertsitate Biologikoari buruzko Hitzarmena, Elikadurarako eta Nekazaritzarako Baliabide Fitogenetikoaren gaineko Nazioarteko Tratatuak –FAO Elikadura eta Nekazaritzarako Erakundearena– eta merkataritza kontrolatuz espezie mehatxatuak babestearen gaineko Europako Erkidegoko araudia.

2. Era arautuan salerosten diren basaespezieen inportazio eta esportazioen erregistro bat edukiko du Industria, Turismo eta Merkataritza Ministerioak, eta txostenak egingo ditu urtero, babestutako espezie horien nazioarteko merkataritzaren mailak eta joerak aztertu ahal izateko.

3. Ingurumen Ministerioak ebaluatu egingo du Espainian egiten den basabizitzaren nazioarteko merkataritza, gutxienez bost urtean behin, merkataritzako estatistiketako datuetatik abiatuta, eta emaitzak Industria, Turismo eta Merkataritza Ministerioari jakinaraziko dizkio; horrekin batera, merkataritza horren jasangarritasuna ziurtatzeko beharrezkoak diren ekintzak egin ahal izateko neurriak proposatuko dizkio, horrelako ekintzak egin behar badira.

Industria, Turismo eta Merkataritza Ministerioak balioztatuko du proposamena, eta, hala badagokio, Europako Batzordeari bidaliko dio.

IV. KAPITULUA

**Jakintza tradizionalak**

**70. artikulua.** *Natura-ondarea eta biodibertsitatea kontserbatzeko jakintza tradizionalak sustatzea.*

Dibertsitate Biologikoari buruzko Hitzarmenaren eta Jabetza Intelektualaren Munduko Erakundearen arau, ebazpen eta printzipioen arabera, administrazio publikoek:

a) Zaindu, iraunarazi eta sustatu egingo dituzte ohituraz erabiltzen diren jakintza eta azturak, interesekoak direnean natura-ondarea eta biodibertsitatea kontserbatzeko eta era jasangarrian erabiltzeko.

b) Jakintza eta aztura horiek erabiltzearen onurak zuzen banatzea sustatuko dute.

c) Biodibertsitatea eta geodibertsitatea kontserbatzeko eta era jasangarrian erabiltzeko esanguratsuak diren jakintza tradizionalen inbentarioak egitea sustatuko dute, eta arreta berezia eskainiko zaie etnobotanikako jakintzei. Natura Ondare eta Biodibertsitatearen inguruko Jakintza Tradizionalen Espainiako Inbentarioan sartuko dira inbentario horiek.

V. TITULUA

**Natura-ondare eta biodibertsitatea ezagutu, kontserbatu eta leheneratzea  
sustatzea**

**71. artikulua.** *Irabazi-asmorik gabeko erakundeentzako laguntzak.*

Ingurumen Ministerioak laguntzak eman ahal izango dizkie estatu mailako irabazi-asmorik gabeko erakundeek, autonomia-erkidego bat baino gehiagori eragiten dieten eta helburua natura-ondarea eta biodibertsitatea kontserbatzea duten ekintzak garatzeko; hala dagokionean, onespina eman beharko dute aldezturik autonomia-erkidegoek, baldin eta ekintza horiek eragina badute autonomia-erkidegoek natura-ondare eta biodibertsitatean egiten duten kudeaketan.

**72. artikulua.** *Lurralde-jagoletza sustatzea.*

1. Lurralde-jagoletza sustatuko dute administrazio publikoek, jagoletza-erakundeen eta lursail pribatu nahiz publikoen jabeen arteko akordioen bidez, eta natura-ondarea eta biodibertsitatea kontserbatzea izango da akordio horien helburu nagusia.

2. Estatuko Administrazio Orokorrek, naturaguneetan dauden lurren titularra denean, akordioak garatu ahal izango ditu, lur horien kudeaketa lurralde-jagoletzako erakundeei lagatzeko, osorik edo zati batean. Erakunde horiek hautatzeko, publikotasun-, objektibotasun-, inpartzialtasun-, gardentasun- eta lehia-printzipioak erabiliko dira. Kudeaketa lagatzeko akordioen iraupena kudeaketaren ezaugarrien arabera mugatuko da, eta ez da berrituko automatikoki; lagapena iraungitakoan, aurreko lagapen-hartzaileak edo hari lotutako pertsonak ez dute izango inolako abantailarik.

Kudeaketa lagatzeko akordio horiek idatziz ezarriko dira, urte anitzeko administrazio-hitzarmen bezala, eta aurreikusi egingo dira hitzarmenean: bai hura garatzeko finantziario-sistema –dela ekarpen ekonomikoaren bidez, edo dela eraikin, ekipamendu, makina, ibilgailu nahiz beste edozein ondasun zein zerbitzuren bidez–, eta baita gutxienezko kudeaketa-gidalerroak ere, aurreko kudeaketa-plan batean ezarritakoak.

**73. artikulua.** *Kanpo-efektuentzako pizgarriak, gune babestuen eta lurralde-jagoletzako akordioen esparruan.*

1. Autonomia-erkidegoek mekanismo eta baldintzak arautuko dituzte, lursailen kanpo-efektu positiboak pizgarriak ezartzeko; lursail horiek babestutzat deklaraturako guneetan egon behar dute, edo lurralde-jagoletzako akordioak eduki behar dituzte lursail horien jabeek, jagoletza-erakundeetan behar bezala formalizatuta. Horretarako, besteak beste, kontuan izango dira ekosistemek eskaintzen dituzten zerbitzu hauek:

a) Kontserbatu, leheneratu eta hobetu egiten dituztela natura-ondarea, biodibertsitatea, geodibertsitatea eta paisaia; kontuan izango dira helburu horietarako berariaz hartutako neurriak, eta arreta berezia eskainiko zaie habitat eta espezie mehatxatuei.

b) Karbono dioxidoa finkatzen dutela eta horrek lagundu egiten duela klima-aldaketa arintzen.

c) Kontserbatu egiten dituztela lurzorua eta erregimen hidrológicoa; hori neurri ona da desertifikazioari aurre egiteko, landare-estaldurak eta ekoizpen-ohiturek lurzorua eta lurrazaleko eta lurpeko ur-baliabideak galdu edo andeatzea saihesten duten neurrian.

d) Akuiferoak berriz betetzen dituztela eta ekidin egiten dituztela arrisku geologikoak.

**74. artikulua.** *Natura Ondare eta Biodibertsiterako Funtsa.*

1. Natura Ondare eta Biodibertsiterako Funtsa sortzen da, lege honen helburuak lortzen laguntzeko neurriak betetzeko eta, halaber, basoak era jasangarrian kudeatzeko, basoetako suteak estrategikoki saihesteko eta Estatuko Administrazio Orokorrek finantzatzen dituen baso eta naturaguneak babesteko.

Urte anitzeko ekintzak finantzatu ahal izango ditu funts horrek, eta lurraldearen kohesioa ziurtatzera bideraturako lagundutako finantziario-akzio bitartekoa izango da. Honako hauekin hornituko da funtsa: Estatuaren Aurrekontu Orokorretan esleitutako aurrekontu-sailekin, helburu berberetara zuzendutako Europako Erkidegoko finantza-bitartekoen laguntzaz finantzatzen diren zuzkidurak barne, eta etorkizunean ezar daitezkeen beste finantziario-iturri batzuekin.

2. Funtsoaren helburuak hauek izango dira:

a) Pizgarri egokien bidez, natura-ondare, biodibertsitate eta geodibertsitatean inbertitadain eta haiek kudea eta antola daitezkeen sustatzea: bereziki, plan, bitarteko eta proiektuen lanketa sustatzea, naturagune babestuak, Natura 2000 Sarea eta nazioarteko bitartekoak babestutako eremuak kudeatzeko; natura-baliabideak antolatzeke, eta Espezie Mehatxatuen Espainiako Katalogoko espezieak *in situ* eta *ex situ* kontserbatzeko.

b) Beste ekintza batzuk garatzea eta beste bitarteko osagarri batzuk sortzea, naturagune babestuak, Natura 2000 Sarea eta nazioarteko bitartekoek babestutako eremuak defendatzen eta haien jasangarritasunari eusten laguntzeko, natura-baliabideak antolatzeke eta Espezie Mehatxatuen Espainiako Katalogoko espezieak kontserbatzeko.

c) Bideragarri bihurtzea natura-ondarea eta biodibertsitatea kontserbatzeko eredu jasangarriak, batik bat naturagune babestuetan, Natura 2000 Sarean eta nazioarteko bitartekoek babestutako eremuetan.

d) Desagertzeko arriskuan dauden habitatak eta katalogatutako espezieak kontserbatzeko estrategia eta planetan jasotako neurriak betearazten laguntzea.

e) Pizgarri egokiak bidez, basoetarako inbertsio, kudeaketa eta antolamendu egokiak sustatzea: batik bat, mendiak antolatzeke proiektuak edo plan dasokratikoak lantzea.

f) Finantza-mekanismoak ezartzea, basogintzan eta ehiza- nahiz arrantza-jardueretan kudeaketa jasangarriko ereduak bideragarri egitera bideratuak.

g) Basoguneen funtzio ekologiko, sozial eta kulturalak eta naturagune babestuei eta Natura 2000 Sareari lotutako gizarte-eta ekonomia-eragileek betetzen dituzten funtzioak balioztatu eta sustatzea, eta laguntza ematea ingurumen-zerbitzuei eta natura-baliabideak kontserbatzeko zerbitzuei.

h) Basoetako suteei aurrea hartzeke ekintzak babestea.

i) Natura-ondare eta biodibertsitatearako larriak diren beste inpaktu batzuk ezabatzeke ekintzak babestea: batik bat, espezie exotiko inbaditzaileak eta habitaten zatikatzea kontrolatu eta desagerrarazteke ekintzak.

j) Baterako baso-ustiaketak garatzeke baso-jabetza multzokatzeak sustatzea, basoak era jasangarrian kudeatzearen alde egiteke.

k) Basoen ziurtagiria lortzeke bultzatzea.

l) Ekintza espezifikokoak finantzatzea, natura-ondarea, biodibertsitatea eta geodibertsitatea kontserbatzeke lotutako ikerketa aplikatua, frogaketan eta esperimendazioan.

m) Lurralde-jagoletzari lotutako ekintza espezifikokoak finantzatzea.

n) Naturagune babestuetatik, Natura 2000 Saretik eta baso ziurtatuetatik datozen produktuen erabilera sustatzea eta haiek ekoitzi eta merkaturatzea babestea.

o) Ohituraz erabiltzen diren jakintza eta azturak zaindu, iraunarazi eta sustatzea, interesekeak direnean natura-ondarea eta biodibertsitatea kontserbatzeke eta era jasangarrian erabiltzeke, besteak beste halakoak aplikatzen dituzten eragileei pizgarriak emateke prozeduraren bidez.

p) Natura-ondarea eta biodibertsitatea defendatzen eta haien jasangarritasunari eusten lagunduko duten beste ekintza eta helburu batzuk garatzea.

q) Ekoizpen ekologikoa bultzatzea naturagune babestuetako, Natura 2000 Sareke eta biosfera-erreserbetako guneetan.

r) Higadura eta desertifikazioari aurrea hartzeke ekintza espezifikokoak finantzatzea, lehenasuna emanez naturagune babestuei, Natura 2000 Sareari eta biosfera-erreserbei.

s) Espainiako natura-ondare eta biodibertsitatearen inbentarioa garatu eta eguneratzeke xedea duten azterketa eta prospekzioak sustatzea.

t) Zabalkunde-ekimenak bultzatzea, Espainiako natura-ondarea kontserbatu eta era jasangarrian erabiltzeke jakintza eta sentsibilizazioan laguntzeke.

3. Funtzaren kontura ematen diren diru-laguntzak kudeatzea autonomia-erkidegoei dagokie; aldezturaz, hitzarmen bidez finkatuko da autonomia-erkidegoekin zein neurri finantzatuko diren batera.

4. Errege-dekretuz arautuko da Natura Ondarerako Funtzaren funtzionamendua, aldezturaz, hitzarmen bidez finkatuko da autonomia-erkidegoei kontsulta egin ondoren, eta bermatu egingo da Funtzean haiek partaide izatea, batez ere beren eskumenetan eragina duten Funtzaren helburu guztietan.

5. Berariazko araudia edukiko dute nekazaritza-, abeltzaintza- eta basogintza-jardueretarako landa-garapeneko laguntzek eta NPB Nekazaritzako Politika Bateratuaren laguntzen baldintzek; hala ere, Ingurumen Ministerioaren txostena eskatuko du Nekazaritza, Arrantza eta Elikadura Ministerioak, honako hauei eragiten dieten gaitan: Natura 2000 Sareko babesguneei, basahegaztien kontserbazioaren inguruko Kontseiluaren 1979ko apirilaren 2ko 79/409/EEE Zuzentarauari edo habitat naturalak eta basafauna eta basafloa kontserbatzearen inguruko 1992ko maiatzaren 21eko 92/43/EEE Zuzentarauari.

## VI. TITULUA

### Arau-hausteak eta zehapenak

#### **75. artikulua.** *Xedapen orokorrak.*

1. Lege honetan ezarritakoa hausten duten ekintza nahiz ez-egiteek administrazio-erantzukizuna sortuko dute. Horrek ez du kentzen bide penaletik, zibiletik edota besteren batetik eska daitekeen erantzukizuna.

2. Kasu bakoitzean ezartzekoak diren zehapen penal edo administratiboak betetzeaz gain, egindako kaltea konpondu egin beharko du arau-hausleak, Ingurumen Erantzukizunaren 2007ko urriaren 23ko 26/2007 Legean ezarritako eran eta baldintzetan. Konpondu ezin diren kalte eta galerengatik kalte-ordaina ematera behartuta egongo da arau-hauslea, dagokion ebazpenak adierazten duen eran.

3. Titulu honetan araututako arau-hauste eta zehapenak zehazteko, balioztatu egin beharko dira ingurumenari egindako kalteak, Ingurumen Erantzukizunaren 2007ko urriaren 23ko 26/2007 Legean aipatzen den ebaluazio-metodoaren eta lege hori garatzen duten xedapenen arabera.

4. Ezin bada zehaztu zenbateko parte-hartzea izan duen arau-haustea egin duen pertsona bakoitzak, erantzukizuna solidarioa izango da; hala ere, ordaindutakoa gainerako parte-hartzaileei berreskatzeko eskubidea izango dute erantzukizunei aurre egin dietenek.

5. Ezein kasutan ezin ezarriko da zehapen bikoitzik egitate berberengatik eta babestutako interes publiko berberen izenean, baina, aldi berean beste egitate edo arau-hausterik izan bada, haien ondoriozko erantzukizunak ere galdatu beharko dira.

#### **76. artikulua.** *Arau-hausteen tipifikazioa eta sailkapena.*

1. Lege honen ondorioetarako, eta autonomia-erkidegoetako legerian honen inguruan xedatzen dena gorabehera, arau-hauste administratibotzat hartuko dira honako hauek:

a) Produktu kimiko edo substantzia biologikoak erabiltzea, likido zein solidoak botatzea, hondakinak barreiatzea eta betelanetarako elementu solidoak uztea, baldin eta ekosistemen baldintzak aldatu eta haien balioei kalte egiten badiete, edo horretarako arriskua badakarte.

b) «Galzoriko»tzat katalogatutako flora eta faunako espezieak edo haien propagulu nahiz gorpuzkiak baimenik gabe suntsitu, hil, hondatu, bildu, salerosi edo trukatzeko, saldu edo trukatzeko xedez harrapatu eta eskaintzea edo naturalizatzea.

c) Desagertzeko Arriskuan dauden Habitaten Espainiako Katalogoan «desagertzeko arriskuan» kategorian dauden habitatak deuseztatu edo narriatzea.

d) «Galzorian» dauden espezieen habitata deuseztatzea; bereziki, ugaldu, negua eman, pausatu, bizi edo elikatzeko darabiltzaten lekuak.

e) Batasunaren intereseko habitaten lehenetsuzko osagaiak nabarmen deuseztatu edo narriatzea.

f) Espezie Exotiko Inbaditzaileen Espainiako Katalogoan jasotako espezie aloktonoak sartzea, administrazio-baimenik gabe.

g) Naturagune babestu baten baldintzak edo han berezkoak diren produktuak aldatzea, lurra okupatu nahiz urratuz, landareak moztu nahiz errotik ateraz edota bestelako ekintzaren batzuek.

h) Naturagune babestuetan publizitate-kartelak jartzea edo paisaia-inpaktu nabarmenak sortzea.



i) Batasunaren intereseko habitaten lehentasunezko osagaiak narriatu edo nabarmen aldatzea edo osagai horiek deuseztatzea, edo nabarmen narriatzea Batasunaren intereseko habitaten gainerako osagaiak.

j) «Kaltebera»tzat katalogatutako flora eta faunako espezieak edo haien propagulu nahiz gorpuzkiak baimenik gabe suntsitu, hil, hondatu, bildu, eduki, salerosi edo trukatzea, saldu edo trukatzeko xedez harrapatu eta eskaintzea edo naturalizatzea.

k) Espezie kalteberen habitatak deuseztatzea: bereziki, ugaltu, negua eman, pausatu, bizi edo elikatzeke lekuak eta basafiora eta basafaunaren babes bereziko eremuak.

l) Basafaunako espezieak justifikaziorik gabe harrapatzea edo jazartzea eta florako espezieak errotik ateratzea edo moztea, baldin eta administrazio-baimena beharrezkoa bada mendien, ehizaren eta arrantza kontinentalaren legeriako berariazko araudiaren arabera eta baimen hori eskuratu ez bada.

m) Babes Bereziko Espezieen Zerrendan sartuta eta katalogatu gabe dauden flora eta faunako espezieak edo haien propagulu nahiz gorpuzkiak baimenik gabe suntsitu, hil, hondatu, bildu, eduki, salerosi edo trukatzea, saldu edo trukatzeko xedez harrapatu eta eskaintzea edo naturalizatzea.

n) Babes Bereziko Espezieen Zerrendan sartuta eta katalogatu gabe dauden espezieen habitata deuseztatzea; bereziki, ugaltu, negua eman, bizi edo elikatzeke lekuak.

o) Hegazti-espezieak nahita asaldatu, hil, harrapatu eta atxikitzea, ugaltu eta kumeak hazteko aldietan eta, espezie migratzaileen kasuan, umatzeko tokietarantz itzultzeke egiten duten ibilaldian zehar.

p) Batasunaren intereseko habitaten lehentasunezko osagaiak aldatzea edo Batasunaren intereseko habitaten gainerako osagaiak narriatzea.

q) Ehizan eta kirol-tiroan aritzean beruna duen munizioa edukitzea eta erabiltzea, baldin eta jarduera horiek honako eremu hauetan egiten badira: Nazioarteko Garrantziko Hezeguneen inguruko Hitzarmeneko Zerrendan jasotako hezeguneetan, Natura 2000 Sareko eremuetan edo naturagune babestuetakoetan.

r) Ez betetzea lege honetan xedatzen diren gainerako baldintza, betebehar edo debekuak.

s) Ez betetzea naturagune babestuak eta Natura 2000 Sareko gune babestuak erregulatzeko aruetan eta kudeaketa-bitartekoetan -planak barne- ezarritako betebeharrak eta debekuak.

t) Tanga-ontziak etengabe ainguratuta egonik erregaia hornitzea edo metatzea naturagune babestuetako eta Natura 2000 Sareko gune babestuetako uretan, erregai hori hartzea, eta aipatutako tanga-ontziak erregaiz hornitzea.

Etengabe ainguratuta dagoela ulertuko da, nahiz eta ontzia noizean behin aldi batean ez egon, edo haren orde z enpresa, armadore nahiz talde beraren beste ontzi bat jarri, baldin eta ainguratzearen helburua erregaia hornitzeko biltegi izatea bada.

## 2. Aurreko zenbakian jasotako arau-hausteak honela kalifikatuko dira:

a) Oso astun gisa: a), b), c), d), e), f), s) eta t) letretan jasota daudenak, baldin eta kalteak 100.000 eurotik gorakoak badira; beste letretako guztiak, baldin eta kalteak 200.000 eurotik gorakoak badira; eta berrerortzea, baldin eta arau-hauste astun bat egiten bada, aurretik egin eta zehatu zen beste arau-hauste baten mota berekoa, zehapen hura jakinarazi ondorengo bi urteetan, eta zehatzeko ebazpena irmoa bada administrazio-bidean.

b) Astun gisa: a), b), c), d), e), f), g), h), i), j), k), l), m), n), s) eta t) letretan jasota daudenak, oso astun gisa hartzen ez badira; eta berrerortzea, baldin eta arau-hauste arin bat egiten bada, aurretik egin eta zehatu zen beste arau-hauste baten mota berekoa, zehapen hura jakinarazi ondorengo bi urteetan, eta zehatzeko ebazpena irmoa bada administrazio-bidean.

c) Arin gisa: o), p), q) eta r) letretan jasota daudenak.

**77. artikulua.** *Zehapenen sailkapena.*

1. Aurreko artikuluan tipifikatutako arau-hausteak isun hauekin zehatuko dira:

- a) Arau-hauste arinak, 500 eta 5.000 euro bitarteko isunekin.
- b) Arau-hauste astunak, 5.001 eta 200.000 euro bitarteko isunekin.
- c) Arau-hauste oso astunak, 200.001 eta 2.000.000 euro bitarteko isunekin; eta gehieneko zenbatekoa handitu egin ahal izango dute autonomia-erkidegoek.

2. Zehapenak ezartzean, behar bezalako proportzioari eutsi behar zaio arau-haustea den egitatearen astuntasunaren eta aplikatutako zehapenaren artean, honako irizpide hauek kontuan hartuta: jokaera arau-hausleak dakarren arriskuaren larritasuna eta ondorioak; eragindako kalteen zenbatekoa, halakorik balego; kalteen garrantzia, pertsonen segurtasunari edo lege honek babesten dituen ondasunei dagokienez; erantzulearen egoera; arau-hauslearengan edo arau-hausleengan ikusitako nahitasun-maila; eta, hala badagokio, jokaera arau-hauslearen ondorioz bidegabeki lortutako onura, bai eta eragindako kalte edo narriaduren konponezintasuna.

3. Lege honetan tipifikatutako arau-hausteak zehatzea autonomia-erkidegoetako organo eskudunen ardura izango da.

Estatuko Administrazio Orokorraren eskumena da, Ingurumen Ministerioaren bitartez, zehapenak ezartzea, baldin eta arau-hauste administratiboa bere eskumenen esparruan gertatu bada.

**4. (Ezabatua)**

5. Hertsapen-isunak jartzea erabaki dezake administrazio instruktoreak, eta errepikatu egin ditzake isunak, agindutakoa betetzeko behar besteko denbora-tarteak emanda, baldin eta arau-hausleek ez badute kaltea konpondu edo ordaintzen, 75. artikuluan ezarritakoaren arabera. Hertsapen-isun horiek jartzeko, adierazi egin behar da errekerimenduan betebeharra betetzeko zer epe dagoen eta jar daitekeen isuna zenbatekoa den. Nolanahi ere, epeak aski izan behar du betebeharra betetzeko. Hertsapen-isuna jarri ondoren ere jarraitu egiten badu isuna jartzeko arrazoi izan den araua bete gabe, behar den adina alditan errepikatu ahal izango da isuna, betebeharra bete arte; errekerimendu berrietan ezarritako epea inoiz ez da izango aurrengoan ezarritakoa baino laburragoa. Hertsapen-isunak apartekoak dira, eta bateragarriak dira zehapen moduan jar daitezkeenekin.

6. Estatuko Administrazio Orokorraren esparruan, hertsapen-isun horiek 3.000 eurokoak izango dira, gehienez jota.

7. Gobernuak, errege-dekretu bidez, eguneratu egin ahal izango ditu artikuluko honetako 1. zenbakian ezarritako zehapenak, kontsumoko prezioen indizeek izandako gorabeherak kontuan hartuta.

**78. artikulua.** *Erantzukizun penala.*

Arau-hausteak delitu edo falta izan daitezkeenean, eskumena duen organo jurisdikzionalari pasatuko dio erruduntasun-testigantza administrazio instruktoreak, eta ez dio jarraituko zehatzeko prozedurari, harik eta agintaritza judizialak prozedura amaitzen duen epai irmoa edo ebazpena eman arte. Agintaritza judizialak zehapena ezartzen badu, ez da ezarriko administrazio-zehapenik, subjektuaren, egitatearen eta oinarriaren identitatea hautematen diren kasuetan. Delitu edo faltarik ez dela egon irizten bazaio, administrazioak jarraitu ahal izango dio zehapen-espediteari, oinarri gisa jurisdikzio eskudunak frogatutzat hartu dituen gertaerak hartuta.

**79. artikulua.** *Arau-hauste eta zehapenen preskripzioa.*

1. Lege honetan oso astuntzat jotako arau-hausteez bost urtera preskribatuko dute, astuntzat jotakoek hiru urtera, eta arintzat jotakoek urtebetera.

2. Arau-hauste oso astunak egiteagatik ezarritako zehapenek bost urtera preskribatuko dute, eta falta astun edo arinengatik ezarritakoek hiru urtera eta urtebetera preskribatuko dute, hurrenez hurren.

## 80. artikulua.

Zehatu egingo dira lege honetan tipifikatutako arau-hauste administratiboak diren ekintzen edo ez-egiteen erantzule diren pertsona fisiko edo juridiko publiko edo pribatuak, honako hauek barne, halakorik balego: jarduera arau-hauslearen sustatzaileak, arau-haustea egiten duten enpresaburuak, arau-haustea zuzentzen duten teknikari zuzendariak, bai eta beste edozein pertsona ere, egiteagatik edo ez-egiteagatik esku hartzen duena edota arau-haustea egiteko ezinbesteko parte-hartzaile dena.

**Lehen xedapen gehigarria.** *Estatuko Administrazio Orokorrak itsasoko gune, habitat eta espezieen gainean dituen eskumenak betetzea.*

Itsas eremu, habitat eta espezieen gaineko estatuaren eskumenak betetzeko, hurrengo paragrafoetan ezarritakoari lotuko zaio:

a) Estatuko Itsas Arrantzaren 2001eko martxoaren 26ko 3/2001 Legearen I. tituluan eta II. eta III. kapituluetan ezarritakoaren arabera arautuko da edozein naturagune babestutako kanpoko uretako arrantza-baliabideak babestu, kontserbatu eta birsortzea.

b) Mugak edo debekuak ezarriko dizkio Gobernuak naturagune babestuetako kanpoko uretako arrantza-jarduerari, ingurumen-araudian finkatutako irizpideen arabera, 3/2001 Legearen 18. artikuluan xedatutakoa betez.

c) Gobernuak bete egingo ditu itsas uretako naturagune babestuetan merkataritza-itsasketaren gaian ezarritako muga edo debekuak, Estatuko Portuen eta Merkataritza Itsasketaren 1992ko azaroaren 24ko 27/1992 Legean xedatutakoaren arabera.

d) Estatuko Administrazio Orokorrak jurisdikziopeko uretan, barruko uretan, ekonomia-eremuan eta plataforma kontinentalean dituen eginkizunak –defentsan, arrantza eta itsas hazkuntzan, merkataritza-itsasketan, hondarrak ateratzen, Espainiako arkeologia-ondarea babesten, baliabideak ikertu eta ustiatzen edota lege honetan arautu gabeko beste gai batzuetan– eginkizun horien ardura duten sail edo erakundeek beteko dituzte, lehendik betetzen dituzten moduan, ezertan galarazi gabe berariazko legerian edo nazioarteko hitzarmenetan ezarritakoa, halakoak aplikagarri direnean.

e) Koordinazioa sustatuko da biodibertsitatea eta paisaia kontserbatu eta era jasangarrian erabiltzeko politiken eta ikerkuntza-programa nazionalen artean.

**Bigarren xedapen gehigarria.** *Kontserbazio-neurri gehigarriak tokiko esparruan.*

Natura-ondare eta biodibertsitatea kontserbatzeko neurri arautzaile edo administratiboak ezarri ahal izango dituzte toki-erakundeek, beren eskumenen esparruan eta estatuko nahiz autonomia-erkidegoko legerietan xedatutakoaren barruan.

**Hirugarren xedapen gehigarria.** *Arrantza-baliabideak eta nekazaritzarako eta elikadurarako baliabide fitogenetiko eta zoogenetikoak.*

Lege honen aplikazio-eremutik kanpo daude:

a) Nekazaritzarako eta elikadurarako baliabide fitogenetikoak (haztegiko hazi eta landareen eta baliabide fitogenetikoaren 2006ko uztailaren 26ko 30/2006 Legeak arautzen ditu).

b) Arrantza-baliabideak (Estatuko Itsas Arrantzaren 2001eko martxoaren 26ko 3/2001 Legeak arautzen ditu).

c) Nekazaritzarako eta elikadurarako baliabide zoogenetikoak (beren berariazko araudiaren arabera kudeatuko dira).

**Laugarren xedapen gehigarria.** *Natura Ondare eta Biodibertsitaterako Estatuko Batzordea eta Natura Ondare eta Biodibertsitaterako Estatuko Kontseilua.*

1. Lege honen 7. artikuluan sortzen den Natura Ondare eta Biodibertsitaterako Estatuko Batzordeak bere gain hartzen ditu Natura Babesteko Batzorde Nazionalaren funtzioak.

2. Lege honen 8. artikuluan sortzen den Natura Ondare eta Biodibertsitaterako Estatuko Kontseiluak bere gain hartzen ditu Basoen Kontseilu Nazionalaren funtzioak.

3. Hala ere, Natura Babesteko Batzorde Nazionalak eta Basoen Kontseilu Nazionalak jarraitu egingo dute beren funtzioak betetzen, harik eta Natura Ondare eta Biodibertsitaterako Estatuko Batzordearen eta Natura Ondare eta Biodibertsitaterako Estatuko Kontseiluaren garapen-arauak onetsi arte.

**Bosgarren xedapen gehigarria.** *Aldi baterako mugak, legeak arautzen dituen jardueretan.*

Espainia partaide den nazioarteko tratatu eta hitzarmenak betetzeko, aldi baterako mugak ezarri ahal izango ditu Gobernuak lege honetan arautzen diren jardueri lotuta, autonomia-erkidegoei dagozkien eskumenak galarazi gabe.

**Seigarren xedapen gehigarria.** *NKNB-MEDen araubidea.*

1. Aitortu egiten zaio onura publikoko elkarte izaera Natura Kontserbatzeko Nazioarteko Batasunaren Mediterraneoko Lankidetzaren Zentroari (aurrerantzean, NKNB-MED), bere estatutuaren ezarritako helburuaren arabera, Elkartzeko Eskubidea arautzen duen 2002ko martxoaren 22ko 1/2002 Lege Organikoaren 33. artikuluan xedatutakoan oinarrituta.

2. NKNB-MEDen lokal, bulego eta artxiboak ezin bortxatuzkoak izango dira. Ezingo da haietara sartu edo haietan miaketarik egin, zuzendari nagusiaren edo hark baimentzen duen ordezkariaren baimenik eduki ezean, ezertan galarazi gabe Konstituzioan eta legeetan xedatutakoa.

3. NKNB-MEDeko enplegatuak, edozein nazionalitate izanda ere, sartu egingo dira Espainiako Gizarte Segurantzaren sisteman. Hala ere, betebeharrak horretatik libratu egingo da Espainia, baldin eta ziurtatzen bada badagoela gizarte-babeseko beste araubide baten estaldura, hedaduraz eta intentsitatez gutxienez Espainiako Gizarte Segurantzaren sistemak eskaintzen dituen prestazioen baliokideak ematen dituenak.

4. Xedapen gehigarri hau aplikatzean, ez da baztertuko Europako Erkidegoko araudian eta Espainiak onetsitako nazioarteko hitzarmenetan xedatutakoa.

**Zazpigarren xedapen gehigarria.** *Dibertsitate biologikoaren gaineko teknologia ikertu eta besterentzea.*

Dibertsitate biologikoa eta lege honen helburuen gaineko ikerketa-programak garatzea bultzatuko dute administrazio publikoek.

Dibertsitate Biologikoari buruzko Hitzarmenaren 16., 17. eta 18. artikulua aplikatuz, administrazio publikoek bermatu egingo dute lankidetzaren zientifiko-teknikoa biodibertsitatea kontserbatu eta era jasangarrian erabiltzearen alorrean, bai eta eskualdatze-politika egokien bidez teknologia eskuragarri edukitzea ere –bioteknologia eta horri lotutako ezagutza barne–.

**Lehenengo xedapen iragankorra.** *Espezie Mehatxatuen Espainiako Katalogoko espezieak (ezabatutako kategorietan katalogatutakoak).*

Espezieren bat Espezie Mehatxatuen Espainiako Katalogoan sartuta badago eta 55. artikuluan araututa ez dagoen kategoriaren batean katalogatuta, espezie horiek sailkapen horri eutsiko diote, lege hau indarrean sartzeko unean indarrean dagoen araudiak ezartzen dituen ondorioekin, araudi hori lege honetara egokitzen ez den bitartean.

**Bigarren xedapen iragankorra.** *Lege honen edukietara egokitutako kudeaketa-plan eta -bitartekoak onetsi eta argitaratzeko epea.*

Hiru urteko epean, onetsita eta argitaratuta egon beharko dute lege honetan jasotzen diren edukietara egokitutako plan edo kudeaketa-bitartekoak; horretarako, dagozkion baliabideak emango ditu Gobernuak lagundutako finantziatorako Natura Ondare eta Biodibertsitaterako Funtsean.

**Hirugarren xedapen iragankorra.** *Lege hau indarrean sartzen den uneko arau eta bitartekoak.*

Lege honetan xedatutakoa garatu eta aplikatzeko arau eta bitartekoak onesten ez diren bitartean, indarrean jarraituko dute lehendik daudenek, legearen aurka ez doan guztian.

**Xedapen indargabetzailea.** *Arauk indargabetzea.*

1. Indargabetuta geratzen dira lege honetan xedatutakoaren aurkakoak diren xedapen orokorrak, eta, bereziki, 4/1989 Legea –1989ko martxoaren 27koa, Naturaguneak eta Basaflora eta Basafauna Kontserbatzekoa–, 10/2006 Legearen lehen xedapen gehigarria – 2006ko apirilaren 28ko lege horren bidez aldatu egiten da Mendien 2003ko azaroaren 21eko 43/2003 Legea– eta 1997/1995 Errege Dekretuaren I., II., III., IV., V. eta VI. eranskinak – 1995eko abenduaren 7ko errege-dekretu horren bidez, neurriak ezartzen dira, habitat naturalak eta basafauna nahiz basaflora kontserbatuz biodibertsitatea bermatzen laguntzeko–.

2. Orobat, apeuarekin ehizatzeari dagokionez, indargabetu egiten dira artikulua hauek:

Ehizaren 1970eko apirilaren 4ko Legearen 23.5 a), b), eta c), 31.15 eta 34.2 artikulua eta Ehizaren Legea betearazteko Erregelamendua onesten duen 1971ko martxoaren 25eko 506/1971 Dekretuaren 25.13 a), b) eta c), 33.15, 33.18, 33.19, 37, 48.1.15, 48.2.17, 48.2.31 eta 48.3.46 artikulua.

**Azken xedapenetatik lehenengoa.** *Itsasbazterren 1988ko uztailaren 28ko 22/1988 Legea aldatzea.*

Itsasbazterren 1988ko uztailaren 28ko 22/1988 Legearen 84. artikulua idatzera hau izango du:

**«84. artikulua.**

1. Emakida edo baimen baten ondorioz itsaso eta lehorraren arteko jabari publikoan egiten den okupazio edo ustiapen orok Estatuko Administrazioaren aldeko kanona sortuko du, kontuan hartu gabe zein administraziook eman duen emakida edo baimena, eta hark galda ditzakeen kanonak gorabehera.

2. Kanona ordaindu behar dute, lege honetan ezarritako zenbatekoan eta baldintzetan, arestian aipatu emakiden eta baimenen titularrek.

3. Okupatu eta ustiatutako ondasunaren balioa izango da zerga-oinarria, eta honela zehaztuko da:

a) Itsaso eta lehorraren arteko jabari publikoko ondasunak okupatzeagatik, ondasun horien zortasunguneen ondoko lursailei zerga-ondoretarako esleitu zaien balioarekin parekatuko da okupatutako ondasunaren balioa, eta jabari hori erabiltzean lortuko direla aurreikusten den etekinak gehituko zaizkio balio horri. Obra eta instalazioen kasuan, haien balio materiala hartuko da aintzat. Meatze- eta energia-baliabideak ikertu edo ustiatzeko jurisdikziopeko uretan egiten diren obra eta instalazioen kasuan, 0,006 euroko kanona ordainduko da okupatutako azaleraren metro koadro bakoitzeko.

b) Itsaso eta lehorraren arteko jabari publikoko ondasunak ustiatzeagatik, ondasunaren balioa ustiatutako materialen balioa izango da, merkatuko batez besteko prezioetan.

4. Itsas hazkuntzaren kasuan, itsaso eta lehorraren arteko jabari publikoa okupatu eta ustiatzeagatik kanonaren zerga-oinarria erregela hauen arabera kalkulatu da:

a) Okupatutako lursailen balioa metro koadroko 0,006 euro izango da.

b) Itsaso eta lehorraren arteko jabari publikoa erabiltzean lortuko direla aurreikusten den etekinei dagokienez, koefiziente hauek hartuko dira kontuan:

1. motakoak. Jurisdikziopeko eta barruko uretako itsas haztegiak: 0,4 €/m<sup>2</sup>. 2. motakoak. Itsasoaren eta itsasadarren ur-bazterreko itsas haztegiak: 0,16 €/m<sup>2</sup>.

3. motakoak. Lehorrean dauden itsas haztegietatik itsas ura hartu eta ateratzeko egiturak: 5 €/m<sup>2</sup>.

Bi kasuetan, Ingurumen Ministerioaren agindu bidez berraztertuko dira zenbatekoak, kontsumoko prezioen indizeen sistemako Indize Nazional Orokorrak izandako aldaketak kontuan hartuta.

5. Urteko karga-tasa ehuneko 8koa izango da oinarriaren balioaren gainean, salbu eta ustiapena dagoenean; kasu horretan, karga-tasa ehuneko 100ekoa izango da.

6. Lege honetan eta berau garatzeko araudian xedatutakoa hartuko da kontuan kirol- edo arrantza-portuak eraikitzeke esleitutako itsaso eta lehorraren arteko jabari publikoan autonomia-erkidegoek ematen dituzten emakidek Estatuko Administrazio Orokorren alde sortuko duten okupazio-kanona kalkulatzeko. Kanonaren zerga-oinarria lortzeko erabiltzen den etekinaren kalkulua ez da izango inola ere eskatzaileak egin beharreko inbertsioaren ehuneko 3,33 baino txikiagoa.

7. Kanona ehuneko 90 murriztu ahal izango da okupazioen kasuan, okupazioak doako erabilera publikora bideratzen direnean.

Akuikulturaren sektorean ingurumen-jardunbide hobeak bultzatzeko xedez, ehuneko 40 murriztuko da kanona, Europako Erkidegoko EMAS ingurumen kudeaketa- eta ikuskaritza-sistemara modu iraunkor eta jarraituan atxikitako emakidadunen kasuan. Kudeatzeko sistema horretara atxikita ez badaude, baina ingurumena kudeatzeko UNE-EN ISO 14001:1996 sistema baldin badute, ehuneko 25eko murrizketa bat izango dute emakidadunek.

8. Autonomia-erkidegoak eta toki-korporazioak salbuetsita egongo dira okupazio-kanona ordaintzetik, eurei ematen zaizkien emakida eta baimenei dagokienez, betiere, halakoak ez badira ustiatzen irabazteko asmoarekin, zuzenean edo hirugarrenen bidez. Halaber, lege honen 54. artikulua 2. zenbakian xedatutako kasuetan ere ez dute kanon hori ordaindu beharko.

9. Aurreko zenbakietan ezarritako irizpideen arabera kalkulatu da zenbateko kanona sortzen den, emakida edo baimena lehendabiziko aldiz ematen denean eta hari eusten zaion urte bakoitzean ordainduko da kanona, eta emakida edo baimen horren baldintzetan aipatu epeetan eskatuko da kanon hori, dagokion zenbatekoan. Ustiapena dagoenean, ustiapena gauzatzen denean ordainduko da kanona.

Urtebetetik gorako iraupena duten emakiden kasuan, kanon hori urtero eguneratuko da modu automatikoan, kanona ezarri edo berraztertu baldin bada Herri Lan eta Garraio Ministerioak 1992ko urriaren 30ean emandako Agindua aplikatuz –itsaso eta lehorraren arteko jabari publikoaren okupazio- eta ustiapen-kanonaren zenbatekoa ezartzen duena–. Kanona eguneratzean, handitu edo txikitu egingo da indarrean dagoen kanonaren oinarria, oinarri horri aplikatuz azken hamabi hilabeteetan Kontsumoko Prezioen Indize Sistemaren barruko Indize Nazional Orokorrak izandako aldaketak, urteko lehenengo eguna baino lehenago argitaratutako datuen arabera. Titulu bakoitzean ezarritako baldintzetan finkatutako epeen barruan eskatzekoa izango da azaldutakoaren arabera eguneratutako oinarria duen kanonaren zenbatekoa.

Urtebete baino gehiagoko emakidei dagokienez, kanona ez bazaie ezarri edo berraztertu 1992ko urriaren 30eko agindua aplikatuta, haren arabera berraztertuko dira alde aurretik. Berraztertu ondoren, urtero eguneratuko da kanona, aurreko paragrafoan xedatutako moduan.»

### **Azken xedapenetatik bigarrena. Eskumen-titulua.**

1. Lege hau ingurumena babestearren gaineko oinarritzko legeriakoa da, Konstituzioaren 149.1.23 artikuluan xedatutakoaren arabera, xedapen hauetan izan ezik: 68. artikulua, kanpo-merkataritzaren gaineko legeriakoa baita, Konstituzioaren 149.1.10 artikulua babesean emana, eta seigarren xedapen gehigarria, nazioarteko harremanen arloko eskumen eskusiboa baita, 149.1.3 artikulua babesean emana.

2. Ez dira oinarritzkoak 72.2 artikulua eta lehen xedapen gehigarria; xedapen horiek Estatuko Administrazio Orokorri, haren erakunde publikoei eta estatu-agentziei bakarrik aplikatuko zaizkie.



**Azken xedapenetatik hirugarrena.** 2001eko uztailaren 20ko 1/2001 Legegintzako Errege Dekretuak onetsitako Uren Legearen testu bategina aldatzea.

2001eko uztailaren 20ko 1/2001 Legegintzako Errege Dekretuaren bidez onetsi zen Uren Legearen testu bateginaren 13. artikulua idazkera hau izango du:

**«13 artikulua. Gezatzea: kontzeptua eta baldintzak.**

1. Oro har, lege honetan jabari publiko hidraulikoaren erabilera pribatiborako ezartzen den araubide orokorraren mende geratzen da ur gazi edo gazikara geatzeko jarduera, ezertan galarazi gabe Itsasbazterren 1988ko uztailaren 28ko 22/1988 Legearen arabera beharrezkoak diren jabari-baimen eta -emakidak eta aplikatzeko den legeria sektorialaren arabera ematekoak diren gainerakoak.

2. Interes orokorreko deklaraturako estatuko geatzeko obra eta instalazioak zuzenean ustiatu ahal izango dituzte Ingurumen Ministerioaren organoek, konfederazio hidrografikoek edo Lege honen VIII. tituluko II. kapituluari aipatzen diren estatuko sozietateek. Era berean, 125. artikuluan ezarritakoaren arabera, erabiltzaile-komunitateek edo erabiltzaileen batzorde zentralak aukera edukiko dute beraiei eragiten dieten geatzeko-obra eta -instalazioen zuzeneko onuradun izateko, aurreko esaldian aipaturako erakundeekin berariazko hitzarmen bat sinatuta.

3. Gezatutako uren emakidak Estatuko Administrazio Orokorra emanango ditu, baldin eta ur horiek erkidego arteko demarkazio hidrografiko batean erabiltzeko badira.

2. zenbakian azken esaldian aipatzen den berariazko hitzarmena izenpetzen bada, gezatutako uren emakidak zuzenean eman ahal izango zaizkie erabiltzaile-komunitateei edo erabiltzaileen batzorde zentralari.

4. Erregelamenduz zehazten den moduan, espediente bakar batean tramitatutako dira Estatuko Administrazio Orokorreko bi organo edo erakundeak edo gehiagok eman behar dituzten baimen eta emakidak.

5. Emakida zuzenean eta eskusiboki emakidadunak erabiltzen ez badu, tarifen gehieneko eta gutxieneko balioak onetsiko ditu emakida esleitu duen administrazioak; obren amortizazio-kuotak sartu beharko dira balio horietan.

6. Lege honen 71. artikuluan aipatzen diren ura erabiltzeko eskubideak trukatzeko zentroen operazioetan parte hartu ahal izango dute geatzeko jardueraren eta gezatutako uren emakidadunek, baldin eta eskubideak Uren Erregistroan inskribatuta badauzkate.»

**Azken xedapenetatik laugarrena.** 2001eko uztailaren 20ko 1/2001 Legegintzako Errege Dekretuak onetsitako Uren Legearen testu bategina aldatzea.

2001eko uztailaren 20ko 1/2001 Legegintzako Errege Dekretuaren bidez onetsi zen Uren Legearen testu bateginaren 19. artikulua idazkera hau izango du:

**«19. artikulua. Uraren Kontseilu Nazionala.**

1. Uraren gaian kontsulta eta parte-hartzeen organo gorena Uraren Kontseilu Nazionala da.

2. Uraren Kontseilu Nazionaleko partaide dira:

- Estatuko Administrazio Orokorra.
- autonomia-erkidegoak.
- Toki-erakundeak, estatuan sendoen sustraituta dagoen elkartearen bidez.
- Arroko erakundeak.
- Uraren erabilerei lotutako profesionalen eta ekonomiaren arloko erakundeen artetik, estatuan ordezkariarik handiena dutenak.
- Estatuan ordezkariarik handiena duten erakunde sindikal eta enpresarialak.

- lege honen helburuak lortu nahi dituzten irabazi-asmorik gabeko erakundeei,

3. Uraren Kontseilu Nazionaleko presidentetza Ingurumen Ministerioko titularrari dagokio.

4. Kontseiluaren eraketa eta egitura organikoa errege-dekretuz xedatuko dira».

**Azken xedapenetatik bosgarrena.** *Itsasbazterren 1988ko uztailaren 28ko 22/1988 Legea aldatzea.*

Bat. Bederatzigarren xedapen gehigarria gehitzen zaio Itsasbazterren 1988ko uztailaren 28ko 22/1988 Legeari, eta idazkera hau izango du:

**«Bederatzigarren xedapen gehigarria.** *Itsas ingurunera substantzia arriskutsuak isurtzeagatiko kutsadura murriztea.*

1. Ingurune hartzailearen kalitate-helburuak, neurketa-metodoak eta kontrol-prozedurak ezartzen dira, I. eranskinean jasotako substantzia arriskutsu bat edo batzuk izan ditzakeen isurketa bat lehorretik itsasbazterreko barruko uretara eta jurisdikziopeko uretara egiten den kasuetarako, itsas ingurunera substantzia arriskutsuak isurtzearen ondoriozko kutsadura gutxitzeko, eta ingurumena babestearen gaian oinarritzko legeria izateko, Konstituzioaren 149.1.23 artikulua babesean. Honako baldintza hauekin ezartzen dira kalitate-helburuak, neurketa-metodoak eta kontrol-prozedurak:

a) I. eranskineko substantzia arriskutsuei dagokienez, gutxienez eranskin horretan zehazten diren kalitate-helburuak bete beharko dira ingurune hartzailean.

I. eranskinean ezarritako kalitate-helburuak gainditzea onartu egin ahal izango da, honako kasu hauetan:

a') Egiaztatzen denean substantzia horiek aberastu egiten dituztela urak modu naturalean.

b') Ezinbesteko kasuetan.

b) II. eranskinean ezarritako erreferentziazko neurketa-metodoak erabili beharko dira I. eranskineko substantzia arriskutsu bakoitzaren presentzia zehazteko, eta aplikatutako metodoaren zehaztasuna, doitasuna eta kuantifikazio-muga ere II. eranskinekoak izango dira.

c) I. eranskineko substantzientzat finkatutako kalitate-helburuak betetzen diren behatzeko, III. eranskinean ezarritako kontrol-prozedura erabiliko da.

2. Autonomia-erkidegoetako organo eskudunek emandako isurketa-baimenetan, isurietan ageri den I. eranskineko substantzia arriskutsu bakoitzari dagokion gehieneko isuri-balioa zein den ezarriko da; balio horiek kalkulatzeko, kontuan hartuko dira bai eranskin horretan jasotzen diren kalitate-helburuak eta baita, haien osagarri, autonomia-erkidegoek finkatzen dituzten edo dagoeneko finkatuta dituzten helburuak ere.

3. Baimenetan eta haien aldaketetan jasoko dira aurreikusitako jarduerak eta jarduera horiek gauzatzeko epeak, xede hauekin: xedapen gehigarri honetan eta autonomia-erkidegoaren arautegian ezarritako kalitate-helburuak erdieste eta isurien ezaugarriak baimenetan edo haien aldaketetan finkatutako mugei egokitzea. Horretarako, erabilgarri dauden teknikarik onenak hartuko dira kontuan, eta berariazko xedapenak gehitu ahal izango dira, substantzien edo substantzia-multzoen eta produktuen konposizioaren eta erabileraren ingurukoak.

4. Xedapen gehigarri hau aplikatzean hartzen diren neurrien ondorioa inoiz ez da izango kutsadura gehitzea, zuzenean edo zeharka, ur kontinentaletan, lurrazaleko nahiz lurpeko uretan edo itsas uretan.

5. Ingurumenaren gaineko zenbait zuzentarau aplikatzearen inguruko txostenak normalizatu eta arrazionalizatzearen gaineko 1991ko abenduaren 23ko 91/692/EE Zuzentaruaren ezarritakoa betetzeko behar diren datuak bidaliko dizkiote autonomia-erkidegoetako organo eskudunek Ingurumen Ministerioko Itsasbazterren Zuzendaritza Nagusiari, Europako Batzordeari informazioa emateko

**ESTATUKO ALDIZKARI  
OFIZIALA**

betebeharrak betetzeko.

6. Gobernuak aldatu edo gehitu egin ahal izango ditu I., II. eta III. eranskinetan jasotako substantziak, kalitate-helburuak, neurketa-metodoak eta kontrol-prozedurak.»

Bi. Itsasbazterren 1988ko uztailearen 28ko 22/1988 Legearen I., II. eta III. eranskinak gehitzen dira, eduki honekin:

**«I. ERANSKINA**

**Substantzia arriskutsuak eta kalitate-helburuak**

Taldea	Kasu-kop.	Parametroa	Kalitate-helburua uretan (µg/l) (1)	Kalitate-helburua sedimentuan eta
Metalak eta metaloideak.	7440-38-2	Artsenikoa.	25	N. e. i. (2)
	7440-50-8	Kobrea.	25	N. e. i.
	7440-02-0	Nikela.	25	N. e. i.
	7439-92-1	Beruna.	10	N. e. i.
	7782-49-2	Selenioa.	10	N. e. i.
	18540-29-9	VI kromoa.	5	N. e. i.
	7440-66-6	Zinka	60	N. e. i.
Biozidak.	1912-24-9	Atrazina.	1	
	122-34-9	Simazina.	1	
	5915-41-3	Terbutilazina.	1	
	1582-09-8	Trifluralina.	0,1	
	115-29-7	Endosulfana.	0,01	
KOLak	71-43-2 108-88-3 1330-20-7 100-41-4 71-55-6	Bentzenoa. Toluenoa. Xilenoa. Etilbentzenoa. o.	30 50 30 30 100	
	36643-28-4	Tributileztainua (TBT).	0,02	N. e. i.
Hidrokarburo aromatiko poliziklikoak (HAP).	91-20-3	Naftalenoa.	5	N. e. i.
	120-12-7	Antrazenoa.	0,1	N. e. i.
	206-44-0	Fluorantenoa.	0,1	N. e. i.
	50-32-8	Bentzo(a)pirenoa.	0,1	N. e. i.
	205-99-2	Bentzo(b)fluorantenoa.	0,1	N. e. i.
	191-24-2	Bentzo(g,h,i)perilenoa.	0,1	N. e. i.
	207-08-9	Bentzo(k)fluorantenoa.	0,1	N. e. i.
193-39-5	Indeno(1,2,3-cd)pirenoa.	0,1	N. e. i.	

(1) Itsas uren kalitate-helburuak urteko batez besteko kontzentrazioari dagozkio; kontzentrazio hori kalkulatzeko, urtean zehar bildu eta neurtu diren laginek emandako balioen batezbesteko aritmetikoa aterako da. Urtean zehar bildutako laginen % 75ek ez ditu gaindituko ezarritako kalitate-helburuen balioak. Atzemandako balioek ezin izango dute inoiz gainditu % 50 baino gehiagoan proposatutako kalitate-helburuaren balioa. Kontzentrazioa kuantifikazio-mugaren azpitik dagoenean, kuantifikazio-mugaren erdia erabiliko da batez bestekoa kalkulatzeko. Puntu jakin batean urtean zehar egindako neurketa guztiak kuantifikazio-mugaren azpitik badaude, ez da beharrezkoa izango inolako batezbestekorik kalkulatzeko; halakoetan, besterik gabe, kalitate-araua bete egiten dela ulertuko da.

(2) N. e. i. (Nabarmenki ez igotzea): Denborak aurrera egin ahala, kutsatzailearen kontzentrazioak ez du nabarmenki igo behar.

**ESTATUKO ALDIZKARI  
OFIZIALA**

**II. ERANSKINA**

**Erreferentziako neurketa-metodoak**

Taldea	Kasu-kop.	Parametroa	Metodoa (1)	Kuantifikazio-muga (2)	Doitasuna	Zehaztasu	
Metalak eta metaloideak.	7440-38-2	Artsenikoa.	Xurgapen atomikoaren espektrofotometria.	% 10	% 10	% 10	
			Plasmaren espektrofotometria.	% 10	% 10	% 10	
	7440-50-8	Kobre	Xurgapen atomikoaren espektrofotometria.	% 10	% 10	% 10	
			Plasmaren espektrofotometria.	% 10	% 10	% 10	
	7440-02-0	Nikela.	Xurgapen atomikoaren espektrofotometria.	% 10	% 10	% 10	
			Plasmaren espektrofotometria.	% 10	% 10	% 10	
	7439-92-1	Berun	Xurgapen atomikoaren espektrofotometria.	% 10	% 10	% 10	
			Plasmaren espektrofotometria.	% 10	% 10	% 10	
	7782-49-2	Selenioa.	Xurgapen atomikoaren espektrofotometria.	% 10	% 10	% 10	
			Plasmaren espektrofotometria.	% 10	% 10	% 10	
	18540-29-9	Kromoa (VI).	Xurgapen molekularren	% 10	% 10	% 10	
	7440-66-6	Zinka.	Xurgapen atomikoaren espektrofotometria.	% 10	% 10	% 10	
Plasmaren espektrofotometria.			% 10	% 10	% 10		
Bioziodak.	1912-24-9	Atrazina.	Gasen kromatografia		% 25	% 25	
			Bereizmen handiko kromatografia likidoa.	% 25	% 25	% 25	
	122-34-9	Simazina.	Gasen kromatografia.	% 25	% 25	% 25	
			Bereizmen handiko kromatografia likidoa.	% 25	% 25	% 25	
	5915-41-3	Terbutilazina.	Gasen kromatografia.	% 25	% 25	% 25	
			Bereizmen handiko kromatografia likidoa.	% 25	% 25	% 25	
	1582-09-8	Trifluralina.	Gasen kromatografia.	% 25	% 25	% 25	
			115-29-7	Endosulfana.	Gasen kromatografia.	% 25	% 25
	KOLak	71-43-2	Bentzenoa	Gasen kromatografia	% 25	% 25	% 25
		108-88-3	Toluenoa	Gasen kromatografia	% 25	% 25	% 25
		1330-20-7	Xilenoa	Gasen kromatografia	% 25	% 25	% 25
		100-41-4	Etilbentzenoa	Gasen kromatografia	% 25	% 25	% 25
71-55-6		oa	Gasen kromatografia	% 25	% 25	% 25	
36643-28-4		Tributilzainua (TBT).	Gasen kromatografia.	% 25	% 25	% 25	
Hidrokarburo aromatiko poliziklikoak (HAP).	91-20-3	Naftalenoa.	Gasen kromatografia.	% 25	% 25	% 25	
			120-12-7	Antrazenoa.	Gasen kromatografia.	% 25	% 25
	191-24-2	Bentzo(g,h,i)perilenoa.	Gasen kromatografia.	% 25	% 25	% 25	
			Bereizmen handiko kromatografia likidoa	% 25	% 25	% 25	
	50-32-8	Bentzo(a)pirenoa.	Gasen kromatografia.	% 25	% 25	% 25	
			Bereizmen handiko kromatografia likidoa	% 25	% 25	% 25	
	205-99-2	Bentzo(b)fluorantenoa.	Gasen kromatografia.	% 25	% 25	% 25	
			Bereizmen handiko kromatografia likidoa	% 25	% 25	% 25	
	207-08-9	Bentzo(k)fluorantenoa.	Gasen kromatografia.	% 25	% 25	% 25	
			Bereizmen handiko kromatografia likidoa	% 25	% 25	% 25	
	206-44-0	Fluorantenoa.	Gasen kromatografia.	% 25	% 25	% 25	
			Bereizmen handiko kromatografia likidoa	% 25	% 25	% 25	
193-39-5	Indeno(1,2,3,c,d) pirenoa.	Gasen kromatografia.	% 25	% 25	% 25		
		Bereizmen handiko kromatografia likidoa.	% 25	% 25	% 25		

(1) Metodo normalizatuak erabiliko dira. Aipatutakoen ordezko metodoak erabili ahal izango dira, baldin eta taulan jasotako kuantifikazio-, doitasun- eta zehaztasun-muga berberak bermatzen badira; ordezko metodo horiek ez dute eduki behar zuzendu ezin den interferentzia ezagunik aztertzen den parametroaz gain ingurunean egon daitezkeen substantziekin.

(2) Kuantifikazio-muga gisa hau ulertuko da: lan-prozedura jakin batean oinarrituta lagin batean modu kuantitatiboan zehaztu daitezkeen kantitate txikiak eta, hala ere, zerotik bereiz daitezkeena. Adierazten den ehuneko substantzia kutsatzaile bakoitzari begira ezarritako kalitate-helburuaren ehuneko da.

### III. ERANSKINA

#### Kontrol-prozedurak

Indarreko legerian ezarritakoa baztertu gabe, honako hau hartuko da kontuan I. eranskinetako substantziak kontrolatzeko:

1. Isurketa-tokitik behar bezain gertu dauden puntuetan bildu beharko dira laginak, isuriari ondorioak jasan dituen eremu ur-inguruneak duen kalitatearen adierazgarri izan daitezzen.

2. Metal astunen balioak metal total moduan adieraziko dira.

3. Jalkinetan kontzentratutako substantzia kutsatzaileak 63 mm-tik beherako frakzio xehean zehaztuko dira, materia lehorra pisatuta. Jalkinaren izaerak ez duenean ahalbidetzen analisiak frakzio horretan egitea, 2 mm-tik beherako frakzioan zehaztuko da kutsatzaileen kontzentrazioa, materia lehorra pisatuta.

4. Biotetako kontzentrazioak zehazteko, materia hezea pisatuko da, batez ere muskuilu (*Mytilus* sp), ostra edo txirletan.

5. Ur-matrizaren kontrolak urtaro bakoitzean egingo dira, gutxienez. Alabaina, kontrolen maiztasuna murriztu egin ahal izango da, aurreko urteetan lortutako emaitzetan oinarritutako irizpide teknikoaren arabera.

6. Jalkinetako eta/edo biotetako analisiak urtean behin egingo dira, gutxienez.»

**Azken xedapenetatik seigarrena:** *Kutsaduraren prebentzio eta kontrol integratuen 2002ko uztailaren 1eko 16/2002 Legea aldatzea.*

Lehen xedapen iragankorraren bigarren paragrafoak idazkera hau izango du:

«Ondorio horietarako, ingurumen-baimen integratua 2007ko urtarrilaren 1a baino lehen aurkeztu bada, eta baimena eman behar duen organo eskudunak ez badu eman baimenaren ebazpen espresurik aurreko paragrafoan adierazitako eguna baino lehen, lehendik dauden instalazioek jardunean jarraitu ahal izango dute behin-behinean, ebazpen hori eman arte, eta gehienez ere sei hilabeteko epean, baldin eta aplikatzen diren araudi sektorialean ezartzen diren ingurumenaren arloko baldintza guztiak betetzen badituzte.»

**Azken xedapenetatik zazpigarrena.** *Europako Erkidegoko Zuzenbidea txertatzea.*

Lege honek Espainiako ordenamendu juridikoan sartzen ditu: Kontseiluaren 79/409/CEE Zuzentaraua, 1979ko apirilaren 2koa, basahagaztiak kontserbatzearen ingurukoa; eta Kontseiluaren 92/43/EEE Zuzentaraua, 1992ko maiatzaren 21ekoa, habitat naturalak eta basafauna eta basafloa kontserbatzearen ingurukoa.

**Azken xedapenetatik zortzigarrena.** *Erregelamendu bidez garatzea.*

1. Gobernuak, bere eskumenen esparruan, lege hau garatzeko behar diren xedapenak emango ditu.

Zehazki, ahalmena ematen zaio Gobernuari eranskinetan aldaketak egiteko eta, Europako Erkidegoko araudian aldaketak sartzen direnean, eranskinak aldaketa horien arabera egokitzeko.

2. Ahalmena ematen zaio Nekazaritza, Elikadura eta Ingurumeneko ministroari erregelamendu bidez garatzeko Natura 2000 Sareko gune babestuen gaineko informazio ofiziala autonomia-erkidegoen, Estatuko Administrazio Orokorraren eta Europako Batzordearen artean komunikatzeko prozedura; 42. eta 44. artikuluetan aipatzen da prozedura hori.

3. Ahalmena ematen zaio Nekazaritza, Elikadura eta Ingurumeneko ministroari Europako Batzordeari jakinarazpenak egiteko prozedurak arautzeko: bai plan, programa edo proiektuetarako hartutako konpentsazio-neurrien kasuan –45.5 artikuluan xedatzen da prozedura hori– eta baita Europako Batzordeari aurrez kontsulta egiteko kasuan ere –45.6.c artikuluan xedatzen da beste prozedura hori–.

**Azken xedapenetatik bederatzigarrena. Erregelamenduak egiteko ahalak Ceuta eta Melillan.**

Erregelamenduak egiteko ahalak erabiliko dituzte Ceuta eta Melillako hiriek, lege hau eta estatuak ematen dituen arlo bereko legeak betez; 1995eko martxoaren 13ko 1/1995 eta 2/1995 lege organikoek esleitu zizkieten ahal horiek bi hiri horiei.

**Azken xedapenetatik hamargarrena. Indarrean jartzea.**

Estatuko Aldizkari Ofizialean argitaratu eta biharamunean sartuko da indarrean lege hau.

Hortaz,  
lege hau betetzeko eta betearazteko agintzen diet espainiar guztiei, norbanako nahiz agintari.

Madriren, 2007ko abenduaren 13an.

JUAN CARLOS E.

Gobernuko presidentea, JOSÉ  
LUIS RODRÍGUEZ ZAPATERO

## I. ERANSKINA

### **Batasunaren intereseko habitat natural motak (haiek kontserbatzeko, kontserbazio bereziko eremuak hautatu behar dira)**

#### ***Interpretazioa***

Habitat mota bakoitza ezagutzeko orientabideak ematen dira "Europar Batasuneko Habitatak Ezagutzeko Eskuliburua"n; Habitaten Zuzendaritza 20. artikuluan ezarritako komiteak onetsi zuen eskuliburua ("Habitaten Komitea"), eta Europako Batzordeak argitaratu zuen<sup>(\*)</sup>.

---

<sup>(\*)</sup> "Europar Batasuneko Habitatak Ezagutzeko Eskuliburua" 1999ko urriaren 4an onetsi zuen Habitaten Komiteak; 8"Europar Batasunaren hedapenari begira 'Europar Batasuneko Habitatak Ezagutzeko Eskuliburua'n egin ziren aldaketak" (Hab. 01/11b - 1. ber.) 2002ko apirilaren 24an onetsi zituen Habitaten Komiteak, aldezturik Europako Batzordearen Ingurumeneko Zuzendaritza Nagusiari idatziz kontsulta egin ondoren. \$\$\$ \$\$\$

Kodea NATURA 2000 kodeari dagokio. "\*" ikurrak  
lehenasunezko habitat motak adierazten ditu.

#### 1. KOSTALDEKO HABITATAK ETA LANDAREDI HALOFILOAK.

##### 11. Itsas urak eta mareaguneak.

1110 Sakonera txikian beti ur gaziz estalita dauden hondarpeak. 1120 \* Posidonia-zelaiak  
(*Posidonia oceanica*).

1130 Estuarioak.

1140 Itsasbeheran urez estalita ez dauden ordeka istiltsu edo hareatsuak.

1150 \* Kostaldeko urmaelak.

1160 Kala handiak eta sakonera txikiko badiak.

1170 Arrezifeak.

1180 Gas-isuriak eragindako itsaspeko egiturak.

##### 12. Itsaslabarrak eta harkoskozko hondartzak.

1210 Itsasoko hondakin metatuetan hazten den urteko landaredi aitzindaria.

1220 Harkosko-bankuetako landaredi iraunkorra.

1230 Atlantikoko eta Baltikoko itsasbazterretako landaredia duten labarrak.

1240 *Limonium* spp. endemikodun Mediterraneoko itsasbazterretako landaredia duten labarrak.



1250 Itsasbazter makaronesiarretako landaredi endemikoa duten labarrak.

13. Padura eta larre gazi atlantiko nahiz kontinentalak.

1310 *Salicornia* eta eremu istiltsu edo hareatsuetako beste espezie batzuk dituen urteko landaredi aitzindaria.

1320 *Spartina*-larreak (*Spartinion maritimi*).

1330 Larre gazi atlantikoak (*Glauco-Puccinellietalia maritimae*). 1340 \*  
Larre gazi kontinentalak.

14. Padura eta larre gazi mediterraneo eta termoatlantikoak. 1410 Larre gazi mediterraneoak (*Jucentalia maritimi*).

1420 Sastraka halofilo mediterraneo eta termoatlantikoak (*Sarcocornetea fruticosae*).

1430 Sastraka halo-nitrofiloak (*Pegano-Salsoletea*).

15. Estepa kontinental halofilo eta gipsofiloak.

1510 \* Estepa gazi mediterraneoak (*Limonietalia*). 1520 \*

Landaredi gipsikola iberiarra (*Gypsophiletalia*). 1530 \*

Estepa eta padura gazi panonikoak.

16. Ipar Baltikoan agertutako artxipelago, itsasbazter eta lurrazalak.

1610 Harea, arroka edo harkoskozko hondartzetako landaredia eta landaredi sublitorala dituzten Baltikoko esker-uharteak.

1620 Ipar Baltikoko uhartetxo eta uhartexkak.

1630 \* Ipar Baltikoko kostaldeko zelaiak.

1640 Landaredi bizikorra duten Ipar Baltikoko hareazko hondartzak.

1650 Ipar Baltikoko kala estuak.

2. ITSAS DUNAK ETA DUNA KONTINENTALAK.

21. Atlantikoko, Ipar itsasoko eta Baltikoko itsasbazterretako itsas dunak. 2110

Duna higikor enbrionarioak.

2120 *Ammophila arenaria*dun itsasbazterreko duna higikorrak (duna zuriak). 2130 \* Landaredi belarkara duten kostaldeko duna finkoak (duna grisak). 2140 \* *Empetrum nigrum*dun duna finko deskaltzifikatuak.

2150 \* Duna finko deskaltzifikatu atlantikoak (*Calluno-Ulicetea*).

2160 *Hippophaë rhamnoides*dun dunak.

2170 *Salix repens* spp. *argentea* dun dunak(*Salicion arenariae*).

2180 Eskualde atlantiko, kontinental eta borealetako duna zuhaiztsuak. 2190

Duna barruko sakonune hezeak.

21A0 Machairs (\* Irlandan).

22. Mediterraneoaren itsasbazterretako itsas dunak.

2210 *Crucianellion maritimae*z osatutako

itsasbazterreko duna finkoak.

2220 *Euphorbia terracin*dun dunak.

2230 *Malcomietalia*-soropilak dituzten dunak.

2240 *Brachypodietalia* eta urteko landarez osatutako soropilak dituzten dunak. 2250 \* *Juniperus* spp.dun itsasbazterreko dunak.

